

# TXILLARDEGI HIZKUNTZALARI

Markos Zapiain Agirre



IRALE Dolaretxe, R400  
2023-2024

**Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren onespina du.**

**Onespenaren data: 2024-04-09**

## TXILLARDEGI HIZKUNTZALARI

«Hizkuntzaren Filosofia: euskaratik abiatutako analisia. Jose Luis Alvarez Enparantza, “Txillardegi”» da Filosofiaren Historiako programa berriko gai baten izenburu luzea. Gai hori jorratzeko Filosofia irakasleari lagungarri izan dakion idatzi dut lan hau.

IRALEko ikastaroari esker, ikasmateriala sortzeko, antolatzeko eta aurkezteko baliabide berriak ezagutu ditut, aurrerantzean ere erabiltzeko modukoak.

*Agora* Filosofia taldeko kide batzuek elkarrekin aurkeztu genuen Filosofiaren Historiako programa berriko atalak lantzeko proiektua: Jaione Galdos, Garazi Pascual, Nerea Portillo, Itsaslore Yarza, Ibai Zabala eta seiok. Oso lagungarriak izan zaizkit haien iradokizunak, aholkuak eta belarriak.

Eskerrik asko Maddi Alvarezzi ere, Txillardegiri buruzko informazio konfidentzial mamitsua nire esku jarrita erakutsitako konfiantzagatik eta eskuzabaltasunagatik.

Azkenik, ez nekike merezi bezala goraiatzen Hodei Agirre tutorearen pazientzia, argitasuna eta talentu pedagogikoa. Mila esker guztiagatik!

## SARRERA

Txillardegi ez zen inertziatzko oinordeko bat izan. Aukeratutako jaraunspenarekin egin zuen bere burua. Buruzagi naturaltzat hartua izateko ezinbesteko baldintza izaten da hori. Buruzagiaren karisma sumatzen baitzioten inguruko askok.

Txikitandik sentitu zuen euskara desagertzen ari zela. Gurasoek bazekiten, baina ez zioten erakutsi. Oñatiko lehengusuei ez zien ulertzen, ezta etxe inguruko baserritarrei edo Sunbillako lagunei ere. Txillardegik ez zeraman batere ondo. Euskara bere hizkuntza zela erabaki, eta katakonbetan ozta-ozta bizirauten zuen garai batean, bere kabuz ikasteari ekin zion.

Hizkuntzekin ere, “hilda gero salda bero” jokutzen dugu sarritan. Pena handia ematen digute hizkuntzen eta herrien heriotzek, baina izaki praktikoak gara, erosotasuna nahi dugu guztiaren gainetik. Euskara hiltzen ari dela? Milaka hizkuntza hil dira lehenago ere, horrelakoa da bizitza. Atxikimendu sentimental horrek ondo ematen du etnologoen eta abertzaleen zirkuluetan, baina ez da eraginkorra. Egiari zor, astuna da, gogaikarria, eta traba egiten dio merkataritzari. Utikan. Bizi gaitezen ahal bezain ongi, oztopo gutxien dakarren hizkuntzan, eta, euskara behin betiko itzalirikoan isuriko ditugu hiletan —jendaurrean noski—, krokodilo-malko eder askoak. Horixe da ikuspuntu eta jokaera hedatuenetako bat.

Dena den, badira hipokritak ez diren jarrerak ere. Fatalismo bati zinez zaio mingarria euskararen desagertzea, baina uste du ez dagoela

zereginik. Joera historiko nagusiak kontuan harturik eta ahaleginak ahalegin, euskara bezalako hizkuntzek ez dute irauteko inongo aukerarik. Beraz, patuak ezinbestez dakarkiguna onartu beharra dago, kontra egiteak ez baitu ezertarako balio, ez bada agonia luzatzeko.

Jarrera hegemoniko horien aurka altxatu zen Txillardegia. Ikaragarri oinazetsua zitzaien bere hizkuntzaren heriotza, baina uste zuen oraindik bazela salbabiderik, lan militanteari ganoraz ekinez gero. Gure esku dago, hein batean, euskara salbatzea. Gogor lan egin behar, hori bai, eta aisetasuna sakrifikatu.

Halatan, buru-belarri engaiatu zen euskararen aldeko ahaleginean. Ingeniaritza ikasten zuen garaian, egunero-egunero gauerditik goizeko 3:00ak arte aritzen zen euskararekin, jo eta ke. Lanean ere, ingeniari edo irakasle ibili zelarik, lanaldiaren ostean 20:00etan hasi eta 24:00ak arte irakurtzen eta idazten zuen. Hizkuntzalaritzaren ingurukoak ziren bere liburutegiko ale gehienak.

Aurrena, abertzale aizunen aurka abiatu behar izan zuen euskararen aldeko borroka, hizkuntza adierazpen folklorikotzat jotzen zutenen aurka, dantzaren, txistuaren, pilotaren, sukaldaritzaren edo abarken eta kaikuaren maila berean. Horretan zebiltzan jeltzale asko 40ko eta 50eko hamarkadetan, baita hurrengoetan ere. Hurrena, klase borrokaren lehentasunaren izenean euskara sistematikoki baztertzeraz zeramatenen aurka. Euskararen aldeko tresna gisa sortu zuen Txillardegik ETA, baina, sumatu zuenean infiltrazio espainolista buruzagitzaz jabetzen ari zela, dimisioa eman zuen.

Bere onetik ateratzen zuen euskaldun zahar gehiegiren epelkeriak. Euskarari zegokionez, tentsioan bizi zen Txillardegik; baina, gainera, tentsioaren aldekoa zen. Lagun askok leporatzen zioten esajeratu bat izatea. Arriskutsuak izaten dira interpretazio psikologikoak, baina ez da gauza bera zeure hizkuntza zeure baitatik zeharo desagertu dela sentitzea, eta berreskuratu behar izatea, edo guraso euskaldunengandik euskara jaso eta inoiz galdu ez izana. Gorputzean sentitu zuen Txillardegik herriaren heriotza, nerbioetan, ezin gordinago. Aldiz, oinordekotzan jaso duenak badaki bera bizi den bitartean, behintzat, euskara ez dela hilko.

Borrokari eta militantzia politikoari eman zitzaion bizialdi osoan, eta hizkuntzaren filosofiari buruzko bere idazkirik esanguratsuenak —*Branka* aldizkariko artikuluak eta *Hizkuntza eta pentsakera* liburua— sasi-abertzaleen eta sozial-inperialisten aurkako polemiketan sortu ziren, 60ko hamarraldiaren bigarren zatian, erbestealdian, Bruselan eta Waterlooan. Gizonak ziren polemista guztiak. Deigarri gertatzen da gaur egun. Hizkuntzalari eta filosofo frantsesak zituen Txillardegik erreferentzia nagusi: inguru frankofonoan bizi zen, eta artean ez zegoen Internet. Eskura zeuzkan liburuak zerabiltzan. Estrukturalismoa baliatu zuen arma gisa.

# **LEHENBIZIKO ATALA: HIZKUNTZATASUNA**

# ESTRUKTURALISMOA

Txillardegi idazten hasi zen garaian, marxismotik estrukturalismora igaro ziren hainbat idazle Frantzian. François Furet historialariaren esanetan, adikzio ideologikoak behar izaten ditu intelektual frantsesak, eta marxismoaren kokaina estrukturalismoaren LSDarekin ordeztu zuten. Gizon berriaren igarleen ondoren, gizakiaren disoluzioaren analistak etorri ziren.<sup>1</sup>

Txillardegik zioen adikzio erlijiosoak behar izaten dituela euskaldun mota batek. 60ko hamarraldiaren amaieran, Euskal Herriko seminarioak hustu zirenean, gogorregia egin omen zitzaien fraide ohiei inongo federik gabe bizitzea, eta marxismoa hartu zuten ordezeko fedetzat. Ez zitzaien zaila egin, bere liburu sakratu, karisma, milenarismo, herexe eta edozein erlijioaren parafernaliaz hornitua baitzeturren marxismoa.<sup>2</sup>

Txillardegik, Marxen aholkuari jarraiki, ETAko marxistek ziotena baino gehiago zegitena hartzen zuen kontuan. Eta, Txillardegi-eta erbestean zeudela profitaturik, marxistak buruzagitzaz jabetu eta goitik behera hasi zen erakundea gaztelaniaz funtzionatzen. PSOEn amaitu zuen buruzagi haietako zenbaitek. Ez zetozen bat ez sentsibilitateak ez proiektu politikoak. Praktika erdaldun hori zurrizteko, klaseen nazioartekotasuna, “herri” kontzeptuaren kutsu burgesa eta antzeko ideiak zerabiltzaten. Sutan jartzen zen Txillardegi.

---

<sup>1</sup> LOYER, Emmanuelle, *Lévi-Strauss*, Flammarion, Paris, 2015, 470. or.

<sup>2</sup> TXILLARDEGI, *Hitza hitz*, Elkar, Donostia, 1996, 103. or.



Edonola ere, ñabardurarik ez zaio falta donostiarraren antimarxismoari. Materialismo historikoaren ideia nagusiak onartzen ditu, eta aldarrikatzen du historiak frogatu duela klaseei buruzko Marxen ideiak egiazkoak direla.<sup>3</sup> Erantsiko duenez, «[...] marxismoa ezagutu eta lehen impresioa da gizartea X izpien bidez ikusten duzula».<sup>4</sup>

Ordea, ez zien ezikusia egin Stalinek marxismoaren izenean egin zituen krimenei. Ez zuen uste CIAren propaganda hutsa zirenik Gulag Artxipelagoa, sobietarren tankeak Budapesteko 56ko iraultzan, edota 68ko udaberrian Pragan. Marxismoa oinarri omen zuten sobietarrei leporatzen zien pluralismoa eta demokrazia ez bermatzea. Eta marxista euskaldunak moskuteroko itsuak ei ziren.<sup>5</sup>

Polemika betean, Txillardegik idatzi zuen marxismoa mitologia zela, moda hutsa, eta estrukturalismoa, berriz, zientzia: etorkizuneko itzalari dagokionez, pareko ikusten zituen Albert Einstein eta Ferdinand de Saussure. *Hizkuntza eta pentsakera* saiakeran erruz erabili zituen materialismo dialektikoaren aurkako Lévi-Strauss estrukturalistaren ideiak. Ordea, gauzak apur bat gehiago konplikatzeko, Lévi-Straussekin marxistatzat zuen bere burua. Hori bai, inork gutxik sinesten zion. Marxista eta estrukturalista izan zaitezkeela aldi berean, Louis Althusseren materialismo aleatorioak erakutsi zuen garbi. Dena den, handik pixka batera bere bolada estrukturalista *desbiazionismo*tzat joko

---

<sup>3</sup> *Ibidem*, 118. or.

<sup>4</sup> “Elkarrizketa”, in *Argia*, Euskal Kulturaren Urtekaria, Lasarte-Oria, 2007, 39. or.

<sup>5</sup> *Hitza hitz*, 109. or.

zuen.<sup>6</sup> Pentsalaria ondo sailkatua eta etiketatua duzula uste orduko, ihes egiten dizu.

## FONOLOGIA

“Estruktura” hitza erabili ez zuen hizkuntzalari batek jarri zuen abian Estrukturalismoa, Ferdinand de Saussure suitzarrak, *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa* liburuarekin —“estruktura” barik “sistema” zerabilen—.

Liburua ez zuen berak idatzi; Saussurek unibertsitateko klaseetan esandakotik ikasle bik jasotakoa biltzen du. Saussure arte, hizkuntzalaritza historikoa zen, diakronikoa, konparatista eta atomista. Hizkuntzalari suitzarrak, berriz, azterketa sinkronikoa bultzatzen du, immanentea eta arreta jartzen duena ez hizkuntzako termino bakoitzean, baizik eta elementuen arteko harremanetan.

Ez zuen azterketa diakronikoaren aurka jo, baina sinkronikoak ere baduela bere esparrua aldarrikatu zuen. Alegia, hizkuntza ulertzeko bere historiako edozein unetan hizkuntzaren elementuek beren artean duten harreman sistematikoari erreparatu behar zaio, hizkuntza osatzen duten estrukturei.<sup>7</sup> Eta sistema hori osotasun itxia da, bere baitan balio du.

---

<sup>6</sup> Txillardegiren eta marxismoaren arteko harreman zailak ulertzeko, Pako Suduperen *Txillardegiren borroka abertzalea* bikaina da tresnarik egokiena. Eta mundu osoko marxistek eta antimarxistek hizkuntzaz esandakoa zehazki ezagutzeko, berriz, Joxe Azurmendiren *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* ezin aberatsagoa.

<sup>7</sup> TXILLARDEGI, *Hizkuntza eta pentsakera*, Gero, Bilbo, 1972, 28. or.

Fonologia izan zen bide zientifikoa hartu zuen estrukturalismo linguistikoaren lehenbiziko adarra, Nikolai Trubetskoï printzeari eta Roman Jakobsoni esker. Gizakiok milaka soinu ahoska ditzakegu. Fonetikak aztertzen ditu eztarriaren, ahosabaiaren eta mihiaren kokapenak, hotsen frekuentzia fisikoak, akustika, etab. Fonologiak, berriz, hizkuntzaren sistemaren baitan esanguratsuak diren soinuak hartzen ditu aintzat.<sup>8</sup> Fonetika funtzionala litzateke. Horrela, Mitxelenak dioenez, Fonologiak «Fonetikak baino gehiago eskatzen dio beharbada adimenduari, baina, aitzitik, askozaz guttiago belarriari».<sup>9</sup>

Fonetikak erakutsiko digu “etxe berria” diogunean, ez direla berdinak “etxe”ko lehenbiziko /e/ hori eta “berri”ko /e/: meharra baita lehenbizikoa, bigarrena irekia. Fonologiari ez zaio bereizketa hori axola, /e/ meharra ez zaiolako /e/ irekiari kontrajartzen esanahia bideratzeko orduan. /e/ irekiaren eta /e/ meharraren arteko aldeak ez du esanahiak bereizteko balio; soinu desberdinak izan arren, ez dira bi fonema desberdin.<sup>10</sup>

Aitzitik, euskarak /a/, /e/, /i/, /o/ eta /u/ kontrajartzea kontuan hartzekoa da —fonema desberdintzat ditu Fonologiak—, “gerra”, “garra” eta “gorra” ez baitira gauza bera; zentzu desberdina dute “baso” eta “beso” hitzek ere, edota “ikasi” eta “ikusi” hitzek, “arkatz” eta “orkatz”, “urkatu” eta “erkatu”, “irri”, “orri” eta “urri”, “hats”, “hits”, “hots” eta “huts”.

---

<sup>8</sup> TXILLARDEGI, *Euskal Fonologia*, Ediciones Vascas, Donostia, 1980, 10. or.

<sup>9</sup> MITXELENA, Koldo, *Euskal idazlan guztiak VI, Hizkuntzalaritzaz I*, EEE, Donostia, 1990, 131. or.

<sup>10</sup> *Euskal Fonologia*, 12. or. ; MITXELENA, Koldo, *Zenbait hitzaldi*, EEE, Donostia, 2003, 55. or.

Horrela, giza ahoak sortu ditzakeen soinu bokal posible guztien artean euskarak 5 bereizi ditu fonema gisa. Inuiterak, berriz, ez ditu /a/, /i/ eta /u/ baino. Ingelesak 13 fonema bokaliko ei ditu.

Datu horiek erakusten dutenez, bereizte eta aukeratze hori bere erara egiten du hizkuntza bakoitzak, ez da balizko logika unibertsal baten arabera. Eta inkontzientea da. Dagoena ordenatzeko eta taxutzeko beharra da giza adimenaren premia sakonena, eta hori hizkuntzak egiten du aurrenik.<sup>11</sup> Ondoren, giza adimenak estruktura fonologikoarekin bezalatsu dihardu ahaidetasun-harremanak, mitoak eta ametsak antolatzeke orduan: errealitate ugari lausoa ebaki, bereizketak egin, aukeratu, ordenatu eta erabili.

## **GIZA HIZKUNTZAREN BEREZITASUNA**

Ondo zekien Txillardegik noraino heltzen diren primateak pertsona gorren zeinu-hizkuntza erabilita. Artikulu gogoangarri bat eskaini zion, *Hizkuntzalaritza* hiztegian jaso: “Mintzamina gizonetik at”. Txillardegik garbi zuen ez dela errotikoa gizakien eta gainerako animalien arteko aldea. Animalia guztiok ditugu geure bereizgarriak. Darwinista zen. Hizkuntzari dagokionez ere, gradualtzat zuen primateen eta gizakion komunikazio-sistemen arteko bilakaera, ez jauzi absolututzat. Harrigarria zitzaion txinpantzeen gaitasuna aurretik ezagutzen dituzten

---

<sup>11</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 43. or.

hitzak konbinatuz hitz berriak sortzeko: adibidez, “ur” eta “txori” ezagututa, lehenbiziko aldiz ahate bat ikusi eta “ur-txori” bataiatzekoa.<sup>12</sup>

Dena den, esanguratsua zeritzon, halaber, giza mintzamenaren eta txinpantzeenaren arteko aldeari. Primateen zeinu-hizkuntzak ez darabilen artikulazio bikoitzean kokatu zuen alde horren funtsa. André Martinet hizkuntzalariak asmaturiko kontzeptua da. Eta, Txillardegik dioenez, «Giza-mintzairaren oinarria bera artikulazio bikoitza baldin bada, antroipoideek ikasi duten mintzabidea ez da giza-mintzaira».<sup>13</sup>

Txillardegik bezala, Martinetek uste du mintzabidea dela funtsean hizkuntza. Esaldiak esanahia sortzen du, eta transmititu nahi izaten du. Alta, berez esanahirik bideratzen ez duten hotsak darabiltza giza hizkuntzak, bokalak eta kontsonanteak. Ez dira soinuak baizik. Esanahira iristeko, artikulatu egin behar dira. Eta Martineten esanetan, hizkuntza naturalak, hizkuntza formalak ez bezala, bikoitza du artikulazioa.

Zertan da artikulazio bikoitz hori?

Txillardegiren hitzetan,

«[...] artikulazio bikoitzaren teoriaren arabera, ahozko katea mintzatua da hizketa; eta katea mintzatuan agertzen diren soinuak, bi mailatan zati daitezke. Lehenengo mailako atalek («monemek») bi izari dituzte: fonetikoa eta semantikoa; bigarren mailako atalek («fonemek»), berriz, izari bakar bat dute: fonetikoa. Monemek zerbait adierazten dute; fonemek, berriz, ez dute ezer adierazten».<sup>14</sup>

---

<sup>12</sup> TXILLARDEGI, *Hizkuntzalaritza*, UZEI, Donostia, 1982, 320. or.

<sup>13</sup> *Ibidem*, 17. or.

<sup>14</sup> *Ibidem*, 316. or.

Hortaz, esanahia duen edozein unitate konplexu, hala nola esaldia edo hitza, osagai txikiagoetan banatu daiteke. Maila bitan sailkatu daitezke osagairik txikienak: maila batean monemak daude. Esanahia duten elementu minimoak dira monemak. Eta bestean fonemak: esanahirik ez duten baina esanahiak bereizteko balio duten elementuak dira. Zenbait fonema elkartuz sortzen dira monemak.

Mugatuak dira fonemak kopuruz, baina fonemen arteko konbinazioari esker, monema, hitz eta esaldi kopuru mugagabea sortu dezakegu. Monema mota bi dauzkagu: batetik independenteak, hitz oso gisa ageri daitezkeenak, “zuhur”, “eta” edota “gauza” legez; eta, bestetik, mendekoak, ezinbestez doazenak beste monema bati lotuak, hala nola “-tasun”, “-keta” edo “-garri” atzizkiak.

Lehenbiziko artikulazioa, beraz, esanahiari dagokio. Hori bai, ez dira monema eta hitza nahasi behar: “bernazaki” izenak ez du monema bakarra, hiru baizik: “berna”, “zahar” eta “ki”. “Harrigarriak” hitzak, berriz, lau monema dauzka: “harri”, “garri”, “a” eta “k”.

Bigarren artikulazioa soinu bereizgarriari dagokie. Horrela, “hutsa” ez da “hotsa”. /u/ eta /o/ euskaraz ez dira fonema bera. Fonema bik, formalki bereizten dituzte esanahi propioak dituzten unitateak. Are, berezko esanahirik ez dutenetarik ere bereizten dituzte (\* /hets/).

Giza hizkuntzaren ezaugarri bereizgarria artikulazio bikoitza izateak esan nahi du bai fonemak eta bai monemak ezin konta ahal moldetan konbina ditzakegula, mugagabeki sortu ditzakegula esanahi berriak.

Martineten adibidea: sekulako buruko mina jartzen bazait, garrasi egin dezaket. Hori ez da giza hizkuntza; bai ordea “buruko mina daukat” esatea.<sup>15</sup> “Min” eta “buru” monemak dira. Milaka bestelako esalditan artikula ditzaket beste monema batzuekin: “herrimina sentitu zuen”, “mindua dauka bizkarra”, “lehengusua jarri dute enpresako buru”, “buru hainbat aburu”, etab. Era berean, /b/ eta /u/ fonemak dira, eta milaka eta milaka monema, hitz eta esaldi sortu ditzaket beste fonema batzuekin konbinatuz eta artikulatuz gero.

Washoo, Moja, Lucy, Booce eta Txillardegik “Mintzamena gizonetik at” zoragarrian aurkeztu zizkigun gainerako primate berritsuek ez dute egundo artikulazio bikoitza erabili. Behar handirik ere ez zuten izango.

## **ARBITRARIOTASUNA ETA ASKATASUNA**

Giza kontzientziaren askatasuna azpimarratzen zuten existentzialistek. Estrukturalistak, berriz, ez ziren askatasunaren erabilera existentzialistaz fio. Kontzientziari dago existentzialisten askatasuna lotua, baina inkontzienteki eta lege zorrotzen arabera sortzen ditugu estrukturalistek aintzat hartzen dituzten egiturak. Libre izatera kondenatua, natura osoan, gizakia baino ez du ikusten Jean Paul Sartre humanistak; aitzitik, bizidunak oro gobernatzen dituzten legeen pean ikusten du gizakia ere Claude Lévi–Strauss humanismo filosofikoaren etsai estrukturalistak: «Giza zientzien azken xedea ez da gizakia eratzea, gizakia *disolbatzea*

---

<sup>15</sup> *Éléments de linguistique générale*, 5. argitalpena, Armand Colin, Malakoff, 2008, 37-39. orr.

baizik».<sup>16</sup> Txillardegik ez die ez batari eta besteari uko egin nahiko. Baina 60ko hamarraldiaren bigarren zatian, marxista ortodoxoen aurkako polemika betean euskararen balioaz, estrukturalismoa erabiliko du batik bat. Esate baterako, paragrafo honetan:

«[...] geure buruz eta loturarik gabe aukeratu uste dugularik ere, geure adimenari datxezkon estrukturamenaren arabera jokatzeko dugula; hau da, eskema urri batzuen azalpide-hutsuneak bete behar bagenitu bezala [...] gure adimenak ez duela nolanihi jokatzeko eta hautatzeko. Inkontzientek guran oso sakonean ezarritako molde aldagaitz batzuen arabera baizik».<sup>17</sup>

Ezinbestez ezartzen ditu estrukturamen inkontziente horrek korrelaziozko eta oposiziozko harremanak hizkuntzan eta munduan.<sup>18</sup> Halatan, hizkuntzaren zenbait estruktura, hala nola fonologikoa, inkontzientean eta legepean sortua denez gero, ezin da berariaz aldatu. Hor ez dago askatasunik.

Aitzitik, zeinua osatzen duten soinu-segidaren eta esanahiaren arteko harremana arbitrarioa denez —bestela esanda, librea—, hautatu dezakegu “eliza” edo “txadon” esan, “berde” edo “orlegi”, “txio” edo “tuit”. Zein soinu-segida erabili esanahi jakin bati lotzeko; hortaz, aldagarria da, komunitate linguistikoaren esku dago eta denborak finkatzen du.<sup>19</sup>

Halatan, behin herriak aukeretako bat hobetsi eta hedatu ondoren, gizabanakoak ezin du esanahia edozelan adierazi. Ez luke zentzurik

---

<sup>16</sup> LÉVI-STRAUSS, Claude, *Pentsaera basatia*, Gaiak, Donostia, 2005, 351. or.

<sup>17</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 71. or.

<sup>18</sup> LÉVI-STRAUSS, Claude, *Antropologia estrukturala*, Klasikoak, Bilbo, 1995, 56. or.

<sup>19</sup> Lévi-Straussek ez du Saussureren arbitrariotasuna osatoro bere egiten. Dioenez, zeinu linguistikoaren arbitrariotasuna ez da behin-behinekoa baino: «*a priori* arbitrarioa da, baina *a posteriori* hala izateari uzi egiten dio». *Antropologia estrukturala*, 121-126. orr. Txillardegik kontuan hartuko ditu Lévi-Straussen ñabardura horiek.



euskaldun batek elizari “txio” deitzeak: inork ez lioke ulertuko, eta hizkuntza —Txillardegik dioenez—, mintzabidea da funtsean, elkarrekin harremanetan jarduteko tresna.<sup>20</sup> Saussureren hitzetan:

«Hizkuntza, gizarte indarren emaitza bat dela esatea ez da nahikoa librea ez dela argi uzteko, eta, hizkuntza beti aurreko garai baten ondoretasuna dela gogoraturik, erantsi behar dugu indar horiek denboraren arabera jokatzeko dutela. Hizkuntzak finkotasunaren ezaugarria agertzen badu, kolektibitatearen pisuari lotua ez ezik, denboran kokatua dagoelako da. Bi gertaera horiek ezin banatuzkoak dira. Une orotan, lehenaldiarekiko elkartasunak oztopo egiten dio hautatzeko askatasunari. “Gizona” eta “zakurra” esaten dugu, baina guk baino lehenago “gizona” eta “zakurra” esan delako. Hori ez da, dena den, oztopoa fenomeno orokorrean lotura bat izateko bi faktore antinomiko hauen artean: egiune arbitrarioa, zeinak ahalbidetzen baitu hautu librea, eta denbora, zeinari eskerrak hautua finkatua aurkitzen baita. Ikurrak tradizioaren legea besterik ezagutzen ez badu, arbitrarioa delako da, eta alderantziz ere, arbitrarioa izan daiteke, tradizioan oinarritzen delako, hain zuzen».<sup>21</sup>

Horrenbestez, arbitrariorotasunari esker erdiesten du herriak identitatea. Txillardegik dioenez, poetak poema sortzeko darabilen antzeko askatasunez taxutzen du herriak errealitatea eta sortzen hizkuntza.<sup>22</sup>

Askatasun horri esker ezar dezake soinuen eta zentzuen arteko harreman berez arbitrarioa: edozein soinu-segidak balio du edozein esanahi adierazteko. Itsasoari ez dagokio hobeto “sea” “mer” baino. “Erretroski” ere deitu geniezaioke, edota “parjolitxu”. Arbitrariorotasun horrek

---

<sup>20</sup> TXILLARDEGI, *Euskararen aldeko borrokan*, Elkar, Donostia, 2004, 119. or.

<sup>21</sup> *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa*, EHU, Bilbo, 1998, 104. or.

<sup>22</sup> *Euskararen aldeko borrokan*, 71. or.

adierazten duen sinboloak sortzeko gaitasunak mamitzen du Txillardegik «hizkuntzaren liberazio-ahalmen harrigarria» deritzona, afasiak galarazten duena.<sup>23</sup>

Saussureren esanetan, zeinua orrialdearen antzekoa da: aurpegietako bat pitzatuz gero, ezinbestez pitzatuko da bestea ere. Eta arbitrariotasuna, Saussurenean zein Txillardegirenean, identitatearen beste aldea da. Argi ikusi du Oscar Massottak: hautu arbitrario horien bitartez sortzen da nazio-hizkuntza bakoitzaren egitura bereizgarria eta diferentzia.<sup>24</sup> Estrukturalismoak, diferentziari ematen dion arren lehentasuna identitatearen gainetik, ezin dio utzi diferentziaren eta identitatearen arteko harremanari buruz pentsatzeari.<sup>25</sup>

Arbitrariotasun linguistikoa eta herriaren nortasuna lotuta daude, eta lotura horri dagokio nazio-hizkuntza edo talde linguistiko bakoitzaren estruktura diferentziala. Horixe izaki, hain zuzen, Txillardegiren obra osoko giltzarrietako bat: arbitrarioak dira, fonemak sortzeko, gizakiak soinu-kate infinituan egiten dituen aukerak; baita koloreak taxutzekoak ere, edota egitura gramatikalak, aditza eta denbora, etab. Hala ere, behin hautuak eginik, bereizgarria izango da nazio-hizkuntza horren estruktura, eta herriaren funtsaren osagai.

Modu eklektikoan egin zituen Txillardegik bere existentzialismoa eta estrukturalismoa, eta ez zuen kontraesan gaindiezinik sumatzen

---

<sup>23</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 112. or.

<sup>24</sup> MASSOTTA, Oscar, *Ensayos lacanianos*, Anagrama, Bartzelona, 1976, 81-82. orr. Massottarenean, bat datoz talde linguistikoa eta nazioa. Jacques Lacan psikoanalista estrukturalistaren dizipulua zen Massotta.

<sup>25</sup> LÉVI-STRAUSS, Claude, *Antropologia estrukturala*, 355. or. eta MONOD, Jean-Claude, *Dictionnaire Lévi-Strauss*, Bouquins, Paris, 2022, 389. or.

arbitrariotasunaren eta askatasunaren artean. *Hizkuntza eta pentsakeran* estrukturalismoaren alde existentzialismotik urrutiratu egin bazuen ere, existentzialismoarekin eta Sartrekin haustura ez zen izan Joxe Azurmendik idatzi bezain definitiboa.<sup>26</sup> Beti eskertu zion Sartreki Gisèle Halimiren *Le procès de Burgos* mardulari egin zion hitzaurrea. Eta *Hitza hitzen, Euskal Herria helburun* zein *Horretaz* garbi aitortu zituen Sartreenganako miresmena eta zorra. Euskalduna euskaraz mintzatzeari Sartrek eman zion garrantzia nabarmentzen du 2007ko aipu honek:

«Hizkuntzan ikusten du Sartrek Euskal Herriaren ardatza (gure gazteek ez dakite; baina ezker espainolistaren lerroetan “euskara gain-egitura burgesa dela” aldarrikatzen zen ozenki eta harro-harro). Eta oso adierazgarritzat jo zuen Epaietakoan akusatuek euskaraz mintzatzean ikusitakoa: “Epaileek ez zuten zipitzik ere ulertzen, baina bazekiten ongi asko non zegoen gakoa. Ikusten zuten Baskoniako nazioa Epaietako aretoraino sartua zela. Eta honen aurrean ezjakinarena egiten zuten, entzuten ari ziren euskara hizkuntza probabletzat joaz; eta zalantzan jarriaz galdekatutakoek benetan hitz egiten ote zuten ala zentzurik gabeko hotsak egiten ote zituzten”. Horra Euskal Herriko kulturaren muina eta epaileen buruhausterik larriena; hizkuntza hori hil balezate, aldiz, euskalduna (bere hizkuntza ez den eta inoiz izango ez den) espainola desiratu eta espainolez mintzatuko litzatekeen gizon abstraktu bat litzateke... Kolonizatu bat bere hizkuntzaz mintzatzea berez da ekintza iraultzailea».<sup>27</sup>

---

<sup>26</sup> Humboldt: *hizkuntza eta pentsamendua*, UEU, Bilbo, 2007, 300. or.

<sup>27</sup> *Horretaz*, Elkar, Donostia, 2007, 37-38 orr.

## **HIZKUNTZAK IA GUZTIA MARKATZEN ETA ZEHARKATZEN DU; ALDI BEREAN, GERTATZEN ZAIGUN IA GUZTIA ESANEZINA DA**

Euskararekin obsesionaturik bizi zen Txillardegi; alta, hizkuntza da euskara. Horrenbestez, ez da harritzekoa hizkuntzatasunak berak ere obsesionatu izana; hizkuntzak, oro har. Horregatik apailatu ahal izan du Alaitz Aizpuruk, *Jakin* argitaletxeak eman dizkigun Txillardegiren testuen antologia bikainetan, “Hizkuntzaren filosofia” izeneko ale bat. Txillardegik berak, *UZEko Hizkuntzalaritza* hiztegiaren arduradun gisa, artikuluak sailkatzeko orduan, alde batetik, hizkuntzalaritza orokorra hartu zuen aintzat, eta, bestetik, euskararen problematika berezia.<sup>28</sup> Antolaera horri lotuko gatzaizkio hemen ere.

Hizkuntzak baditu berezko hainbat ezaugarri, abstrakzioz isola daitezkeenak. Goitik behera markatzen dute gizakia. Dena den, benetako bizitzan ez daude isolaturik. Gizakiak dagien edozer zeharkatzen dute. Txillardegik, *Hizkuntza eta pentsakeran*, kanpora begirako jarduerak eta barrura begirakoak bereizten ditu, eta hizkuntza da barrutik kanpora irteteko zein kanpotik barrura sartzeko atea.

Kanpora begira, hizkuntza da gizarte-identitatearen adierazpenik garrantzitsuena; gainera, hizkuntzaren antzera daude egituratuta ohiturak, erakundeak eta mitoak. Estruktura fonologikoa ahaidego-sistemara proiektatuta, askoz ere hobeki ulertu ahalko dugu ezkontzaren funtzionamendua. Bizitza sozial osoa bailitzateke, azken batean, zeinu-sistema bat. Hizkuntzaren kanporako proiektioetan, Claude Lévi-

---

<sup>28</sup> *Hizkuntzalaritza*, 17. or.

Straussen eskutik joango da Txillardegi. Esanguratsua da: Lévi-Straussek ez zuen Hizkuntzalaritza Antropologiaren atal gisa ikusten, ohi bezala, baizik eta alderantziz; eta bruselarraren ildoan idatzi zuen Txillardegik *Hizkuntza eta pentsakera*.<sup>29</sup>

Barrura begira, Jacques Lacanekin batera, Txillardegik aldarrikatuko du inkontzientea hizkuntza gisa dagoela egituraturik, eta hitzaren adierazle gisa funtzionatzen dutela ametsetako irudiek zein eritasun psikologikoen sintomak. Zer adierazten dute, ordea, zein da irudi eta sintoma horien zentzua? Bai ametsaren esanahia, bai eritasunaren beraren korapiloa. Lacanentzat, ametsak edota histeria ulertzeko, ezinbestekoa da metaforaren eta metonimiaren funtzionamenduaz jabetzea. Gure barne-muinak hizketan bizi direlako senda dezake psikoanalistak pazientea pilula barik eta elkarrizketa hutsa erabilirik. Psikoanalisiari dagokionez, Txillardegik aitortu zuen boladaka “Freuden zorabioa” sentitu zuela (baita Budarena eta Nietzscheren Zaratustrarena ere, ikusiko dugunez).<sup>30</sup>

## GENEAK MINTZO

Euskara izan zuen ardatz, noski, baina hizkuntzaren fenomeno orokorrak Txillardegiren pentsamenduan izan zuen garrantzi erabakigarria behar bezala neurtzeko, ezin aipatu gabe utzi gure azken elkarrizketa. 2008an

---

<sup>29</sup> Ikuspuntu nagusia alderantzikatzen duen itzuli honi dagokionez, ikus bereziki 99. orrialdeko azkeneko esaldiak: «Gizona, hitz batez, funtsean bertan eta arras, hizkuntza-tasuna da; «la réalité anthropologique se réduit à une réalité linguistique», dio P. Fougeyrollas-ek ideia hori ederki azalduz. (*La Revolution freudienne*, 59).»

<sup>30</sup> *Hitza hitz*, 116. eta 151. orr.

edo 2009an izango zen, ziurrenik. Hidrozefaliak eraginiko bertigoak pairatzen zituen ordurako.

Esan zidan ikaragarria zitzaiola kode genetikoaren —DNAren bidez gurasoengandik umeengana transmititzen dena—, hizkiz eta hitzez osatutako hizkuntza izatea, deszifratu eta interpretatu beharrekoa, beste edozein hizkuntza bezalaxe.<sup>31</sup>

Txillardegiren harridura hori loturik dago bere aurreneko saiakeretan jadanik nabari zen eta amaiera arte iraungo zion sentimenduarekin; alegia, natura osoarekin bat egite budistarekin, haurride sentitzearekin edozein bizidun. Ez ote da txundigarria biologiaren hizkuntzak ere haurridetasun hori barnebiltzea eta adieraztea? Zeren kode genetikoaren ez baitugu gizakiok bakarrik: hainbat elementu genetiko partekatzen dugu bizidun orok.

Txillardegik zioen, ongi oroitzen baldin banaiz, bizidunon identitate horrek ederki indartzen duela Darwinen ideia: guztiok gatoz aurrekari komun bakar batetik. Naturaren polifonia mirezgarria arbaso bakar batetik dator, eta arbaso horrek —orain dela lau mila milioi urte inguru— idatzirik zekarren geneen hizkuntza, geuk ere inskribaturik daramaguna, partekatzen duguna, transmiti dezakeguna.

Ez soilik bakarrizketa, elkarrizketa, liburua, musika, matematika, ordenagailua, zibernetika, edota gizarteko erakundeak eta inkontziente gutxi-asko indibiduala; gainera, bizia bera ere hizkuntza da funtsean! Txillardegik Joxean Agirrerri aitortu zionean barruak eskatzen zionagatik

eta bokazioagatik ez literato, edo politikari, baizik eta hizkuntzalari zatekeela, hizkuntzaren alde eta perspektiba pilo harrigarri hori ere izango zuen ziurrenik gogoan.<sup>32</sup> Inor gutxirena ez bezalako egiaz aldarrikatu ahalko zukeen Jakobsonek Terentzio parafraseatuz idatzi zuena: «*Linguista sum: linguistici nihil a me alienum puto*».<sup>33</sup>

Edonola ere, eta aldi berean, Txillardegik bere egin zuen Rainer Maria Rilkeren esana: «[...] gertatzen zaigun ia guzi-guzia azaldu eziñezkoa da».<sup>34</sup> Hizkuntzaren ezaugarri eta gaitasun ugari zehaztu ahal izan ditugun arren, Txillardegik ez zion inoiz utzi hizkuntzaren izaera harrapagaitz enigmatikoa sumatzeari: «Hizkuntza ez dagokio, hertsiki hitz egin nahi izan ezkeru, ez adimenduari eta ez sentimenduari ere. Hizkuntza bestetatik ari da».<sup>35</sup>

## **MOLEKULAK, ZENTZUMENAK, GARUNA, ADIMENA**

Giza kontuetan hizkuntzak duen omnipresentzia hori hainbat esparrutan mamitzen bada ere, biologiako agerpenak harritu zuen bereziki Txillardegi. 1972rako adierazia zuen kromosomaren hizkuntzatasunaren aurreko txundidura, eta hizkuntza estrukturalaren hedatzeari lotu zion *Anaitasuna* aldizkariko “Bi jakintsuren aitorrak” idazkian: zelulako kromosoma, programa zibernetikoa eta liburuko izkribua berdintzen ditu jakintsu horietako batek, François Jacob biologoak, Roman Jakobsonen

---

<sup>32</sup> *Hitza hitz*, 128. or.

<sup>33</sup> JAKOBSON, Roman, *Essais de linguistique générale*, Minuit, Paris, 1963, 27. or.

<sup>34</sup> *Euskararen aldeko borrokan*, 74. or.

<sup>35</sup> *Ibidem*

ideien ildotik. “Materialismo zibernetiko” deitu izan denetik hurbil dabil pasarte honetan Txillardegi:

«Zuntz genetikoaren luzeran «irakur» daitezkeen kimika–radikalak, eta Fortran–programa baten lerroetan «irakur» daitezkeen sinboloak, benetan zaizkio kide hertsia [François Jacobi]: bakarka harturik adikizunik ez badute ere, elkarturik «mezu» bat dakarte, operabide bat; eta operabide hau gero Zibernetikaren arabera obratzen da; alegia, azken funts zolan, «bai» ala «ez» arrapostu bikunaren bidez.

Kateko elemento bakar baten aldakuntza edo lardaska, bai zuntz genetikoan, bai programa elektronikoan, ondorio berbera dakar: programak ez duela, eman behar zukeena ematen; edo, huts hori egin delako, beste ondorio bat dakarrela. «Huts» hoietaz baliatuz azaltzen ditu gaur Biologiak mutazioak eta eboluzioa».<sup>36</sup>

## **ZENTZUMENEN ERAGIKETAK ETA ADIMENARENAK BAT DATOZ**

Hainbat filosofok aldarrikatu du hizkuntza eta pentsamendua ez dagozkiola gizakiari baizik. Alderantzizkoa erakutsi du kode genetikoaren aurkikuntzak: biziaren oinarrizko estruktura hainbat mailatan gauzatzen eta garatzen da. Adibidez, giza hizkuntzetan eta giza pentsamenduan. Biziaren beraren oinarrizko ezaugarriak berragertzen dira giza mintzairan eta pentsamenduan. Estruktura biologikoen

---

<sup>36</sup> “Bi jakintsuren aitorrak”, in *Anaitasuna*, 1972-05-15, 6-7. orr.



jokabideak erreplikatzeko dituzte giza mintzairak eta pentsamenduak; hots, beste maila batean bikoiztu, errepikatu eta garatu. Antzekoak dira biziaren eta zelularen estrukturak, batetik, eta, bestetik, giza hizkuntzaren eta pentsamenduaren estrukturak. Estrukturala da kode genetikoaren eta hizkuntza artikulatuaren arteko analogia. Estruktura biologikoak, elementu sinpleen konbinazioaren bitartez, izaki bizidunak eratzen ditu: molekulak eta zelulak. Gizakion gaitasun linguistikoak eta giza komunikazioak beste maila eta esparru batean erreplikatzeko dute jardura hori: berez esanahirik ez duten zeinuak konbinatuz sortzen dituzte esanahiak. Molekulen arteko komunikazioaren hastapen estrukturalen arabera daude eratuak estruktura linguistikoak.<sup>37</sup>

François Jacoben eta Txillardegiren ikuspuntuaren zehaztapen eta garapen interesgarria osatzen dute donostiarraren maisu Claude Lévi-Straussen ideia hauek ere: munduari ez diogu bere horretan antzematen. Kontzientziara heltzen zaizkigun datuak ez dira gordinak, berehalakoak; aitzitik, zentzumenek eta garunak kodeturik heltzen zaizkigu. Antzera jokatzeko dugu testuekin: beste hizkuntzetara itzuli ahal izateko edozein testu deskodetu behar den bezala, zentzumenek eta burmuinak aurretik kodeturikoa deskodetzen eta interpretatzen du ondoren adimenak.

Bestalde, ez dago funtsezko alderik bi eragiketa horien artean: berdintsu dabilta kodetze-eragiketen oinarri diren prozesu fisiko-kimikoak eta deskodetze-lanean gogamenak darabiltzan prozedura analitikoak.

---

<sup>37</sup> *Nous sommes tous des cannibales*, Seuil, Paris, 2013, 257-258 orr.

Halatan, adimenaren bideak eta bitartekoak ez dagozkio soilik gorentzat jotzen den jarduera intelektualari; aitzitik, zentzumenen organoetan jadanik abian dauden eragiketa intelektualak erreplikatu egiten ditu adimenak.<sup>38</sup> Lévi–Straussekin azpimarratzen du isomorfismo eta erreplika horiek ez direla metaforikoak, errealak baizik. Zinez datoz bat kode genetikoaren estruktura eta giza hizkuntzetako kodeen azpian datzan estruktura.

Zorionez, Lévi–Straussi, François Jacobi eta Txillardegiri esker, gero eta zehazkiago dakigu nola gauzatzen den gorputz–arimetan hizkuntzaren nonahikotasuna.

---

<sup>38</sup> LÉVI-STRAUSS, Claude, *Le regard éloigné*, Plon, Paris, 1983, 164. or.

# BENJAMIN LEE WHORF ETA ERLATIBISMO LINGUISTIKOA

## ITSUTASUN URDINA

Perspektibismo holistiko gisako bat proposatzen du hizkuntzei dagokienez Whorfek. Leibniz dakar gogora. Batetik, hizkuntza guztiek daukate unibertsoaren perspektiba propioa. Kosmosa eta giza esperientzia osoa errotik modu askotara eraturako sinbolo-sistema bereziak dira hizkuntzak. Ez dago Kultura Unibertsal Bakar eta Osorik, hizkuntzek ahal bezala itzulia, baizik hizkuntza adina kultura. Egia osoa ezagutzera hurbiltzeko, ahalik eta hizkuntza gehien aztertu beharko genituzke, eta alderatu.

Bestetik, hizkuntza bakoitzak barnebiltzen eta adierazten du unibertso osoa; alegia, hizkuntza hori darabilen herriaren unibertsoa. Whorfek kultur erlatibismoa aldeztu du, eta ustezko kultur gailentasunak oro gaitzesten. Txillardegiren ustez, kultur erlatibismoaren teorizazio sendoa da Whorfen ekarpen nagusia.<sup>39</sup>

Einsteinen erlatibitatea hartu zuen Whorfek argibidetzat. Einsteinek esan zuenez, gertaera bakar baten behatzaileek gertaerari buruzko ikuskera propioak izan arren, «[...] maila bereko kideak dira denak egari buruz»,

---

<sup>39</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 60. or.

ez dago besteen gainerik legokeen ikuspunturik.<sup>40</sup> Bide beretik Whorfek: desberdina da hizkuntza-estruktura desberdinak darabiltzaten gizakien mundu-ikuskerak, eta ez dago besteen gainerik legokeen hizkuntzarik.

Erlatibitate linguistikoko horretaz ez gara lehenago jabetu, gure artean nagusitu den zibilizazio indoeuroparra beti mamitu delako nagusiki hizkuntza-familia berean. Europarrak ez diren zientzialariek ere, hala nola txinatarrek edo turkiarrek, Mendebaldeko kulturaren arrazoibideari men egin diote. Sistema bereko hiztun eta ikusle garelako ez dugu gure artean etendurarik nabaritu.

Ederrak dira Whorfen konparazioak: gure munduan dena urdina balitz, nekez ulertuko genuke kolore bat zer ote den. Era berean, normala da gure hizkuntzen estruktura indoeuroparrak baldintzaturik —“urdinak” baitira Mendebaldeko hizkuntza nagusi guztiak—, hizkuntzen dibertsitate txundigarriaz gu ez ohartzea. Bestela pentsatzen duten hizkuntzen bidez, hain zuzen, frogatu genezake gure ikusmenaren itsutasun “urdina”.<sup>41</sup> Lévi-Straussek inspirazio horixe sumatuko dio etnologoari. Antipodetara doan arren, bere kultura ulertzea du benetako xede. Haatik, zure kultura ezin dezakezu benetan ulertu soilik barrutik: zinez bestelakoa den kultura bat aztertzea eta zurearekin kontrastatzea da lehenbiziko urratsa.

---

<sup>40</sup> *Ibidem*, 59. or.

<sup>41</sup> *Ibidem*, 60. or.

## BILARREKO BOLEN LEGE MEKANIKOAK

Whorfen ustez, hizkuntzalariaren helburua hizkuntzaren itzalguneak argitzea da. Bereizi egin behar da, batetik, hizkuntza erabiltzen irakastea —hizketan aritzeko, adibidez—, eta, bestetik, «[...] hizkera horren gako gordea eta xoko bitxiak argitzen dituena. Gauza bat da —dio— bilarreko bolak egokiro jokatzen jakitea, eta beste gauza bat bola horien mogimenduei dagozkien mekanika-legeak bilatzea».<sup>42</sup>

Sinbolismo eta estruktura inkontzientea da ezkutuan dagoen hizkuntzaren giltzarri hori. Hizkuntza ez da hitz-zaku hutsa, ez da pentsamenduaren lanabes garden eta koloregabea; aitzitik, sakonki markatzen ditu gogoeta eta burubidea. Estruktura gramatikalak —ideiak azaltzeko tresna hutsa izatetik urruti—, ideiak moldatzen dizkigu. Hizkuntzak baldintzatzen, mugatzen eta antolatzen digu mundu-ikuskerara. Aristotelesek eta Kantek unibertsaltzat zituzten giza adimenaren kategoriak ez dira grekoaren eta alemanaren kategoriak baizik. Hizkuntzaren mikrokosmosa da adimenean txertaturik daramagun kosmosa. «Honetxan bidez hain zuzen 'neurtzen' eta ulertzen saiatzen gara makrokosmosa».<sup>43</sup> Unibertsoan ez dugu ikusten geure hizkuntzak erakusten diguna baizik.<sup>44</sup>

Hiztunak ez ditu hizkuntzaren estrukturak ezagutzen, gramatikariak agertu arte. Baina gramatika ondo ezagututa ere, hiztunaren oharmenetik

---

<sup>42</sup> *Ibidem*, 51-52. orr.

<sup>43</sup> *Ibidem*, 57. or.

<sup>44</sup> *Ibidem*, 58. or.

at moldatzen du hizkuntzak hiztunaren pentsamenduaren isuria, kategoria objektibotzat hartzen dituen ideia-moldeak erabilarazirik.<sup>45</sup>

## HOPI

Whorfek sakonki aztertu zituen Mendebaldeak atzeratutzat jotzen dituen Amerikako indiarren zenbait mintzaira —Hopi etniaren Hopi hizkuntza, oroz gain—. Horietako batzuk milaka urtez egon dira bakarturik, harremanik gabe auzokoekin, are gutxiago Mendebaldeko jendearekin. Eta garbi ikusi zuen «[...] haien hizkuntza-estruktura izkutueta jakinduria zorrotza zetzala beti, logika hertsiki baten ondorio den Inkontzienteak sortuko balitu bezala».<sup>46</sup> Ez dago hizkuntza arrote edo arkaikorik. Hizkuntza guztiak dira, zein bere erara, giza esperientziaren taxuketa oharkabe edo inkontzienteak; baina denak sakonak bezain funtsezkoak. Herriaren filosofia esplizitatu gabearen oinarria da hizkuntza, herriaren pentsaeraren errainua, pentsaera hori hizkuntzaren errainua den bezalaxe.

Ez dagoenez gure zientziak adieraziko lukeen Logika unibertsalik, hizkuntza bakoitza dabilenez dantzan bere logikaren arabera, ez du zentzurik hizkuntza aurreratuagoak eta atzeratuagoak bereizten tematzeak. Txillardegik: «Hizkuntzek ez dute elkar garaitzen, ez dira

---

<sup>45</sup> *Ibidem*, 59. or.

<sup>46</sup> *Ibidem*, 52. or.

logika–lerro bakar batean segida bereko kate–begi, gero eta hobeak eta osoagoak». <sup>47</sup>

Hopien logika gurea ez bezalakoa da, ordea. Eta beste edozein baino gehiago gurela sentitzeko joera dugu Mendebaldekoak. Gainerako kulturek eta zibilizazioek ere bai, egia da, unibertsal antropologikoa da hori. Tamalez, baina, geurea izan da eta da txapelduna bestelako herriak suntsitzeko iskilu ideologiko zein fisiko eraginkorrenak asmatzeko eta erabiltzeko orduan. Edozelan ere, herriek beren hizkuntzaren sintaxiak inspiratzen dizkien arrazoibideak izaten dituzte logikotzat. Horiek iruditzen zaizkie zentzuzko bakarrak. Bestelakoak ez dituzte ulertzen, edo susmagarriak zaizkie.

Ohartzeke, Newtonen ingelesaren estrukturak eraman zituen fisikara: denborak eta espazioak ez dute loturarik; materiak ere ez du harremanik ez denborarekin ez espazioarekin, etab. Buru argitasun ikaragarriaz, Einsteinek bere hausnarra estruktura–lotura gorde horietatik askatu eta denboraren, espazioaren eta materiaren arteko funtsezko lotura erakutsi zuen: denbora polikiago isurtzen da grabitazio bizi edo larriko eskualdeetan, denbora eta espazioa loturik daude, espazioaren kurbatura materia–trinkotasunari datzekio, Kosmosa itxia da, etab. “Intuizioz” zentzuzkotzat jotzen genuena, oker agertu zitzaigun. Eta Whorfen uste du “intuizio” horiek ez direla «[...] gure hizkuntzen estrukturen errainua baizik». <sup>48</sup>

---

<sup>47</sup> *Ibidem*, 53-54. orr.

<sup>48</sup> *Ibidem*, 61. or.

Bestalde, ukaezina bada ere hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremana —batez ere aztergai den etnia luzaz bizi izan baldin bada bereizirik eta bakarturik—, Whorfek ez du onartzen hizkuntzaren eta kulturaren arteko korrelazio hertsirik eta elkarrekikotasun sinplerik. Determinismotik libre bizi dira hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremanak. Bere gisa sortzen du herri bakoitzak hizkuntzaren eta kulturaren arteko uztarketa.<sup>49</sup>

Whorfen ustez, gizaki guztiok hizkuntza bakar bat erabiltzea kaltegarria litzaiguke, atzerapena, eta galera handia giza kultura osorako. Izan ere, hizkuntzak oro, errealitatearen antolaera diren heinean kide direnez gero —eta hortaz elkarren osatzaile—, hizkuntza bat itzaltzeari kultura unibertsalaren adar bat ihartzea deritza Whorfek:

«Honengatixek uste dut geroko munduarentzat hizkuntza bakar bat proposatzen dutenak —berdin izaki ingelesa, alemanera, errusiera edo beste edozein proposatzea— oker daudela. Giza izpirituaren eboluzioari buruz, traba larria izango litzake hori».<sup>50</sup>

Eta alderantziz: hizkuntza arrotz eta urrunei dagozkien estrukturen desberdintasuna babestea edozein gizakiri izan dakioke mesedegarri.<sup>51</sup> Adibidez, bistan da hizkuntza indoeuroparrek hainbat fenomeno fisikoren ulertze zuzena eragozten dutela. Aldiz, Hopiena eta bestelako logika molde batzuek argigarri gerta lekizkiguke unibertsoaren zenbait alde eta ezaugarri ulertzeko orduan. Gero ikusiko dugunez,

---

<sup>49</sup> *Ibidem*, 62. or.

<sup>50</sup> *Ibidem*, 63. or.

<sup>51</sup> *Ibidem*, 63-64. orr.



Mendebaldean joera dugu edozein gertaerari subjektu ekintzailea atxikitzeko. “Oinaztuak argia egin zuen”, diogu. Haatik, indoeuroparren gramatiketan ez bezala, errealitate fisikoan ez dago halako bitasunik: oinaztua bera da argia. Beti jakin izan dute hori primeran Hopiek.

Berez doa Hizkuntzalaritza serioa arrazakeriaren aurka. Txillardegik itzuliriko Whorfen testua:

«Hizkuntza-zientziaren ulertzeak tokian tokiko kulturaren mugetatik at eramaten gaitu, nazioetatik at, «arraza» bataiatutako berezgarri fisikoetatik at; eta hizkuntza-sistema horien taxuan eta elkarketan (beti ere desberdina), denon zorrotasun jatorrean, errealitatearen azterketaren sakonean, gizon guztiok *berdinak* garela erakusten zaigu».<sup>52</sup>

Ez dago kultura eboluzionaturik ez atzeraturik, ez goi-mailakorik ez behe-mailakorik. Herri kanibalen edo agrafoen etikak ez dira gureak baino sendoagoak edo ahulagoak. Kultura bakoitzak bere moduan taxutzen du mundua, eta funtsean guztiak dira kide eta haurride errespetagarri, desberdintasunak gorabehera.

Politikoki politaren altzoan dauzkagu egun halako ideiak Whorfen, Lévi-Straussen, Txillardegiren eta beste askoren liburuei esker. Nekezagoa da ideia horiek legedian modu eraginkorrean ezartzea eta errealitate historikoan mamitzea. 2022an *yagan* eta *apiaka* hizkuntza amerindiarrak itzali ziren. 2023 urtean, berriz, *ainu* japoniarra eta *tsimishian* eta *shuar* amerindiarrak desagertu dira. *Shuar* hizkuntza Amazoniako Ekuadorren

---

<sup>52</sup> *Ibidem*, 54. or.

mintzatu izan da. Azken hiztuna, Maria Aginagalde, 2023ko irailaren 30ean hil da, 95 urte zeuzkala.

Zazpi bat mila hizkuntza dauzkagu orain bizirik munduan. *Unescok* jakinarazi du 3000 inguru galduko ditugula XXI. mendea amaitu baino lehen.

## HOPITARREI BISITA

Inoiz ez zen itzali Hopienganako Txillardegiren atxikimendua, eta 1982an bisita egin zien, «[...] indiook elkar konprenituko dugun esperantzan». Eta Hopien etorkizun ilunaren lekuko zuzen izateak —gainbehera demografikoa, hizkuntza hilzorian eta bizimodu latza erreserban bertan nabaritzeak eta neurketa soziologikoetan egiaztatzeak—, gogoeta eta konparazio kezkarriak eragin zizkion:

«Hizkuntza traba eta baradera izango bazaie, zeren eta noren izenean eska dakieke **guretzako zoo gisa** irautea? Galdera latza, jakina. Baina gizonak ditu eskubideak azken funtsean, eta ez hizkuntzek. Hizkuntza gizonaren zerbitzuko eta tresna balios bihurtu, ala hizkuntza hil. Lehenago ere idatzia dut hau. Hizkuntza gizonaren zerbitzari egin, eta kultur-tresna minimo; ala hizkuntza hiltzea onena.

Eskuindarrek eta folkloristek soinekoak urratu ohi dituzte hau entzutean. Baina, euskarari gagozkio larrik ere, gauza bera esan behar da: **euskara jaso eta mintzabide balios bihurtu, ala euskara kanpora.**

Ez baitago eskubiderik (eta barka bezate eskuindar hizkuntzalariek) herri oso bat zoritxarreko eta itsu atxikitzea, hizkera «bitxi» bat gordetzeko.

Hizkuntzari bai, kulturarekiko eta egiatzko biziarekiko **baradera eta traba ez den heinean.**

**Gizateria ez da zoo bat.**

Eta indioak ez dira kiwi harrigarriak. Ez.

Hizkuntza, gizonaren zerbitzuko. Ala kanpora».<sup>53</sup>

## **MATEMATIKAREN UNIBERTSALTASUNA, AUZITAN**

Pena eta amorrua eragiten diote Txillardegiri gizakiaren animaltasuna ukatzen dutenek; orobat, Mendebaldeko zibilizazioa harro goraipatu eta kultura agrafok gutxiesten dituztenek, kolonialismorik basatiena zuritzera iritsirik. Txillardegi gusturago dabil Edward Sapir, Benjamin Lee Whorf edo Claude Lévi-Strauss bezalako konpainia noblean, europar gizon zuriaren nagusitasuna zalantzan jarri, eta kultur desberdintasunak aberastasuntzat dituztenak.

Noski, unibertsalistek diote zientzia, logika eta matematika edozein gizakik onartzeko modukoak direla, egia objektiboak baitira —hizkuntza eta kultura gorabehera—. Bada, Benjamin Lee Whorf ez da inondik inora zientziaren, logikaren eta matematikaren unibertsaltasuna ukatzen edo zalantzan jartzen duen bakarra. Txillardegik puntako maisutzat zuen Bertrand Russellek, Alfred Whiteheadekin batera, *Principia Mathematica* argitaratu zuen 1910 eta 1913 bitartean, hiru liburuki trinko. Helburua: egia matematiko guztiak printzipio logikoetatik eratortzea. Ezin

---

<sup>53</sup> "Hopitarrei bisita", in *Argia*, Lasarte-Oria, 1982-04-25, 27-28. orr.

unibertsalagoa zirudien guztiak. Urte haietan ziurtzat jo zuen Russellek, bederen, matematikaren eta logikaren unibertsaltasuna.

Ordea, 1920–1921 urteak Txinan pasa zituen ingeles filosofoak. Eta Txinako hizkuntzak ezagutzen hasi bezain laster, aitortu zuen ikaratuta zegoela, ohartu baitzen indoeuroparra zela *Principia Mathematica*ko logika.<sup>54</sup>

Ezinbestez ote dago indoeuroparrari lotua logika matematiko ustez unibertsala? Halaxe uste dute hainbat filosofok, hala nola Nietzschek, Wittgensteinek, Heideggerek edo Gianni Vattimok. Benjamin Lee Whorfek ere bai. Eragin handia izan zuen Nietzschek Txillardegiren pentsamenduan eta literatur sorkuntzan. *Haizeaz bestaldetik* eleberria Zaratustraren itzalpean idatzi zuen.<sup>55</sup>

Txillardegik idatzi du «Filosofia askotan izaten dela hizkuntzaren sinbolismo izkutuaren azalpen soila».<sup>56</sup> Nietzscheren esanetan, hizkuntzaren bidez azaldu daiteke Indiako, Greziako eta Alemaniako filosofia guztien antzekotasun harrigarria, hizkuntza indoeuroparren gramatikek antzeko pentsaerak bideratzen baitituzte. Inkontzientean markatzen dituzte funtzio gramatikalek gogoeta-bideak. Gramatiken arteko ahaidetasunak modu homogeen egituratzen ditu sistema filosofikoak, eta, aldi berean, bidea ixten die mundua interpretatzeko bestelako aukerei. Bat datoz Nietzsche, Whorf eta Txillardegi:

---

<sup>54</sup> LITTLEWOOD, J. E., *Littlewood's Miscellany*, Bela Bellobas, Cambridge, 1986, 130. or.

<sup>55</sup> *Hitza hitz*, 151. or.

<sup>56</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 41. or.

«[...] Whorf-en ustez, baita Mendebaldeko teoriarik sakonenak eta filosofiaren parte handia, ez dira indo-europatar hizkuntzen eura-  
metafisika baizik: “Zientzia modernoaren mundua ez da Mendebaldeko  
indo-europatar hizkuntzen hazkunde edo azalpena baizik”». <sup>57</sup>

Indoeuroparren artean ez bezala, eremu uralo-altaikoko hizkuntzetan subjektuaren kontzeptua ez dago batere garatua. Halatan, hango filosofoek, Nietzschek dioenez, indogermaniarrek edo musulmanek ez bezala begiratuko diote munduari, bestelako bideetatik pentsatuko dute; izan ere, funtzio gramatikalek adimena sorgintzen dute. Horregatik, behar bezala pentsatzeko, ezinbesteko baldintza da gramatikaz ohartzea eta gramatikaz mesfidatzea. Bestela, zuk zeuk pentsatzen diharduzula uste duzunean ere, zeure hizkuntzaren gramatika garatzen ari baitzaitezke oharkabea. Hizkuntza bera ariko litzateke, nolabait esateko, zeure bitartez pentsatzen. <sup>58</sup>

Indoeuroparrak, adibidez, etengabe daude behartuak naturan fikziozko izakiak ikustera, aditzak subjektua eskatzen duelako. Ezin dute irudikatu argia piztea edota argitzea egileren bat asmatu gabe, subjektuaren bat. Zerbait gertatuz gero, baten batek egin behar izan duela suposatzen du hizkuntzak.

Ordea, Whorfekek azpimarratzen duenez, argitzea eta argia bat eta bera dira. Hopi hizkuntzak aditz soil batez ematen du argitzearen eta argiaren

---

<sup>57</sup> *Ibidem*, 61. or.

<sup>58</sup> NIETZSCHE, Friedrich, *Jenseits von Gut und Böse*, Kröner Verlag, Stuttgart, 1991, 27-28. orr. 20. paragrafo ospetsuaren amaiera da.

berri: “rehpi”, argitu du, argitzea gertatu da. Ez dago subjektuaren eta predikatuaren arteko banaketarik. Inpertsionala da.

Hopi hizkuntzak subjekturik gabeko aditzak dauzka, eta ezaugarri horrek, Whorfen ustez, ahalmena ematen dio unibertsoaren alderdi batzuk indoeuroparren zientziak baino logika sakonagoz ulertzeko. Zientzia modernoak, Mendebaldeko hizkuntza indoeuroparrek bideraturik, ekintzak eta indarrak ikusten ditu edonon; hala ere, askotan errealitatetik hurbilago legoke ez ekintzak eta indarrak ikustea, baizik eta egoerak.<sup>59</sup>

Zentzu horretan, baten batek txillardegitar esperientzia erlatibista bat bizi nahi baldin badu, hona hemen eman beharreko urratsak: jarri harremanetan hamabost urte bete arte japonieraz bakarrik mintzatu, eta hamasei urterekin ingelesa ikasten hasi den pertsona batekin. Mintzatu ordubetez Akirarekin. Ondorio nabarmena: mundua guk ez bezala ikusarazten die japonierazko azpiegitura linguistikoak, bestelako burubideak ibilarazten, benetan desberdinak diren hizkuntzek burmuineko eremu diferenteak piztuko balizkigute bezala.<sup>60</sup>

---

<sup>59</sup> WHORF, Benjamin Lee, *Language, Thought and Reality*, Dead Authors Society, Cambridge, 2023, 243-244 orr.

<sup>60</sup> Japonieratik alemanera itzultzeko zailtasun tragikomikoen inguruko adibide zehatzak, Joxe Azurmendiren *Humboldt: hizkuntza eta pentsamenduan*, 307-312. orr.; eta nola ematen duen indoeuropararen gramatikak Mendebaldeko logika, eta txinerarenak bestelako logika bat, *Ibidem*, 312-318. orr.

## OLERKI FOSILA

Herriak harremanetan dira munduarekin. Munduari buruzko esperientzia horiek, ikusien, ikasien eta ezagueren bilduma, zeinek bere modura taxutzen du herri bakoitzak, eta hizkuntza batean mamitzen. Eta, Txillardegiren esanetan, ez zientzialarien moduan, adimen hotza erabiliz, baizik eta olerkariak bezala eratzen du herriak hizkuntza: bihotzaren arabera, oroitzapenak elkartuz, antzekotasun eta desberdintasunak bilatuz eta nabarmenduz, hizkuntza olerkia baita Txillardegirentzat, edota, zehazkiago, olerki dela ahaztu duen mintzoa, olerki izana, olerki fosila.<sup>61</sup>

Txillardegik dio olerkigintza horretan herri osoak hartzen duela parte, mendez mende, klasez klase, mundua pixkanaka hizkuntza bihurtuz, herriaren irudimenaren arabera.

Gauzei izen bat eman baino lehen, jendeak munduko pertzepzioak eta esperientziak ebaki eta bereizi egiten ditu, oharkabean. Horiexek dira ideiak. Eta hizkuntzak antolatu egiten ditu herriak inkontzienteki sortu dituen ideia horiek, hizkuntza eta herri bakoitzak bere era berezian. Hizkuntzak ez ditu Logika bakar batek mugiarazten. Hizkuntza guztiak funtsez dira desberdinak.

Horregatik izaten dira zailak itzulpenak, baita indoeuroparren hizkuntza inperialen artekoak ere: Lévi–Straussen *La pensée sauvage* ingelesera itzultzeko drama itzelak izan zituzten. Etsirik abandonatu zuen zeregina lehenbiziko itzultzaileak. Ezin adostasunik erdietsi, hasteko, ezta

---

<sup>61</sup> Euskararen aldeko borrokan, 71. or.

izenburuaren gainean ere: *The Wild Pansy, Untamed Thinking...* Lévi-Straussesek berak *Mind in the Wild* proposatu zuen. Azkenik, lau urtez luzatu ziren eztabaiden ostean, *The Savage Mind* hobetsi zuten.<sup>62</sup>

Geurera etorrita, gorriaren kasua nabarmentzen du Txillardegik. Auskalo “rojo” “rouge” ote den, baina “gorri” bederen ez da, zehazki hitz egitera: larrugorrian, negu gorria, arrautzaren goringoa, kale gorrian, tabako gorria, urregorria, abelgorri, gorriak errezatu... “La roja calle”? Euskal Herriak, Espainiak eta Frantziak historia desberdinak izan dituzte, eta desberdin mamitu dituzte beren esperientziak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. “Gorri” hitzean kristalizatu den iragana ez dator bat “rojo” hitzean kristalizatu denarekin. Gainera, euskaldunek eta espainolek koloreak berdin hautematen ditugun arren<sup>63</sup>, frekuentzia fisikoen eta uhin bisualen kontinua gune desberdinetan ebakitzen dugu: “gorri” izan liteke “rojo”, “dorado”, “rubio”, “purpúreo”, “bermejo”...<sup>64</sup>

Zuzen erdaratu ditzakezu Xabier Mendigurenen *Oso latza izan da* liburuaren izenburua, zein liburu barruko esaldi pare hau: «Gaur igandea da. Baina ez larre berde, etxe txuri, teila gorri egun bat»; ordea, irakurle erdaldunak ezingo ditu jaso euskal irakurle-entzuleari eragiten dizkioten oihartzun eta izuak, oin-ohar argitzailerik ezean.<sup>65</sup>

---

<sup>62</sup> LOYER, Emmanuelle, *Lévi-Strauss*, 479. or.

<sup>63</sup> Errusiarrek hitz bat dute urdin iluna adierazteko eta beste bat urdin argia adierazteko, baina ikusi, geuk bezala ikusten dituzte urdin argia eta urdin iluna.

<sup>64</sup> Koldo Mitxelenak dioenez, koloreen pertzepzioa beharbada ez, baina soinuena bai, hizkuntzak mugatzen du. Ez edozein soinurena —musikarena ez—, baina bai hizkuntzaren beraren hotsak: «Mintzatzeko erabiltzen ditugun hotsak soil-soilik mugatzen ditu hizkuntzak. Bestela esan, hizkuntzarekiko gertakariak dira hizkuntzak mendea dituenak. Adieraziak bereizten dituzten hotsen artean hizkuntza bakoitzak bere erara tajutzen ditu, eta hots hauek berezteko gaitasuna gizarteko hezieraz bereganatzen du jendeak». *Zenbait hitzaldi*, 125. or.

<sup>65</sup> MENDIGUREN, Xabier, *Oso latza izan da*, Elkar, Donostia, 2023



Beste adibide bat: euskaraz dauzkagu “etxe–TIK etorri naiz”, “etxe–KO andrea”, “etxe–Z beterik dago”.

Horrela esaten dira ondoko bi erdaretan: “he venido DE casa / je suis venu DE chez moi”, “la señora DE la casa / la maîtresse DE la maison”, “esta lleno DE casas / il est rempli DE maisons”.

Euskararen bereizketa semantiko hori auzoko erdarek ez dute egiten. Berrero ere: ez dago taxuketa logiko unibertsalik.<sup>66</sup>

Guk toka, noka, zuka eta berorika dauzkagun tokian, thailandierak 7 trataera bereizten ditu, eta ingelesak “you” baino ez.<sup>67</sup>

Era berean, frantsesak “frère” eta “soeur” eta gaztelaniak “hermano” eta “hermana” baino bereizten ez dituen harremanetan, euskarak “ahizpa”, “arriba”, “neba” eta “anaia” bereizten ditu; herri eta hizkuntza desberdinak baitira. Bigarren atalean kili–kolo ikusiko ditugu euskararen bereizgarriak, auzoko hizkuntzen presiopean atzez.

## **BALDINTZATZEN OTE DU HIZKUNTZAK PENTSAMENDUA?**

Beti esaten da Filosofian galdera garrantzitsuagoa dela erantzuna baino, ez dagoela behin betiko erantzunik, erantzunak galdera berriei bide emateko balio duela funtsean. Txillardegik etengabe zerabiltzan gogoan halako galderak: aurkitu egiten dugu gizakiok matematika —Pitagorasek,

---

<sup>66</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 19. or.

<sup>67</sup> McWHORTER, John, *The Language Hoax*, Oxford University Press, Oxford, 2006, Sarrerako IX. or.

Platonek eta Alain Connesek uste bezala—, ala asmatu —Aristotelesen, Koldo Mitxelenaren<sup>68</sup> eta Jean-Pierre Changeuxen bidetik—?<sup>69</sup> Txillardegik bigarren talde honetan kokatuko luke bere burua. Nolanahi ere, bi mila eta bostehun urte igarota, eztabaidak ez du modu erabakigarrian aurrera egin.

Beste galdera horietako bat, estetikari lotua: zein da indartsuagoa, zerk hunkitzen gaitu sakonkiago, edertasun naturalak ala gizakiak sortutako arteak, ilunabar txundigarri horietako batek ala Txillardegik hain gartsuki interpretatzen zuen Chopinen polonesa heroikoak?

Badago ala ez dago gerra bidezko eta zuzenik? Zer da erabakigarriagoa, gizakiok berdintzen gaituena, ala desberdintzen gaituena? Hizkuntzen arteko antza, hizkuntzek amankomunean dutena, ala hizkuntzak bereizten dituen?

Ez da soilik tipo psikologikoen kontua; alegia, badela, sorkuraz—edo, ikuspuntu platonikoa duen jendea, eta badela, aldi berean, jende aristotelikoa. Gainera, pertsona beraren baitan ere oszilazioak izaten dira, dudak eta joan-etorriak: orain dela hiru urte platonikoa zinen; gaur egun, berriz, aristotelikoagoa. Bart arratsean argi zenekusan matematika giza garunak sortua dela, eta esnatu orduko, argitasun berdintsuarekin dakusazu, alderantziz, gizakia desagertu ondoren ere matematikak

---

<sup>68</sup> *Zenbait hitzaldi*, 98. or.

<sup>69</sup> CONNES, Alain eta CHANGEUX, Jean-Pierre, *Matière à pensée*, Odile Jacob, Paris, 1989

governatuko duela unibertsoa, estralurtarren adimena barne. Urrezko zenbakia gizakiongandik aparte ere badabil.

Parmenides eta Heraklito, Platon eta Aristoteles, Descartes eta Locke, Hegel eta Nietzsche... Hizkuntzaren filosofian ere baditugu antzeko eztabaida eternoak —filosofia klasikokoei lotuak—, hala nola erlatibisten eta unibertsalisten artekoa: hizkuntzak pentsamendua determinatzen edo baldintzatzen duen, edota alderantziz, edota ez ote duten inongo zerikusirik. Gaur egun, Benjamin Lee Whorfen eta Noam Chomskyren jarraitzaileek zaharberitu dute ika–mika hori. Lera Boroditsky, Daniel Everett eta Guy Deutscher dira Whorfen aldeko hiru aditu entzutetsu, eta Chomskyzaleen artean Steven Pinker, Beatriz Fernandez eta John McWhorter dauzkagu.

Erlatibisten eta unibertsalisten arteko eztabaida hori, berdintasunaren eta desberdintasunaren auzi antropologikoari lotua dago. Dena den, kontua da zer azpimarratu: ez dago gizaki guztiok mintzamina dugula ukatzen duen erlatibistarik; era berean, ez dago mintzamen hori hizkuntza guztiek mamitzen dutela ukatzen duen unibertsalistarik.

Unibertsalistek gizaki guztiok partekatzen dugun mintzamina nabarmentzen dute. Chomsky hizkuntza zehatz guztien azpian legokeen gramatika unibertsalaren bila dabil. Gramatika unibertsal hori giza biologiari ei datxekio, jaiotzekoa da, eta gizakiok edozein hizkuntza natural eskuratzeko dugun gaitasunaren erantzule litzateke. Horrela, Chomskyk dio hizkuntzen arteko desberdintasunak itxurazkoak direla,

hizkuntza guztiek dutela amankomunean oinarrizko egitura linguistiko bera.

Aldiz, Whorfen dizipulu erlatibistek diote ezen, historiak hizkuntzei ekarri dizkien aldaketak kontuan hartuta, dagoeneko ez duela zentzurik hizkuntzen ezaugarri unibertsalak bilatzeak, ez baitago halakorik. Diferentziak irabazi du. Daniel Everettek Chomsky jopuntuan duen testu batean dioenez —horregatik da bereziki argigarria unibertsalisten eta erlatibisten arteko polemika ulertzeko—, hizkuntzak elkarren artean berdinak baino desberdinagoak dira. Desberdintasun horiek aurkitu zein ez, beti daude hor. Gaur egun, ez dago unibertsal linguistikorik. Iragan urrutian beharbada bai, beharbada ez, baina gaur egun ez. Amazoniako Piraha herriko kideen hizkuntzak ez du ez mendekotasunik ez errekurtsibitaterik, ez ditu singularra eta plurala bereizten eta ez du “zenbatu” kontzeptuaren berri, ez du koloreak adierazteko hitzik, ezta iragana adierazteko aditz-formarik ere. Piraha hizkuntza aztertuta, Everettek uste du ezin daitekeela baieztatu gizaki guztiok jaiotzez gramatikarako inongo txantilo mentalik dakargunik. Hizkuntzen arteko antzekotasunak ez daude balizko hizkuntzaren gene batean sustraiturik. Kulturaren eta informazioa prozesatzeko soluzio amankomunen ondorio dira, eta hizkuntza bakoitzak bere historia ebolutibo indibiduala dauka.<sup>70</sup>

Txillardegiren liburuak irakurrita, garbi dago erlatibisten tesiak aldezen dituela, hizkuntzalaritzan zein antropologian: Sapir eta Whorf, Boas eta

---

<sup>70</sup> EVERETT, Daniel. *How Language Began: The Story of Humanity's Greatest Invention*, Profile books, 2018, Hitzazurea, XVI or.

Lévi–Strauss, joera horretan ikusten bide du eroso bere pentsamendua. *Hizkuntza eta pentsakeran* atal bana eskaini die Benjamin Lee Whorfi eta Lévi–Straussi, eta gogo biziz goraiatu ditu.

Txillardegirentzat ere, hizkuntzak mundu–ikuskerara baldintzatzen du, ez dago logika, pentsaera edo inbariante unibertsalik, eta hizkuntza propioa darabilen herriak desberdin pentsatzen du. Hizkuntzak herriaren izaera erabakitzen du, mundua bestela ikustera baitarama. Ematen du Txillardegik, oro har, hizkuntzaren lehentasuna azpimarratzen duela, estrukturalista erlatibisten ildoan.

Horregatik eragin dizkit hainbeste buruhauste *Hitza hitzeko* esaldi honek:

«Egia da baita ere nire liburu horretatik askok ondorio gehiegizkoak atera zituztela eta exajeratu ere egin zutela, esanez hizkuntzak pentsamendua bera ere baldintzatzen duela. Hizkuntzak esperientziak antolatzeke modu bat ematen du eta sentsibilitatea baldintzatzen. Hau adierazi nahi nuen».<sup>71</sup>

Alabaina, hainbat bider idatzi du Txillardegik, *Branka* aldizkarian zein *Hizkuntza eta pentsakeran*, hizkuntzak pentsamendua baldintzatzen duela. “Hizkuntza pentsamenduaren arau” du izena *Hizkuntza eta pentsakerako* atal batek. «Hizkuntza pentsamenduaren arau eta funts–emaile da»<sup>72</sup>, idatzi du bertan. Eta aurreraxeago:

«Era berean gure pentsamentua eta kultura bera: aldeztatik hizkuntza den sinbolismoa gabe, ez bata eta ez bestea zirakeen jaioko. Hizkuntza

---

<sup>71</sup> *Hitza hitz*, 154. or. 2004. urtean ere, “zaharkituztat” jotzen du *Hizkuntza eta pentsakera*. Baina hauxe da zehazki aipatzen duen zaharkitzearen arrazoi bakarra: «Nik orduan euskal bokalismoaren diakroniaz idatzitakoa, jator aitor dezadan, faltsua da». Beste testu eta adierazpen batzuetan, hala ere, liburua zaharkituztat jotzeko arrazoi gehiago emango ditu.

<sup>72</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 42. or.

pentsamentuaren araua eta moldea da egiazki. Analfabetismotik irten nahi dutenek ez dute amor eman nahi, eta hizkuntza pentsamentuaren «jazkera» edo «arropa» hutsa dela diote; alegia, giza-soinari jantzia dagokiona. Hizkuntzaren arropa axaleko horien atzetik Adimena, Logika, eta Pentsamendua sendo eta libro baleude bezala. Eta, jakina, pentsakera eta azterkera batek ere, hizkuntzaren «axal» horietatik at balego bezala. Sasi-razionalismo hauek erauzi egin behar dira: hizkuntzari esker pentsa dezake gizonak; eta gizonaren pentsabidea hizkuntzak baldintzen dio hein batez: “[...] hizkuntza, estruktura den aldetik, barnealdetik pentsamentuaren moldea da” (Sapir, *Le Langage*, 25) ».<sup>73</sup>

Eta hauxe erantsiko du berehala:

«Eta Sapir-ek bezala esango dut nik ere: “[...] pentsaeraren barrutira iristeko ez dugu bide bat baizik ezagutzen: hizkuntzarena”. Bide hau, ordea, ez da gardena: bere kutsua uzten du. Eta Sapir eta Whorf hizkuntzalariek agerrerazi dute hori garbikienik».<sup>74</sup>

Zer gertatu da hemen?

## IRMOTASUNETIK ZALANTZARA

Pentsa liteke *Hitza hitz* liburuak jasotzen duena bezalako solasaldi batean, halako batean nekaldia etor dakizukeela, hasperena, adimeneko argien itzaltzea, eta uste ez duzuna esatera okertu zaitezke. Dena den, ematen du Txillardegik solasaldi transkribatua eta zuzendua berrikusi eta

---

<sup>73</sup> *Ibidem*, 42-43. orr.

<sup>74</sup> *Ibidem*, 43. or.

onartu zuela. Bertan behera utziko dugu, hortaz, ustekabeko paragrafoa azaltzeko hipotesi hori.

Emankorragoa da Txillardegiren bilakaeraren hipotesia. *Argia* aldizkariko 1987ko Euskal Kulturaren Urtekarian agertu zen Txillardegiren elkarrizketa batek jarri ninduen arrastoan. Hizkuntzaren filosofian, Txillardegiren ikuspuntua ez zen beti bera izan; jendaurrean adierazi zuen ikuspuntua ez, behintzat. Antiguarraren adimena eta nortasuna ez ziren bertan goxo egotekoak. Munduaren eta jakitateen bilakaerari adi egoten zitzaien, eta araberan erabakitzen zituen hartu beharreko jarrerak. *Hizkuntza eta pentsakeran* jatorrizko euskal bokalismoari buruz esandakoetan atzera egin zuen. Orobat, euskararen ezagutzaren eta erabileraren kopuruen aldea azaltzeko arrazoietan. ETA sortu eta handik urte batzuetara dimititu zuen, Aralarren sartu eta atera...

Gehiegizkoa da ziur aski hizkuntzaren filosofian Txillardegi bi izan genituela aldarrikatzea, baina atal garrantzitsu baten inguruan —erlatibismoaz eta unibertsalismoaz— Txillardegik ez zuen berdin pentsatzen 1970ean eta, gutxienez, 1987tik aurrera.

Bilakaera hori ez zen Wittgenstein bien arteko haustura bezain nabarmena izan. Badira, hala ere, zenbait testu, ikuspuntu-aldaketa horren lekuko.<sup>75</sup>

Polemikan erakutsi beharreko irmotasunetik zalantzara doa Txillardegiren bilakaera. 80ko hamarkadatik aurrera biribil eta *kontundente*egitza jo zituen Txillardegik 25 urte lehenagoko zenbait

---

<sup>75</sup> *Hitza hitz*, 154. or.; *Euskararen aldeko borroka*, 9. or.

formulazio eta errepikapen. Polemikaren beroan ez zaude, Azurmendiren hitzak erabiltzearren, protokolo ñabartietarako.<sup>76</sup> Muturretik ihes egiteko nahia sumatzen zaio Txillardegi helduari.

Lehen begiratuan, pentsa genezake bilakaera horren giltza dagoela gaztetasunarenugarretik epelagoa izaten den helduarorako aldaketan; edota botere-borrokak eraginiko ika-mika politiko gordinetik unibertsitateko patxada akademikorakoan.

Ordea, Txillardegik amaiera arte eutsiko zionugar polemikoari; eta unibertsitate hori Zorroaga zen, ez lorategi bukoliko baketsu bat.

Uste dut bilakaeraren arrazoia izan zela Txillardegik hurbildik jarraitzen zituela hizkuntzalarien eztabaidak; eta Whorfen ikuspuntuak bizi-bizirik bazeuden ere 60ko hamarraldian, 80koan hilik zeuden, Chomskyzaleen eta kognitibisten erasoek lurperaturik. Orain berriro dabilta indartsu. Modei ez zaiela jaramonik egin behar aldarrikatu zuen Txillardegik maiz.

Bestalde, baliteke Txillardegi, zenbait auzitan —hizkuntzak beren artean berdinaoak ala desberdinaoak ote diren, edota hizkuntza ala pentsamendua kontsideratu behar ote den lehenagokoa—, Joxe Azurmendik idatzi legez, «[...] aitortu (agian ohartu ere) nahi ez den zalantza batean»<sup>77</sup> ibili izana.

Izan ere, *Hizkuntza eta pentsakera* liburuan bertan baziren zalantzaren ernamuinak: hizkuntzaren lehentasuna nabarmentzen badu ere

---

<sup>76</sup> Humboldt: *hizkuntza eta pentsamendua*, 287. or.

<sup>77</sup> *Ibidem*, 291 or.



maizenik, hauxe dio hitzaurrean —idatzi zuen azkeneko atala—, Chomskyren eskutik:

«[...] azken idorokunde batzuek argiro aditzera ematen dutenez, nahiz hizkuntzen sinkroniak erakusten dituen estrukturak *oso funtsezkoak* izan, ez dira dena; batzuen ustez lehenago sortzen bait da logika hizkuntza baino: bai naturalezan bai gizonarengan. Estrukturalista batzuen absolututasuna, beraz, pitin bat apaldu beharra dagoela uste du zenbaitek».<sup>78</sup>

Edonola ere, *Hizkuntza eta pentsakeran* nabarmen agertu izanak muturreko Whorfen jarraitzaile, bilakaeraren osteko Txillardegik liburua gutxiestera eraman zuen, edo absoluzio epel batera.<sup>79</sup>

Gaur egun, bistan da liburuak aise gainditzen duela Txillardegiren epelkeria hori. Hemen ere, Joxe Azurmendiren ikuspuntua objektiboagoa da: *Hizkuntza eta pentsakerak* «[...] urte horietan hizkuntza eta pentsamenduaz [...] zirkulu estrukturalistetan pentsatu denaren aurkezpen bikaina eskaintzen digu».<sup>80</sup> 2023an ere bizi-bizirik dago, gainera, joan den mendean estrukturalistek hizkuntzaz eta pentsamenduaz idatzi zutena. Chomskyk ez ditu Jakobson eta Lévi-Strauss “gainditu”, Saussurek Humboldt gainditu ez zuen legez. Txitean-pitean idatzi du Txillardegik berak desberdinak direla hizkuntzalari horiek jorratzen dituzten arloak, eta badela tokia guztientzat: sinkroniak ez du diakronia ukatzen, gramatika generatiboak ez du estrukturalismoa gezurtatzen. Goitik behera onartzen ditu estrukturalisten kritikak,

---

<sup>78</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 9. or.

<sup>79</sup> «1970.eko giro nahasian liburuak bere funtzioa bete zuela iruditzen zait»: *Euskararen aldeko borroka*, 9. or.

<sup>80</sup> *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua*, 300. or.

historiaren gezia etengabe aurrera doala aldarrikatzen duen dogma hegeldar-marxistaren aurka. Lehenago ere erabili dugun aipu baten arabera, ez garai historikoek eta ez «[...] hizkuntzek ez dute elkar garaitzen, ez dira logika-lerro bakar batean segida bereko kate-begi; gero eta hobeak eta osoagoak».<sup>81</sup>

Nolanahi ere, Txillardegik ez da Whorfen testuak ulertzeko orduan aldatu den bakarra. Interpretazio kontraesanekoei arras irekia dirudi Whorfen pentsaerak. Azurmendik dakarrenez, aditu baten ustez ez da batere zaila whorfismoari buruzko 108 bertsio zerrendatzea.<sup>82</sup>

Kontua da bilakaeraren ondorioz Txillardegik uko egingo diola Whorfen testu batzuek iradokitzen duten muturreko erlatibismo eta determinismo linguistikoari; besteak beste, itzulpenaren aukera ukatzen duenari. *Hizkuntza eta pentsakeran* «[...] hizkuntza guztiak dira itzulezinak. Eta hau sustraitik beretik»<sup>83</sup> idatzi zuen arren, liburu horixe berorixe zein Txillardegiren obra osoa berak eginiko itzulpenez josirik dago. Antiguarraren benetako pentsamenduari egokiago legokioke *Brankan* 1966an idatzitakoa: «Hitzez hitz xuxen itzultzerik ez dago».<sup>84</sup> Alegia, “gorri” bada eta ez da “rouge” edo “rojo”; eta “txukun” bada eta ez da “ordenado” edo “propre”. Aldi berean, berdin eta desberdin. Joxe Azurmendiri ez zaio arrazoirik falta dioelarik itzulezintasuna eta muturreko determinismoa Whorfen uste sendoak baino gehiago Sapir-

---

<sup>81</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 53-54. orr.

<sup>82</sup> Humboldt. *Hizkuntza eta pentsamendua*, 389. or.

<sup>83</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 125. or.

<sup>84</sup> “Hizkuntza eta pentsakera”, in *Branka*, 1966, 42. or.; *Euskararen aldeko borrokan* jasoa, 74. or.

Whorf hipotesiaren inguruko polemikek sorturiko karikaturak direla.<sup>85</sup> Edozein gisaz, eragina izan zuten Txillardegiren pentsamenduan, garai batean behinik behin.

60ko hamarkadako edozein testutan baino sendoago agertuko da Txillardegi 80ko urteetan itzulpenaren aukeraren alde. Hain zuzen, hizkuntza batekoa beste batean egoki eta ganoraz emateko aukerak pentsaraziko dio egon behar duela Chomskyk bilaturiko sakoneko egitura edo gramatika unibertsalaren antzeko zerbaitek.

Haatik, hemen ere dudak. Kartesiarregiak eta zurruneziak iruditzen zaizkio Chomskyren hizkuntzaren filosofiaren zenbait planteamendu, ez oso zientifikoak. Txillardegik dio batzuetan sakoneko egituraren kontzeptua errealitatearekin korrespondentziarik ez duen artificio bat iruditzen zaiola. Gutxi gorabehera, Aristotelesek Platonen ideien teoriari leporatzen ziona. Txillardegik garbi adierazi zituen zalantza horiek *Argia* aldizkariaren 1987ko Euskal Kulturaren Urtekariari eman zion elkarrizketan:

«Fonologia sortzailean ni erabat konforme nago, baina Chomskyk agertzen duen filosofian, unibertsalen teorian eta, bada egia esan ez dakit momentu honetan zer pentsatu... Hain zuzen ere, aurreko Hizkuntzalaritza guztia unibertsal horien erlatibizazioa izan da. Chomskyrengan ez dakit noraino ez dagoen planteamendu oso cartesianoa gai horretaz. Teoria horietan, beharbada, une batetan maila zientifikoa baino urrunago doala iruditzen zait. Ze argi ikusten dena da, hizkuntza batetik bestera pasatzean diferentzia haundiak daudela. Diferentzia horiek ez direla sakoneko

---

<sup>85</sup> Humboldt. *Hizkuntza eta pentsamendua*, 328. or.

egiturakoak? Badaiteke, baina, non agertzen da sakoneko egitura? Hau ez da ikusten, bestea ordea bai, diferentziak nabarmenak dira. Nik ez dakit sakoneko egituraren kontzeptu hori, azken finean, ez ote den artifizio bat, funtzionala, baina agian errealitatearen korrespondentziarik ez duena».<sup>86</sup>

Oiloaren ala arrautzaren lehentasunari buruzko galderari bezain erantzungaitza leritzoke bilakaeraren osteko Txillardegik, ziurrenik, hizkuntzaren ala pentsamenduaren lehentasunaren gainekoari. Hizkuntzak ez luke inolaz ere pentsamendua determinatuko; baldintzatu edo bideratu bai, baina pentsamenduak hizkuntza ere bai.

Hauze litzateke, apika, polemikaren atzaparretatik askatutako Txillardegiren ikuspuntua, Joxe Azurmendiren hitzekin adierazia: «[...] batzuetan pentsamendua eragile hizkuntzan, eta lantzean behin hizkuntza eragile pentsamenduan [...], jokalege zurrun aurre-determinaturik gabe»<sup>87</sup>; edota Edward Sapirren paragrafo honetan, hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko elkarreragina aldezteaz gain, zalantzan jartzen duena askatasunaren alde hiltzeko prest egon gintezkeenik “askatasun” hitza ez bagenu:

«Ez dugu iruditu behar sinbolo linguistikoaren sistema oso garaturik gauzatu ahal izan denik kontzeptu argiro bereziak eta pentsatzeko ekintza sortu aurretik. Hori barik, iruditu behar duguna da pentsamenduaren prozesuak azaleratze psikiko bat bezala sartu zirela jokoan adierazpen linguistikoaren hasieran ia eta kontzeptuak, behin definitu ondoren, eragina izan zuela nahitaez bere sinbolo linguistikoaren bizian eta horrela hizkuntzaren garapena bultzatu zuela. Geure begiekin ikusten dugu hizkuntzaren eta

---

<sup>86</sup> *Argia* aldizkaria, 1987ko Euskal Kulturaren Urtekaria, 42. or.

<sup>87</sup> *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua*, 292 or.

pentamenduaren arteko elkarreragin hori benetan gauzatzen. Tresnak posible egiten du produktua, produktuak, berriz, tresna fintzen du. Kontzeptu berri baten sorreraren aurrean material linguistiko zaharraren erabilera murriztagoa edo zabalagoa dago hutsik gabe; kontzeptuak ez du erdiesten bizi indibidual eta lokaberik harik eta bilgarri linguistiko bereizi bat aurkitu arte. Kasurik gehienetan, sinbolo berria lehendik ere baden material linguistikotik despotismo itzeleko jarraibidez ezarritako prozeduren arabera forjaturiko zerbait da. Hitza prest egon bezain laster, berez sentitzen dugu, hasperen lasaigarri batekin edo, kontzeptua ere prest dugula erabiltzeko. Sinboloa eduki arte, ezinen dugu sentitu kontzeptuaren ezagutzaren edo ulermenaren atea berehala zabaltzeko giltza eskuan daukagunik. Egonen ote ginateke hain prest “askatasunaren alde” hiltzeko, geure “idealen alde” borrokatzeko, hitzak eurak barrenean durundaka ari ez balitzaizkigu? Eta hitza, dakigun moduan, ez da giltza bakarrik; traba ere izan daiteke».<sup>88</sup>

---

<sup>88</sup> SAPIR, Edward, *Hizkuntza*, Gaiak, Donostia, 2011, 25-26. orr.

# CLAUDE LÉVI-STRAUSSEN PENTSAERA NATURALA

B. Russell, J.P. Sartre eta E. Morin aipatu bazituen ere inspirazio-iturri gailen gisa *Hitza hitz* elkarrizketa-liburuan eta *Euskal Herria helburu* autobiografian, uste dut, Txillardegiren obra osoa kontuan harturik, Claude Lévi-Strauss eta Jean-Paul Sartre ageri direla zinez nagusi. «Mende hunen gizon gailenak Einstein, Sartre eta Levi Strauss baitira», dio 1967an.<sup>89</sup> Txillardegiri bezala Gilles Deleuzeri eta beste hainbati, Sartreren eta Lévi-Straussen ikuspuntuak inkompatibleak izateak ez die eragotzi biak aldi berean mirestea. Koldo Mitxelenak ere miresten zuen: Lévi-Strauss bide zuzenetik doala idatzi zuen, oso gizon leial eta zuzena dela lanean, sendoa eta sakona duela obra.<sup>90</sup>

Artikulu mamitsu bi eskaini zizkion Txillardegik: “Lévy Strauss-ek Unamuno-rengana” (1965) eta “Levi Strauss gailen” (1973); baina, gainera, *Hizkuntza eta pentsakera* liburuko motor nagusia da bruselarra, Saussureren, Whorfen eta Lacanen gainera.

Txillardegiren maisuen artean, Lévi-Straussekin izango du ziurrenik donostiarraren sentiberatasunaren antzekoena: biek gaitzetsi zuten errotik Mendebaldeko zibilizazioa; biei piztu zizkieten bihotza eta luma desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzek eta herriek, animaliek, budismoak; biei iruditzen zitzairen zuzena ez ezik beharrezkoa estatuek

---

<sup>89</sup> “Sinistu ezinean iges egin behar”, in *Jakin*, 1967, 17. or.

<sup>90</sup> *Zenbait hitzaldi*, EEE, Donostia, 2003, 59. or.

mehatxaturiko identitate nazionalak babesteko ahalegina: Ipar eta Hego Katalunia eta Ipar eta Hego Euskal Herria elkartzea aldeztu zuten.<sup>91</sup>

Euskal Herria, horratx 24 urte bete arte Lévi–Straussek ezagutu zuen Frantziako eskualde bakarra, Paris bizilekutik hegoaldera. Baionan hazi eta hezi zen haren ama. Baionako Errabino Nagusiaren alaba zen. Lévi–Straussen amaldeko osabetako bat Henry Caro–Delvaille baionar margolari ospetsua zen, Isadora Duncanen amorantea. Caro–Delvaille Baionako judutar hilerrian dago lurperatua. Harreman estua zuen Lévi–Straussen aitarekin, margolaria halaber. Amaren aldeko beste osaba bat Gabriel Roby margolari euskaltzalea izan zen. Claude bera margolari izaten saiatu zen, baina ez zen trebea.<sup>92</sup> Txillardegik bezala, zientzia miresten duen artistaren begiradaz, adimenaz eta sentiberatasunaz aztertu zituen Lévi–Straussek ere giza kontuak.

Estatuak bata zein bestea kanporatu zituen: Lévi–Strauss judua Frantzia kolaboratzaileak pariatzat jo eta erbestera behartu zuen, eta Txillardegi euskalduna Espainia frankistak pariatzat jo eta erbestera bota zuen. Frantziak ere kanporatuko zuen Txillardegi. Marxek eta Walter Benjaminek bezala, liburutegi publikoetan irakurtzen eta idazten zuten erbestealdian: Lévi–Straussek New Yorkeko Liburutegi Publikoan pasatzen zituen orduak eta orduak, eta Txillardegik Bruselako geltoki nagusiaren albokoan.

---

<sup>91</sup> *Dictionnaire Lévi-Strauss*, Jean-Claude Monod koordinatzaile, Bouquins, Paris, 2002, 1158. or.

<sup>92</sup> LOYER, Emmanuelle, *Lévi-Strauss*, 50-51. orr.

Biek izan zuten gizarte zientziak ekuazioetara ekartzeko joera eta dohaina, eta halaxe egin zuten asmatu zituzten jakintza-arloekin —Etnologia estrukturalista eta Soziolinguistika matematikoa—. <sup>93</sup> Matematika hutsak ez du errealitateari buruz ezer azaltzen, baina, Lévi-Straussek dioenez,

«Matematikaren enuntziatuek islatzen dute, gutxienez, espirituaren funtzionamendu librea, hau da, burmuinaren azaleko geruzetan aurkitzen diren zelulen jarduera, kanpoko hertsadura guztietatik aske, eta beren legeei bakarrik obedientzia zor dietela. Espiritua ere gauza bat denez, gauza horren funtzionamenduak gauzen izaerari buruzko ikasbideak ematen dizkigu: hausnarketa huts-garbia ere kosmosaren barneratzea besterik ez da». <sup>94</sup>

Bientzat izan zen biziki garrantzitsua musika klasikoa. Hori bai, hobeki jotzen zuen Txillardegik pianoa Lévi-Straussek klarinetea baino. Biek gutxietsi zituzten beren ahalegin literarioak. Ederki bezain azkar idazten zuten, hala ere: lau hilabetean amaitu zuen Lévi-Straussek *Tropiko tristek*, lau astean Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua*.

Gogora ditzagun Txillardegik Lévi-Straussen obran nabarmentzen dituen hizkuntzari loturiko zenbait ideia.

## OINARRI EZKUTUA

Hizkuntzalaritza estrukturalistaren ekarriak aplikatu zituen Lévi-Straussek Etnologian eta Antropologian, batez ere Fonologiarenak: sistema fonologiko zehatzek mintzoa soinuaz adierazteko beharra

---

<sup>93</sup> *Ahaidegoaren estruktura elementalak* liburuko estrukturak matematikara ekarri zituena André Weil izan zen, Simone Weil ospetsuaren neba.

<sup>94</sup> *Pentsaera basatia*, 353. or.



mamitzen duten bezala, edo giza mintzamina hizkuntzek, halaxe mamitzen dute gizatasun orokorra etniek eta herriek ere. Fonemak, bestalde, ez dira ezer berez; sisteman betetzen duten lekuak eta gainerako fonemekiko harremanak ematen die izatea. Ideiok Lévi-Straussek Antropologiako hainbat esparrutan erabili zituen: ahaidegoa, totemismoa, mitoa, artea, eta abar. Horietan guztietan, agerikoaren azpian datzan egitura inkontzientea bilatu zuen, oinarri ezkutuak erabakitzen baitu azala. Gizakia beti dago sare inkontziente horien baitan harrapatua, dagiena egitera baitaramate, bera konturatu gabe.<sup>95</sup> Zentzu horretan, mitoztat eta liluratzat du Lévi-Straussek existentzialismoak aldarrikatu giza askatasuna.<sup>96</sup> Existentzialismoa izan zen nagusi bigarren mundu-gerraren ostean Frantzia, harik eta 60ko hamarraldian estrukturalismoa nagusitu zen arte. Batetik bestera joan-etorrian ibili zen Txillardegiri 60ko hamarralditik aurrera.

Emilio Lopez Adan “Beltza”ren iritziz, existentzialismoak eman zion Txillardegiri bere mundu-ikuskeraren funtsa, eta estrukturalismoa ez zuen erabili taktikoki baino, Frantziako maiatzaren sasoiaren Euskal Herriaz jabetu zen marxismo erlijiosoari aurka egiteko iskilu gisa.<sup>97</sup> Beltza zuzen badabil, dena den, estrukturalismoa eta Lévi-Strauss bereizi beharko genituzke, Txillardegiren miresmena bruselarrarengana epe laburrerako taktika aise gainditu eta bizialdi osoan luzatu baitzen.

---

<sup>95</sup> *Antropologia estrukturala*, 63-65. orr.

<sup>96</sup> *Tropiko tristeak*, 167. or.

<sup>97</sup> “Txillardegiren pentsaera politikoa”, in *Jakin*, 1999, 77-78 orr.

## GIZA ADIMENA

Munduko anabasa mugagabea, giza izpirituak zenbait elementu mugatu, aukeratu, nabarmendu eta beste elementu zehatz batzuekin elkartuz dihardu: horrela sortzen ditu hizkuntzak, mitoak, ahaidego-sistemak, artea, totemismoa edo sukaldaritza.

Dagoena berez da kaotikoa; gizakiak berez bilatzen du ordena: anabasa nolabait antolatzea eta kaosean mapak marraztea.<sup>98</sup> Lévi-Straussek garbi nabaritu zuen joera hori bere baitan, eta sistema detektatu zuen ustez apetatsuak ziren giza jokaera batzuen azpian, egitura bat. Horrexegatik idatzi zuen oso izan zirela garrantzitsuak berarentzat Marx, Freud eta Geologia: Freudek giza jokabide kontzienteak erabakitzen dituen inkontzientea aurkitu zuen; Marxek, berriz, kultura determinatzen duen azpiegitura ekonomikoa; eta Geologiak, azkenik, geruzak bilatzen ditu, azpiko geruzak, sorrarazten dituztenak ageriko paisaiak: mendiak, amildegia, oihanak, arroak, uharteak, bailarak, etab.<sup>99</sup> Txillardegik Lévi-Strauss darabil sarritan marxismo ortodoxoaren aurka, baina puntu honetan espanturik gabe onartzen du marxismoaren eta estrukturalismoaren arteko bat etortzea.<sup>100</sup>

Geologiak ageriko paisaiaren eta ezkutuko geruzen artean ikusten duen harremana ikusten du estrukturalismoak mintzoan: hizketaren azpian, esaten denaren azpian, entzumenak jaso ditzakeen soinu-kate infinituen azpian, hizkuntza dago —hiztunek oharkabea darabiltena, harik eta

---

<sup>98</sup> LÉVI-STRAUSS, Claude eta ERIBON, Didier, *De près et de loin*, Odile Jacob, Paris, 1988, 197. or.

<sup>99</sup> LÉVI-STRAUSS, Claude, *Tropiko tristeak*, Klasikoak, Bilbo, 2009, 61-64. orr.

<sup>100</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 132. or.

fonologoek edo gramatikariek ezkutua erakusten duten arte—. Hizkuntzalaritza izan zen, bereziki Fonologia, gizarte zientzia ahul edo bigunen artetik natur zientzia zorrotz exigenteagoetara lerratzen lehena, eta, esan bezala, Lévi–Straussek antzeko bidaia eginarazi zion Antropologiari.<sup>101</sup> Horregatik kokatzen du Txillardegik estrukturalismoaren bigarren nabigazioaren eta hedatzearen brankan, Saussureren eta Jakobsonen Hizkuntzalaritzaren ostekoan.<sup>102</sup>

Lévi–Straussek beti nabarmendu eta azaldu nahi izan du ageriko anabasa infinituaren azpiko estruktura. Uste du giza izpiritua beti eta nonahi dela berdina, eta materiala dela; azken batean, giza garunen funtzionamenduak erabakiko luke gizartegintza, kultura. Eta garuna naturala da. Lege naturalen arabera funtzionatzen duelako uler dezake giza adimenak natura. Naturaren eta kulturaren bereizketa, funtsean, ez litzateke metodologikoa baino. Naturaren eta kulturaren arteko harremana pentsatzeko, ohiko dikotomia desegin eta naturaren parte eta adierazpentzat hartuko du Lévi–Straussek giza kultura. Eta, aurrerago jorik, bizia bere baldintza psikikoetan eta kimikoetan oinarriturik ulertu nahiko luke.<sup>103</sup>

Bruselarrak dio bere obra, funtsean, gainegituren teoria bat dela. Marxek ez bezala, ordea, ez du ikusten azpiegitura ekonomikoak guztiz erabakitzen duenik gainegitura politiko–kulturala. Aldiz, azpiegitura inkontziente batek maila berean determinatuko lituzke nola ekonomia

---

<sup>101</sup> *Antropologia estrukturala*, 65-66 orr.

<sup>102</sup> *Ibidem*, 65. or.

<sup>103</sup> LÉVI-STRAUSS, Claude, *Le regard éloigné*, Plon, Paris, 1983, 164. or. eta *Pentsaera basatia*, 352. or.

hala gainerako giza jarduera guztiak ere. Giza natura, azken batean, dagoena zeinu-sistema gisa ulertzea litzateke, jasoriko kaosa zeinu-sistemaren baten arabera berregitea eta ikustea.

Lévi-Straussen ikergaia, funtsean, giza adimena da; Etnografia Antropologiara eramango du, eta Antropologia Psikologiara eta Kimikara. Hizkuntzak dira —alegia, zeinu-sistemak— ahaidego-estrukturak, totemak, mitoak eta artea. Semiologia orokor bat bilatuko du Lévi-Straussek, giza adimenaren nolakotasunaren berri emateko egokiena. Lévi-Straussentzat, aipatu jardun horien guztien oinarrian, jardunok egituratzen dituen zeinu-sistemaren bat dago, inkontzientea. Baina inkontzientea da zeinu-sistemak sortzen dituen azpiko egituragilea ere, Txillardegik “estrukturamena” deitutakoa.<sup>104</sup> Eta, esan bezala, gizaki orok pentsatu izan du beti eta nonahi berdintsu. Gaurko unibertsitarioak bezain ondo pentsatzen du Amazoniako agrafoak edo neolitikoko nekazariak.<sup>105</sup>

Giza izpirituaren jarduera inkontzienteak mundutik datorkigun edukiari forma ematen dio. Eta forma horiek berberak dira antzinako gizarteetan zein garaikideetan, agrafoetan eta zibilizatuetan. Berdina denez giza burmuina gizakia gizaki denez geroztik, antzeko hertsadurak eta betebeharrak ezartzen dizkio adimenaren funtzionamenduari.

Alta, adimenak aurkitzen dituen arazoak bestelakoak dira han eta hemen: geografiaren, klimaren, historiaren eta abarren arabekoak. Pertsona

---

<sup>104</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 65. or.

<sup>105</sup> "Lévy Strauss-ek Unamuno-rengana", in *Jakin*, Donostia, 1965, 6-15 orr.

indibidualaren arazoak ere nortasunaren, haurtzaroaren eta taldean betetzen duen tokiaren arabera aldatzen dira. Buruko tramankulua berdintsua da edonon, baina inputak eta outputak aldakorrak.<sup>106</sup> Ez da harritzekoa Txillardegik Kanten kutsua sumatzea honi guztiari.<sup>107</sup> Subjektu transzendentetik gabeko kantismoa, beti ere, Paul Ricoeurek diagnostikatu eta Lévi-Straussek onartu bezala.<sup>108</sup>

## INTZESTUAREN DEBEKUA

Gizakiok ebaki ditzakegun soinu infinituetatik hizkuntza bakoitzak soilik jakin batzuk aukeratu eta konbinatzen dituen bezala, sexu harreman posible guztien artean ere, lege batzuen arabera aukeratu eta elkartu izan dira protagonistak gizataldeetan.<sup>109</sup>

Ahaidegoari dagokionez, Lévi-Straussek oinarrizko egiturak atzeman ditu, ahaidegoa antolatzeko molde asko eta asko aztertu ostean. Guri bitxiak zaizkigu hainbat arau: zenbait gizartetan, aita baino garrantzitsuagoa izaten omen da, umearentzat, amaren neba (Resurrección María de Azkuek “osaba” eta “ugazaba” lotu zituen).<sup>110</sup> Ahaidego-sistemak askotarikoak dira, baina Lévi-Straussek XX. mendeko erdialdean aldarrikatu zuen badela arau bat gizatalde orok, beti eta nonahi, ezarri izan duena: intzestuaren debekua, batik bat elkarri “ama”

---

<sup>106</sup> *De près et de loin*, 173. or.

<sup>107</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 71. or.

<sup>108</sup> LOYER, Emmanuelle, *Lévi-Strauss*, 475. or.

<sup>109</sup> *Antropologia estrukturala*, 86-87. orr.

<sup>110</sup> *Ibidem*, 71-72 orr.

eta “seme” deitzen diotenen arteko sexu-harremanen debekua; zenbaitetan neba-arreba, aita-alaba, amatxi-biloba sexu-harremanak onartuak baitira. Txillardegik ez darabilen arren, intzestuaren debekuaren adibideak polito argitzen du Lévi-Straussek giza adimenaren funtzionamenduaz dioena.

Intzestuaren debekua azaltzeko, hainbat saio egin izan da. Radcliffe-Brownentzat, sendi barruko harremanek epe luzera ekar ditzaketen gaixotasunak eragoztearren debekatu izan da intzestua; Margaret Meadentzat, berriz, berezkoa eta bortitza da senide arteko sexu erakarmena, bereziki neba-arreben artekoa, baina indar horren aurka odol berdina nahasteko beldurra eta nazka altxatzen dira, hilekoaren odolari zaion ikara sakratuari lotuak. Hirugarren hipotesia, Freudena, ezagunagoa da. Lévi-Straussek mitotzat du: aita-buruzagiaren hilketa eta jatea; ondoko borrokak ar gazteen artean emeen jabetza lortzearren; eta, azkenik, borroka horiek geldiarazteko norberaren taldeko emeei ukoa.<sup>111</sup>

Lévi-Straussek, beti bezala, erlazioari eman dio garrantzi berezia. Exogamia dakar intzestuaren debekuak, eta exogamiak beste herriekin harremanetan jartzera behartzen du. Exogamia truke-mota bat litzateke funtsean; trukerako gaia, berriz, andreak.<sup>112</sup> Andreen nahia, jakina, ez da kontuan hartzen. Nik ama, arreba edo alaba eskaintzen dizut; zuk beste horrenbeste egin beharko duzu. Geure taldeen arteko lotura ziurtatuko dugu horrela, harremanen zirkulazioa. Halatan, funtsezko funtzio

---

<sup>111</sup> WISEMAN, Boris eta GROVES, Judy, *Lévi-Strauss. A Graphic Guide*, Icon Books, 30-31. orr.

<sup>112</sup> *Antropologia estrukturala*, 89. or.

berdina dute exogamiak eta hizkuntzak: taldearen integrazioa eta beste taldeekiko komunikazioa.

Lévi–Strauss baino lehenagoko etnologoek, ahaidetasun–sistemaren bitartez azaltzen zuten intzestuaren debekua. Bruselarrak, alderantziz, intzestuaren debekuaren bidez azaltzen du ahaidetasun–harremanen funtsa.

Dirudienez, intzestua debekatzea izan zen gizakiak naturari eman zion aurreneko ezetza, eta arau zein moral ororen sorburu.

## **FONEMA ETA INTZESTUA**

Lévi–Straussekin onartzen du fonemaren eta intzestuaren debekuaren nozioak oso heteroklitoak direla; hala ere, hizkuntzalariak fonemari asignaturiko eginkizuna izan zuen intzestuaren debekuz pentsatzeko inspirazio–iturri. Fonemak ez du esanahirik, baina esanahiak sortzeko bitartekoa da. Intzestuaren debekua ere eremu biren arteko gontz edo artikulazio gisa agertu zitzaion Lévi–Straussi.

Hain zuzen, soinuaren eta zentzuaren arteko artikulazioari, beste maila batean, naturaren eta kulturaren artekoak erantzuten dio. Fonema, forma gisa, hizkuntza orotan ageri da, hizkuntz–harremana ezartzeko bitarteko unibertsala da. Era berean, intzestuaren debekua —orobat unibertsala—, forma hutsa da halaber, baina ezinbestekoa, talde biologikoen edo etnien arteko artikulazioa gauzatuko bada, harremanetan jarriko dituen truke–sare batean.

Azkenik, ahaidetasun-harremanen esanahia —bereizirik aztertuz gero ulergaitza—, ezin da argitara ekarri terminoen arteko oposizioan baizik; modu berean, fonemaren errealitatea ez dago bere indibidualtasun fonikoan, baizik eta fonemek beren artean erakusten dituzten oposiziozko harreman negatiboetan.<sup>113</sup>

## TOTEMISMOA

Lévi-Straussek ikusi zuen “totemismoa” Mendebaldean asmatutako etiketa tipikoa dela: hainbat jokaera era artifizialean batzen ditu, “histeria” kontzeptuak bezalaxe. Halako asmakerien oinarrian Mendebaldearen jarrera hau dago: “Begira atzeratuok, primitiboak, erok, noraino diren gu ez bezalakoak gizajoak: herri batzuei eta bertako herritarrei animalien izenak ematen dizkiete; zein bitxia, zein xelebrea”.

Nola funtzionatzen du benetan totemak? Zer burubidek darama herri bat totem jakin bat aukeratzera? Lévi-Straussen ustez, Frantziako hainbat sinesmen eta errituren azpikoa baino logika ulergarriagoak. Gu jaguarrak gara; zuek arranoak. Gu jaguarrak gara, sua beste tribuek baino lehen aurkitu genuelako, eta suzko begiak dauzka, hain zuzen, jaguarrak. Ezin dugu jaguar-okelarik jan, egun sakratuetan izan ezik. Erle-totema, Lévi-Straussek berak kontatua:

«Erlea abere totemikoa da, bai Afrikan, bai Australian. Baina, Nuer herrikoen artean, bigarren mailako totema da, pitoiarekin elkartuta, bi espezie horiek gorputzean antzeko markak dituztelako. Totem gisa pitoia daukan

---

<sup>113</sup> *Le regard éloigné*, 195-196. orr.



pertsonak, beraz, ez ditu erleak hilko, eta ez du erleen ezta jango. Mota bereko elkarketa gertatzen da inurri gorriaren eta kobraren artean, kobra izenak, berez, “marroia” esan nahi baitu». <sup>114</sup>

Antropologiak totemismoari eman izan dizkion azalpenak ere ukatu ditu Lévi–Straussek. Batetik, ez zaio iruditzen totemarekin batze mistikoa denik kontua, edo totema hartzea sorburutzat. Txillardegi: «'Otso' klana, eman dezagun, ez da inondik ere otsoaren segida, edo otsoaren haragikundea». <sup>115</sup> “Arrano” taldeko kideak ez dira arrano sentitzen; ez dute pentsatzen arranotik datozenik, arranoa dutenik lehen arbaso. Lévy–Bruhl antropologoak idazketarik gabeko gizarteen jokabideak azaldu nahian halako sinesmen eta sentimendu mistikoei eman zien garrantzia baztertu zuen Lévi–Straussek.

Bestetik, totemismoa ez da gizakien eta animalien arteko antzekotasun fisikoan oinarritzen: azandetarren totemak, esaterako, irudimenezko animaliak izaten dira, hala nola ostadar–sugea, urezko lehoiabarra edota trumoi–animalia.

Sailkatzeko giza behar inkontzientea ikusten du batik bat Lévi–Straussek totemismoan ere: itxurazko desordenari oinarrizko ordena eman nahia legoke animalien edo landareen ezaugarriak gizataldeei egokitze totemikoan ere. Txillardegiren hitzetan, totemismoa

---

<sup>114</sup> *Pentsaera basatia*, 89. or.

<sup>115</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 71. or.

«[...] gizartea PENTSATZEKO modua da. Soinuen arteko oposizioak hitz egin ahal izateko baliatzen diren bezala, gizartea taxutzeko eta uler ahal izateko, abere moten arteko oposizioak baliatu izan dira».<sup>116</sup>

Arranoaren klana eta jaguarrarena, otsoaren klana eta azeriarena, elkarren oposizioan daude sistema totemikoan, /a/ eta /o/ bezala estruktura fonologikoan, edota ahizpa eta aita ahaidego-sisteman.

Oposizio horiek

«[...] leinuaren gizarte-antolakera zer den adierazten dute. Garbi ikusten eta pentsatzen lagun dezake totemismoak, hizkuntzak bezala. Giza-talde baten totemak, hitz batez, sinbolo-sistema dira, soinuak edo hitzak bezalaxe».<sup>117</sup>

Totemismoaren giltza, hortaz, adimenaren operazio bat da: hizkuntzak soinuak eta zentzuak elkartzen dituen bezala, totemismoak korrelazio metaforiko bat ezartzen du animalien eta herrien artean. Horrela, animalia-espezieen bereiztea bat dator talde totemikoen bereiztearekin, talde totemiko baten kide izatea beste talde totemikoetatik bereiztea eta desberdintzea baita.

Totemismoa ulertzeko triparen exigentzia edo behar ekonomikoa darabiltenen aurka ere joko du Txillardegik Lévi-Straussen eskutik. “Ekonomikeria” bataiatuko du joera hori: «totemismoaren gakoa ez dira ekonomiaren beharrak [...] hautatzen diren abere-motak ez dira ‘jateko onak’, ‘pentsatzeko onak’ baizik».<sup>118</sup> Zertarako dituzte bestela herri agraroetan deusetarako balio ez duten gauza askoren hiztegi aberats

---

<sup>116</sup> *Ibidem*, 71. or.

<sup>117</sup> *Ibidem*, 72. or.

<sup>118</sup> *Ibidem*

horiek?<sup>119</sup> Lévi–Straussek dioenez, akats piloak saihestuko genukeen, eta denbora luzea irabazi, «[...] baldin eta antzinako bidaiariek konfiantza izan balute indigenen taxonomietan».<sup>120</sup>

## MITOAK

Musika–konposizioarekin konparatu izan du mitoa Lévi–Straussek. Entzuleak lirateke jotzaile isilak.

Ahaidego–sistemak eta totemismoak estrukturak osatzen dituzte: hizkuntzak dira, zeinu–sistemak, baina linguistikoak ez diren elementuetan mamituak. Zeinu–sistemak osatzen dituzte halaber mitoek, baina hitzezko kontakizunak dira, hitza dute lehengai. Ordea, istorioan kontzentratzen da mitoa, eta ohartu gabe darabiltza hitzak, solasaldi arruntean fonemak darabiltzagun legez.

Mitoei esker lupaz handiturik ikus dezakegu nola pentsatu izan duen gizakiak beti. Iragan urrutian sortuak dira mitoak, anonimoak dira, eta ahoz transmititzen dira. Asmamen harrigarria erakusten dute, irudimen zoroa, itxurazko inkoherentzia, hala nola Txillardegik aukeraturiko pasarte hauetan: «lurraren azpitik bi herensuge atera ziren, elefante batek haur bakarra jan zuen, ugaldeen ondoren izadia eta gizadia adiskidetu egingo dira, eta abar».<sup>121</sup>

---

<sup>119</sup> *Ibidem*, 106. or.

<sup>120</sup> *Pentsaera basatia*, 73. or.

<sup>121</sup> *Ibidem*, 134. or.

Hogeitaka urtez ikerketan buru-belarri murgildurik, Lévi-Straussek xeheki aztertu zituen Hego eta Ipar Amerikako 813 mito. Mito bakoitzaren aldaki guztiak hartu zituen kontuan. Eta ikusi zuen Brasilgo erdialdean bizi diren tribuetako mitoetatik abiatu, alboko tribuetako bertsiorekin jarraitu eta etenik gabeko katean aldakiz aldaki Ipar-Mendebaldeko kostaldera iristen zarela. Hainbat eratako harremanak dituzte mitoen aldaki horiek: analogia, simetria, permutazioa, isomorfismoa, inbertsioa, oposizioa, etab. Munduan barrena bidaiari dabilzan serie aldakorak osatzen dituzte. Espiralean hazten eta transformatzen dira.<sup>122</sup>

Mitoek ez dute berezko zentzurik. Estructura fonologikoan, ahaidetasun-sisteman edo totemismoan bezala, elkarren arteko harremanak ematen dio zentzua mitoari. Txillardegiren hitzetan, Lévi-Straussek,

«[...] lan gaitz baten ondoren, mito askoren ahaidetasuna frogatu du, egiatzko mito-estrukturak banaka batzutarra bilduz. Mitoetan estrukturak daude, oso izkutuak, guztiz oharkabeak. Mitoak itxura desberdinez jaten dira, baina izpiritu-estruktura berberak betetzen dituzte: mitoen «adierazia» uste den baina gutxiago aldatzen da kondairan barrena».<sup>123</sup>

Harrigarria da mitoen ugaritasuna, garai guztiak eta mundu osoa kontuan hartuta; hori bezain harrigarria da, ordea, kontakizun mitiko guztietan prozedura mugatu jakin batzuk errepikatzea. Hizkuntzan bezala: mintzaldi mugagabeak sortu ditzakegu elementu linguistiko permanente oso gutxiren arteko konbinaziotik.

---

<sup>122</sup> *Antropologia estrukturala*, 233. or.

<sup>123</sup> *Ibidem*, 134. or.

Txit desberdina izan arren mitoek agerian kontatutakoa, Lévi–Straussek antzematen dio mitoen narratibari eusten dion antolakuntza–maila sakonagoari, ezkutuko armadurari, zentzu musikalean. Oinarrizko maila horretan aurkitzen da mitoen arteko komunikazioa.

Esaterako, bitako oposizioak bereizi ditu Hego Amerikako mitoetako sakoneko estrukturetan: gordina eta egosia; freskoa eta ustela; goikoa eta behekoa. Gé tribuaren mitoetan jaguarra da suaren jatorria. Guaraní–tupí tribuarenetan, berriz, saiak sortu zuen sua.

Beti bezain erne, Lévi–Strauss ohartu zen jakiaren izaeragatik bereizten zituztela tribu biek jaguarra eta saia, eta horixe zela erabakigarria: okela gordinik jaten duen predatzailea da jaguarra; saia, ostera, okela ustela jaten duen harrapakaria. Jaguarrak eta saiak, halatan, oposizio bikoitza kodifikatzen dute estuktura baten baitan: gordinaren eta egosiaren artekoa, batetik, eta freskoaren eta ustelaren artekoa, bestetik.<sup>124</sup>

Gordinaren eta egosiaren oposizio binario nagusiarekin harremanetan, bestelako elementuak ageri dira, hala nola eztiak. Anbibalentea da eztiaren tokia sisteman. Prest dagoen arren giza kontsumorako —dagoeneko “egosirik”, nolabait—, ez du kulturak transformatu, baizik eta naturak berak. Bitartekaria da.<sup>125</sup>

---

<sup>124</sup> WISEMAN, Boris, eta GROVES, Judy, *Lévi–Strauss: A Graphic Guide*, Icon Books, London, 1998, 149. or.

<sup>125</sup> Oposizio bikoitzetan, erabakigarria izaten da bitartekaritza. Koiotea belarjaleen eta haragijaleen arteko bitartekaria da, sarraskijalea baita. Behe-lainoa, berriz, zeruaren eta lurraren artekoa. Abrikota, landare basatien eta laboreko landareen artekoa: laborekoen artean hazten da, baina basatien antzera. Jantzia da naturaren eta kulturaren arteko bitartekari. Zaborra, herriaren eta basoaren artekoa. Errautsak eta kea, sukalde lurtarraren eta zeruaren irudi den sabaia artekoa. *Antropologia estrukturala*, 147. or.

Naturatik kulturarako igarotzea da Ameriketako mito guztien gai nagusia. Gizakiak eta animaliak artean bereizirik ez zeuden garaian daude kokaturik mito horiek, eta oinarrizko bereizketa hura nola gertatu zen dute kontagai. Hego Amerikako mitoetan, gordina egosi bilakatzeak sinbolizatzen du igarobidea. Halatan, biziki garrantzitsua izaten da suaren giza konkista, sua baita naturaren eta kulturaren arteko bitartekari nagusia; baita lurraren eta zeruaren artekoa ere.<sup>126</sup>

Horrela lotu ditu Octavio Pazek hizkuntza, intzestuaren tabua eta sukaldea: intzestuaren debekuak bezala, egosteak ere aldi berean bereizten eta batzen ditu natura eta kultura. Eta hizkuntza da bien aurrekaria: naturatik bereizten gaitu, eta, aldi berean, naturarekin eta beste gizakiekin elkartzen gaitu. Hizkuntzak gizakiaren eta gauzen arteko distantzia adierazten du, eta distantzia hori deuseztatzeko nahia.

Bestalde, egostea gordinaren eta ustelaren bitartekoa da; intzestuaren tabua, berriz, endogamiaren eta exogamiaren artekoa, promiskuitate araubako mugagabearen eta onanismoaren bakardadearen artekoa.

Bien eredia da hitza, garrasiaren eta isiltasunaren arteko zubia, gizaki zentzugabearen eta naturaren zentzurik ezaren artekoa. Hirurak dira baheak, mundu natural anonimoa bahetu eta izen eta zeinuetan transmutatzen dutenak. Hirurek dakarte bizitzaren jario amorfoa giza mundu sinbolikora.<sup>127</sup>

---

<sup>126</sup> Lévi-Strauss: *A Graphic Guide*, 150-152. orr

<sup>127</sup> PAZ, Octavio, *Claude Lévi-Strauss o el nuevo festín de Esopo*, Joaquín Mortiz, Mexiko D.F., 1967, 48. or.

Lévi–Straussen hitzetan, problema logikoak prozesatzeko tresnak ere badira mitoak. Kultura batek ebatzi ez ditzakeen paradoxa edo kontraesan oinarrizko batzuetan bitartekaritza–lana egiteko asmatzen dira. Paradoxa horiek metafisikoak, etikoak, sozialak, legalak, politikoak, erlijiosoak izan daitezke. Txillardegi:

«Alde batetik mito horien «adierazia» dago, eta bestetik mito horien «adierazlea». Alde batetik, beraz, munduko buru–hausteen sistema dago, soluzio eta sasi–soluzioak barne (mundua nola sortu zen, gizona nola agertu den munduan, heriotzaren ondoan zer dagoen, eta abar); eta bestetik, hizkuntza moduko sinboloak, itxurazko pasadizutan haragiturik».<sup>128</sup>

Pentsaera mitikoa abiarazten duten bultzada dira buruhauste eta paradoxa horiek. Eta mitoek ez dute paradoxa horiei soluziorik emateko asmorik erakusten. Bestelako irtenbidea eskaintzen diete: paradoxa horiek antzeko beste batzuetan transformatzea etengabe.

## **EDIPO**

Txillardegik, batetik, mitoaren esanahia bere estrukturaren bidez azaldu beharra aldarrikatzen du:

«Mitoak, beraz, itxuraren aldetik, alegiazko beren ixtorioetatik, azaldu nahi dituztenak, guztiz oker daude estrukturalisten iritziz. Herensugeak ez ziren lurretik atera. Hortik bilatzea zentzugabekeria hutsa da. «Adierazia» bilatu behar da estrukturaren bidez».<sup>129</sup>

---

<sup>128</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 134. or.

<sup>129</sup> *Ibidem*

Bestetik, mitoan adierazlea eta adierazia bereizi beharra, hizkuntza eta hizketa: «mitoen mordoia *bi mailletan batera* aztertu behar da, mitoak *hizkuntza* bat balira bezalaxe».<sup>130</sup>

Bi eskakizun horiei erantzuteko, ezin hobeki datorkigu Lévi-Straussek Ediporen mitoa oinarri harturik sortu zuen taula ospetsua.

Lehenbiziko maila, kontakizun agerikoari dagokiona —hizketari, denbora errepikaezinari—, ohi bezala irakurtzean sortzen da, ezkerretik eskuinera.

Bigarren maila da Lévi-Straussi interesatzen zaiona, kontuan hartu beharrekoa mitoa ulertu behar izanez gero. Azpiko estruktura du aipagai, mitoa kontatzen dugun aldiro aktualizatzen den estruktura. Itzulgarria da bigarren maila honi dagokion denbora-moldea, atzeragarria. Eta goitik behera irakurtzean ageri da, zutabez zutabe<sup>131</sup>, erlazio-paketez erlazio-pakete. “Mitema” izendatuko ditu Lévi-Straussek erlazio-pakete horiek, “fonema”, “monema” eta gisakoen antzeko funtzioa betetzen baitute estrukturan:

---

<sup>130</sup> *Ibidem*

<sup>131</sup> *Antropologia estrukturala*, 239. or.



Lehenbiziko zutabeak dakar arau sozialek baimentzen dituztenak baino senide-harreman intimoagoen ideia —gehiegizkoak dira Ediporen eta amaren arteko harremanak, Antigonaren eta nebaren artekoak—.

<p>Kadmo, bere arreba Europaren bila dabil, Zeusek bahitu baitu.</p> <p>Edipo, bere ama Jokastarekin ezkondu da.</p> <p>Antigonak, bere anaia Polinize ehortzi du, debekua bortxatuz.</p>	<p>Espartarrak sakailatzen ari dira. elkar</p> <p>Edipok bere aita Laios hil du.</p> <p>Eteoklesek bere anaia Polinize hil du.</p>	<p>Kadmok dragoia hil du.</p> <p>Edipok Esfingea sakrifikatu du.</p>	<p>Labdakos (Laiosen aita) = "herrena" (?)</p> <p>Laios (Ediporen aita) = "ezkertia" (?)</p> <p>Edipo = "oinhanditua" (?)</p>
---	--	--	---

Bigarren zutabeak, halaber, ahaidego-harremana hartzen du aintzat, baina alderantziz: ez gehiegizkoak baizik eta gutxiegizkoak dira erlazio horiek, debaluatuak, hondoratuak: Edipok aita hil du eta Eteoklesek anaia. Legearen muga gainditzen duen guraria genuke lehenbizikoan —larregi— eta maitasunaren aurkakoa den hilketa bigarrean —gutxiegi—.

Hirugarren zutabeak munstroen suntsitzea du aipagai. Ediporen eta Esfingearen arteko harremanak Kadmoren eta dragoiaren artekoa errepikatzen du. Gizakia Lurretik jaio ahal izateko suntsitu beharra dagoen munstro ktonikoa da dragoia.<sup>132</sup> Gizakiak Lurretik agerrarazi eta Tebas fundatzeko, Kadmo heroiak munstroa hil behar izan zuen; eta Tebasetik izurria uxatzeko, Edipok Esfingearen enigma asmatu eta, hortaz, berak suntsitu zuen Esfingea.

<sup>132</sup> *Ibidem*, 142. or.

Hirugarren zutabe honen gai nagusia gizakiaren eta Lurraren arteko harremana litzateke. Eta mitoak gizakiaren autoktonia ukatuko luke; hau da, gizakia Ktonosetik edo Lurretik bera bakarrik jaio ahal dela gezurtatuko luke. Eztabaida traumatiko baten oihartzuna dugu hemen: gure espezieak Lurrean duela jatorria ziotenen eta gutako bakoitza gizon baten eta andre baten umea dela aldarrikatzen zutenen artekoa.

Laugarren zutabean, azkenik, tente ibiltzeko zailtasuna dugu. Mito askok irudikatzen dute Lurretik jaiotako gizakiak okerka ibiltzen direla sarritan, elbarri, herren edo balantzaka. “Oin odoldua” edo “Oin zauritua” deitzen zaie. “Oin hanpatua” esan nahi omen du Edipo izenak. Herrena zuen aitona Labdakos, dinastiaren fundatzailea. Eta ezkertia, okerra, bortxatzailea, aita Laios. Beraz, giza autoktoniaren iraunkortasuna genuke laugarren zutabe honetan, Labdakos, Laios eta Edipo ezin baitira zuzen ibili.

Oposizio simetrikoen bidez, mitoak erakutsiko luke intzestua senideen arteko hilketari dagokiola, autoktoniari ihes egiteko ahalegina autoktonia lortzeko ezintasunari bezala. Parrizidioak intzestua dakar, munstroa hiltze heroikoak makurkeria dakarren bezala. Gehiegikeria eta gabezia estrukturalki daude loturik.

Lévi–Straussen ustez, gizakiaren jatorria da Ediporen mitoaren kezka nagusia. Octavio Pazek duda hau adierazten du: “oin hanpatu” esan nahi ote du Edipo hitzak —gehienek uste bezala—, ala “oinen enigmaren erantzuna ezagutzen duen hura”? Esfingeak galdetu baitzuen: zein da goizez 4 hanka dituen izakia, eguerdian 2 eta ilunabarrean 3? Erantzuna

“gizakia” da. Pazen iritziz, Esfingearen enigmak ere Lévi–Straussen hipotesia baieztatuko luke; alegia, hirugarren eta laugarren zutabeetako gaia gizakiaren jatorria dela.<sup>133</sup>

Lévi–Straussekin uste du Ediporen mitoak adieraziko lukeela giza autoktonian sinesteari uzten ari zitzaion gizarte grekoak egundoko zailtasunak zituela onartzeko gizakia gizon baten eta emakume baten elkartzetik datorrela. Ezinezkoa zitzaion autoktonian sinestea, eta aldi berean ezinezkoa zitzaion gurasoengandik gatozela sinestea. Gizakiak ez daki nondik datorren.

Irteera eskaintzen dio mitoak eztabaidari, sinbolo–sistema baten bidez, logikako eta matematikako sistemen antzera diharduena. Lévi–Straussi esperientziak erakutsi dio mitoaren aldaera guztien multzoa mitemetan sinplifikatu daitekeela, eta azkenik lege estrukturaletan atxiki.<sup>134</sup>

Hori bai, mitoak ez du ez jatorrizko edo egiazko bertsiorik, ezta azalpen definitiborik ere. Bertsio guztiak dira mitoaren parte. Etengabe transformatzea da mitoaren zentzua. Eta mito jakin bat behar bezala ulertzeko, ahal adina aldaera jaso behar dira. Lévi–Straussen ustez, Edipori buruzko Freuden azalpena edo Lévi–Straussen beraren irakurketa estrukturalista ez dira Ediporen mitoaren beste bi aldaera baino, Homerorena edota Sofoklesena bezalaxe. Guztien sinesgarritasuna da antzekoa.

---

<sup>133</sup> *Claude Lévi-Strauss o el nuevo festín de Esopo*, 31-32. orr.

<sup>134</sup> *Antropología estrukturala*, 144. or.

Mitoaren etengabeko transformazioan, bada aldatzen den zerbait eta bada irauten duen beste zerbait. Adibidez, Freuden interpretazioan desagertu da autoktoniaren eta gurasoen artean aukeratu beharra. Ordea, Lévi–Straussek dioenez, «[...] arazoa betiere ulertzea da ea nola jaio daitekeen *bat birengandik*: Nolatan gertatzen da guk guraso bakar bat ez edukitzea, baizik eta ama bat, eta gainera aita bat?»<sup>135</sup>

## MENDEBALDEZENTRISMOA

Lévi–Straussentzat zein Txillardegirentzat, aurrerapena da eurozentrismoaren mitoetako bat.<sup>136</sup> Ez dago zalantzan jartzerik elektrizitate–tresnak eta autopistak aurrera doazela. Horrek ez du esan nahi geure bizimodua eta izaera, geure balioak, “primitiboak” baino sakonagoak eta ederragoak direnik. Aitzitik: askotariko bizimoduak babestu beharko lirateke, askotariko erritmoak, ahalik eta jenderik gehienak izan dezan komeni zaion tribua bilatzeko aukera.

Eritasuna da Mendebaldezentrismoa: historiako txikiziorik negargarrienak eragin ditu eta eragiten jarraitzen du, zuzenean zein zeharka. Mendebaldeko —Parisek, Madrilek, Londresek eta, oro har, inperialismoak— bestelako kulturak geure irizpideen arabera baloratzeko grina, geure bikaintasunera hurbiltzen den ala ez erabiltzea irizpidetzat geu ez bezalakoak direnak etiketatzearen, umekeria barregarria litzateke, espainolek Ameriketara egindakoa eta antzekoak ez bagenu.

---

<sup>135</sup> *Ibidem*, 143. or.

<sup>136</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 74. or.

Lévi–Straussek gogorki azpimarratu du, eta Txillardegik garbi aldarrikatu: ez zen aurkikuntza izan, are gutxiago elkar aurkitzea, ezta konkista ere, inbasioa eta genozidio latza izan zen. Bai Lévi–Straussentzat, bai Txillardegirentzat, historia osoko katastroferik lotsagarriena. Haitin eta Santo Domingon ehun mila indiar bizi ziren 1492. urtean. «Mende bat geroago, ordea, ez ziren berrehun baino gehiago, eta gehiago hiltzen ziren Europako zibilizazioak sorrarazten zien nazkarengatik, baztangarengatik eta kolpeengatik baino».<sup>137</sup> Txillardegik ere nabarmendu zituen amerikar natiboen kopuruak espainolak iritsi zirenean eta handik berrogeita hamar edo ehun urtetara. Sarraski itzela.<sup>138</sup>

Bestelakoa bere horretan ulertzen saiatu eta begirunez hartu beharrea, gizakiaren alderik ankerrena da desbestelakotu eta geureari berdintzeko nahikeria, eta horretan Mendebaldeko ez dugu munduan parekorik, ez horixe.

Lévi–Strauss etnografoak honela ikusten du Etnografia: Mendebaldeak hainbat eta hainbat hizkuntza eta herri suntsitu zituen. Zeharo birrindu ezin izan dituen kulturetako hondakinetara morroi bat bidaltzen du Mendebaldeak, bere kontzientzia–ausikiaren adierazle: etnografoa. Etnografia, konkistekin batera hasia, Mendebaldeko on erru sentimenduaren adierazpena litzateke.<sup>139</sup>

---

<sup>137</sup> *Tropiko tristek*, 81. or.

<sup>138</sup> *Horretaz*, 77-106. orr.

<sup>139</sup> “Sinistu ezinean iges egin beharra”, in *Jakin*, 1967, 20. or.

## **BESTELAKOA ULERTZEN AHALEGINDU**

Lévi–Straussek Filosofiari nolabaiteko nagusikeria sumatu ziolarik, bertan behera utzi eta Antropologiara jo zuen, desberdinarenganako begirunearen izenean nolabait. Filosofoek bezain ongi pentsatzen dute “basati” deituriko gizakiek, filosofoek bezain sakon. Haien logika, ordea, ez zaio abstraktuari aplikatzen, zentzumenen bidez jasotakoari baizik: “konkretuaren logika” deritzo Lévi–Straussek. Baina pentsatu, beti eta nonahi pentsatu izan du antzera gizakiak.

Nolanahi ere, kulturen eta balioen erlatibismoa absolututzat hartzeak kritika oztopatzen du. Guztiak berdin balio badu —buru hainbat aburu, eta abar—, ezin ezer gaitzetsi edo hobetsi. Lévi–Straussek eta Txillardegik, haatik —Montaignek, Montesquieuk, Diderotek, Rousseauk, Edward Sapirrek eta Benjamin Lee Whorfek bezala—, bestelako kulturak apalki eta begirunez ulertzen saiatzea aldarrikatzen dute, eta kritika norberaren kulturari egitea, ahal bezain zorrotza. Espainolekin baino are kritikagoa da Lévi–Strauss frantsesen harrokeriarekin. Idazle biei zaizkie susmagarriak unibertsalismoa eta globalizazioa, maiz egiaztatu baitute itxurazko unibertsalismoa ez dela inperialismoaren mozorroa baino.

Kultur erlatibismoa abiapuntu, Mendebaldeko jendea izutzen duten haragijaleentzako ere aurkitzen du Lévi–Straussek zuribide bat: etsaiaren edo agintariaren okela jaten dute, haren indarra bereganatzearen; zati txikiak betiere, eta bestelako janariekin nahasirik. Aldiz, bruselarraren esanetan, haragijale horiek ez lukete onartuko, nazkagarri litzaieke,

eroekin eta eriekin egiten duguna geurean: gizarte goitikatzailea da gurea, bere baitan har ez dezakeena hesietarik kanpora goitikatzen baitu.

Hain hartzen zituen Lévi–Straussek desberdintasunak begirunez, xehetasun bereziak aurkitzen baitzizkien “fromage” eta “cheese” hitzei. Talentu handiz kontatu digu etnologoak erlatibismo linguistikoari dagokion sentimendu argi hori:

«Frantsesek eta ingelesak elikagai beraren izenari balio fonetiko heterogeneoak eratzikitzen dizkieten momentu beretik, terminoaren posizio semantikoa ez da jada inolaz ere berbera. Niretzat, nire bizitzako zenbait denboralditan ingelesa bakarrik hitz egin baitut, halere elebiduna izan gabe ordea, *fromage* eta *cheese* hitzek gauza bera esan nahi dute noski, baina zenbait xehetasun berezirekin; *fromagek* nolabaiteko astuntasuna gogoratzen du, materia gantzutsua eta apur bat papurgarria, zapore lodia. Aparteko hitz egokia da guringileek ‘pâtes grasses’ deritzatenak izendatzeko; aldiz, *cheese* hitzak, arinagoa, freskoa, pixka bat garratza eta hortz artetik ihes bezala egiten duela (ik. aho–zuloaren forma), berehalaxe gogora ekartzen dit gaztanbera. Beraz ‘gazta–arketipoa’ niretzat ez da berbera, nola eta frantsesez ala ingelesez pentsatzen badut».<sup>140</sup>

Euskaraz mintzatu edo gaztelaniaz mintzatu, iritzi politiko desberdinak ateratzen zaizkiola esan du berriki Arantxa Urretabizkaiak irratian.

## **AMERIKAKO MITOAK ETA GIZON ZURIA**

Zein ote den gizakiaren lekua naturan, horra Lévi–Straussen beste kezka nagusi bat. Naturatik kulturara igarotzea da mitoen gai garrantzitsuetako

---

<sup>140</sup> *Antropologia estrukturala*, 75. or.

bat; Hego Amerikan, ikusi dugunez, suari lotzen zaio, sukaldeari zehazki, gordinetik egosira igarotzeari. Sua litzateke bitartekari behinena, zeruaren eta lurraren artean. Ipar Amerikan, berriz, naturatik kulturarako jauzia biluzitik jantzira igarotzeari lotu izan zaio, soinekoen eta apainduren asmatzeari.

Lévi–Straussentzat, bestalde, Amerikako mitoek frogatzen dute bertako indigenak gertu zeudela gizon zuriari abegi egiteko; jakina denez, Historiako enigma handienetariko bat da aztekek Hernán Cortési egindako ongi etorri ikusgarria. Lévi–Straussesek bertako mitologia ikertu, eta nabaritu zuen indigena haien gogo prest zegoela haurride zuriarekin elkartzeko. Ezaguna da zelan erantzun zuten espainolek: sarraskia, genozidioa, txikizioa, egiazko fedearen izenean. Betiko desagertu dira espainolak iritsi aurreko kulturak. Munduak asko galdu du. Ergelkeriaren eta heriotzaren formak dira monokordea eta uniformeak. Biziak berez nahi du askotarikoa; barietatea berez da ona.

Zentzu horretan, esan liteke Lévi–Straussen eta Txillardegiren pentsaerak holografikoak direla: zatia osotasuna da, edozein gizartek barnebiltzen eta adierazten du gizatasun osoa, gizartetasun orokorra. Lévi–Straussentzat zein Txillardegirentzat, hobe aski, ezen ez handi.

## **FRANTZIAKO HIZKUNTZA TXIKITUAK**

Lévi–Straussesek, ehun urteak hurbil zituela, Frantziako hizkuntza ez ofizialak gutxiesten zituen manifestu bat izenpetu zuen. Haren obra



osoaren izpiritua eta letra gezurtatu zuen horrela, antropologoaren lanaren bultzatzaile nagusietakoa izan baita manifestuari darion grina etnozidari aurre egiteko betebeharrak. Hauxe dugu Txillardegiren tankerako jende fin askoren susmoa: Frantziako Akademiako jakobino zentralistek —hala nola Jean-Luc Marion, Jean D’Ormesson, Giscard d’Estaing edota Max Gallo— modu iruzurtian baliatu zuketenen ordurako ehun urteak beteak zituen Lévi-Straussen ahulezia manifestua sinarazteko. Tai gabe baitabil ekinean *la grandeur*.

## HIRU BILAKAERA

Lévi-Straussekin batera, Benjamin Lee Whorf hizkuntzalaria eta Jacques Lacan psikoanalista izan ziren *Hizkuntza eta pentsakera* liburuko erreferentzia nagusiak. Kapitulu bana eskaini zien. Baina liburua argitaratu eta hurrengo urteetako Txillardegik ez zituen berdintzatatu. Whorfen erlatibismoari dagokionez, ikusi dugunez, irmoki aldeztetik zalantzak erakustera igaro zen. Bakanak izan ziren, berriz, Lacani buruzko aipamenak; ia erabat desagertu zen Txillardegiren obratik. 1975ekoa izan zen azkenekoa: oroitarazi zuen Lacanek ezkertiar ofizialei “progresista geldikor” deitzen ziela.<sup>141</sup> Txit bestelakoa izan zen Lévi-Straussenganako jarrera: egundo ez zituen laudorioak eten.

---

<sup>141</sup> TXILLARDEGI, *Gertakarien lekuko*, Haranburu, Donostia, 1985, 110. or.



# LACAN: INKONTZIENTEA HIZKUNTZA GISA DAGO EGITURATUA

## EUSKARAREN ALDEKO LACAN?

Lévi–Strauss eta Lacan oso lagunak ziren. Nabarmena da Lévi–Straussen eragina Lacanen pentsamenduan. Alderantzizkorik ez zen gertatu, ordea. Lévi–Straussekin zioenez, Lacani ez zion piperrik ere konprenitzen. Euskaldunok Txillardegiri zor diogu psikoanalista frantsesaren ideia korapilatsuak behar bezala ulertzeko eta azaltzeko lehenbiziko entsegua.

*Hizkuntza eta pentsakerak* badu “Lacan eta psikoanalisia, bide beretik” izeneko atal bat; estrukturalismoaren bidetik, alegia. Euskal Herria psikoanalistaz gainezka dugu egun, batez ere hiriburuak, eta horien artean nagusi dira lacandarrak. Mugimendu ezkertiarretakoak oroitarazten dituzte beren arteko xextrek eta eszizioek. Zenbait lacandar euskalduni zer pentsatua eman dio ETAREN sortzailea eta Lacanen ideien eta irakaspenen lehen euskal hedatzailea pertsona bera izateak.

Lehen begiratuan ez da ondo ikusten zertan den Lacani buruzko atala, nola erabil daitekeen borroka ideologikoan Lacanen pentsamendua euskararen alde. Kontua da liburua idatzi zuenean, 60ko hamarraldiko bigarren zatian, Txillardegik ETA eta ezker abertzalea ikusten zituela “sozial–inperialista” zeritzen marxista espainolistez infiltraturik. Infiltratu horiek, Marxen nazioartekotasunaren aitzakian, mugimendu abertzalea

*espainolizatu* eta espainolen esku abandonatzeko joera zuten. Gaztelania hutsean zeuden Txillardegik ETAn dimisioa eman aurreko *Zutik!* guztiak.

Txillardegirentzat, klase-borrokak ala nazio-borrokak behar ote duen lehentasuna —ezker abertzaleko betiko eztabaida—, erantzuna argia da: nazio-borrokak; eta euskararen aldeko borroka da funtsean.

Halatan, Freud eta Lacan erabili zituen gazte euskaldunen artean gero eta indartsuago zebilen marxismo dogmatikoaren aurka, euskara gutxiestera zeramana.

Dena den, Lacani buruzko orrialdeak irakurri ahala, ematen du aztergai psikoanalitikoek liluratu eta harrapatu egiten dutela Txillardegi. Haren azalpenek marxisten aurkako polemika ahaztu, eta sorgindurik erakusten dizkigute psikoanalisten ideiak inkontzienteari, ametsei, metafora, metonimia eta sinboloari buruz, zer bide darabiltzan desira inkontzienteak mozorrotu eta ametsetako irudi izatera heltzeko, etab.

## **OINAZE PSIKOLINGUISTIKOA**

Euskaltzaletasunak egin zuen Txillardegi abertzale, eta abertzaletasunak eraman zuen politikara. Euskararen auzia ez baitagokio soilik Hizkuntzalaritzari edo Filologiari; Politika eta Soziologia ere inplikatu beharra dago.

Txillardegiren ustez, Euskal Herria xede, Soziolinguistika da jorratu beharreko jakintzetako bat; Psikolinguistika ez da hain garrantzitsua. Lehentasuna du elebitasunaren eta diglosiaren arteko aldea ondo

bereizteak, elebitasunaren iruzurra salatzeak, pairatzen dugun diglosia ahal bezain zorrozki diagnostikatzeak eta gainditzeko tresnak prestatzeak. Ez da hain premiazkoa diglosia horrek eragiten dituen buru-eritasun partikularretan jartzea fokua. Are gehiago: irudi luke Txillardegik, diglosiak eragiten dituen arazo psikolinguistikoak ez lituzkeela bat-banaka sendatu nahi; aukeran hobe gasolina gisa erabilia, euskararen aldeko borrokan. Dagoena onartu eta ahal bezain zorionsu bizi beharrea, hobe amorrua eta sumina talismanak bailiran zaintzea, bultzatzaile erabakigarriak izan baitaitezke egoera zuzenagoak ekartzeari begira.

Hori saiakeretan eta jarduera politikoan. Literaturan bai, Txillardegik erakutsi eta nabarmendu egiten ditu Exkixu, Putzu eta Antton Ihartzegarai bezalako protagonisten arazo eta oinaze psikolinguistikoak. Hizkuntzaren kontzientzia zorrotza dute, mindua. Exkixu etakide euskalduna, adibidez, ETA barruan gaztelaniaren alde jokutzen dutenak garbitzearen alde dago. Antton Ihartzegarairen hitzak, espetxetik irten eta, Ixaskun arrebarekin, aireportura bidean, taxilaria euskararen ulertezinaz kexu delarik: «Hil arte piztia bitxiak izango, lokalismo xixtriñen jopu...».<sup>142</sup>

Badugu, hala ere, esan bezala, salbuespen bitxi bat saiakeran: *Hizkuntza eta pentsakera* liburuan Lacani eskaintzen dizkion orrialdeak.

---

<sup>142</sup> TXILLARDEGI, *Labartzari agur*, Elkar, Donostia, 2005, 18. or.

## HIRU INKONTZIENTE, GUTXIENEZ

Freudek “inkontziente” erabili zuen; Saussurek, Benjamin Lee Whorfek eta Lévi-Straussek ere bai; orobat Lacanek. Ez zuten zentzu berean erabili, haatik, “inkontziente” hitza. Freudez, Saussurez, Whorfez, Lévi-Straussez eta Lacanez dihardu Txillardegik *Hizkuntza eta pentsakeran*. Komenigarria izango da, horrenbestez, hiru inkontziente horiek zerk bereizten eta definitzen dituen zehaztea. Batetik, Freuden inkontzientea eta estrukturalistena alderatuko ditut; eta, bestetik, Freuden inkontzientea eta Lacanena. Ez dugu ahaztu behar Lacan Freuden jarraitzaile estrukturalista dela; hots, Lacanen iritziz, Freuden giltzarria Saussureren eta Jakobsonen Hizkuntzalaritzan bilatu behar da. Txillardegi:

«Freud-zaleak bi joeratan zatitu dira. Alde batetik, psikanalista «klasikoak» daude, edo «ofizialak» (Freud-en teorian pulsio-joko eta barne indar-sistema antzeman uste dutenak); eta bestetik psikanalista «estrukturalistak» daude, Lacan-en inguruan (Freud-engan sinbolismo-eskola eta hizkuntzalaritza berria antzematen dutenak). Denen habe nagusia, hori bai, Freud-en inkontzientea».<sup>143</sup>

---

<sup>143</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 86. or.

## FREUDEN INKONTZIENTEA ETA INKONTZIENTE ESTRUKTURALISTA

Freuden psikoanalisiak eta estrukturalismoak desberdin irudikatzen dute giza psikea: aurrena, desberdina delako Freuden psikoanaliaren eta estrukturalismoaren testuinguru teorikoa. Psikoanalisi teoria psikologiko bat da. Adibidez, haurren esperientziek nortasunaren eraketan duten eragina aztertzen du.

Estrukturalismoa, berriz, hizkuntzalaritzak jarri zuen abian, eta antropologiak, semiologiak eta epistemologiak garatu dute, besteak beste. Nortasun partikularren gorabeherak ahaztu eta geure solasaldi sakabanatuen azpian dagoen sistema inkontzientea aurkitzen, aztertzen eta ulertzen ahalegintzen da; jendearentzat oharkabeak diren ezkutuko egiturak ikertzen ditu. Estrukturalistentzat, azpiko estruktura inkontziente horiek antolatzen dituzte fenomeno kulturalak eta sozialak.

Hurrena, eta inkontzientearen izaerari berari dagokionez, Freuden ustez, inkontzientea —nagusiki— ikuskizun traumatikoz eta desira erreprimetuz dago osatua: kontzientziari eskuraezinak zaizkion pentsamenduz, grinez eta oroitzapenez. Horiek osatzen dute gizakia den icebergaren itsaspeko zati erraldoia. Txillardegik dioenez,

«Gure barnea «iceberg» baten antzekoa da: parte txikia agirian dago, guk «ezagutzen» dugun nitasunaren parte da. Eta, ur azpian, beherago, parte handia, agirian dagoena baino bederatzi hamar aldiz handiagoa: inkontzientea, «ezagutzen» ez ditugun eragile eta desira izkutuena».<sup>144</sup>

---

<sup>144</sup> *Ibidem*, 89. or.

Hortaz, batez ere esperientzia indibidual zokoratuek osatutako inkontziente pertsonalaz dihardu Freudek. Errepresioa, sublimazioa edo proiektzioa bezalako defentsa-mekanismoei esker, inkontzientea eskuraezin bilakatzen da, eta, horrela, kontzientzia babestu egiten da mingarriegiak edo mehatxagarriegiak izan dakizkiokeen eduki inkontzienteetatik. Freudentzat, inkontzientea dinamikoa eta aldakorra da.

Estrukturalisten inkontzientea, kontrara, aski egonkorra da. Egitura bitarrek antolatzen dute. Unibertsalak dira egitura horiek, gizarte oren oinarrian aurkitu daitezke eta finkoak dirudite. Pentsamendua eta jokabidea moldatzen duten egitura mental gordeetan zentratzen da inkontziente estrukturalista, bereziki hizkuntzaren eremuan. Pentsamenduaren eskemekin lotu daiteke, eredu sinbolikoekin eta egitura kognitibo inplizituekin. Baita, sakonkiago, gizakiak mundua taxutzeko eta ordenatzeko duen beharrarekin ere. Txillardegiren hitzetan:

«Taxutu-behar gorri hau inkontzientea da; eta taxutzeko erabiltzen ditugun moldeak edo eskemak ere erreparaezinak edo inkontzienteak zaizkigu. Gizonaren pentsa-moldea, beraz, funtsean, inkontzientea da».<sup>145</sup>

Hirugarrenik, desberdinak dira Freudek eta estrukturalistek inkontzientean barneratzeko darabiltzaten metodoak. Psikoanalisiak asoziazio askea, ametsen analisia eta lapsusen eta huts egindako ekintzen interpretazioa erabiltzen ditu, besteak beste. Metodo horien

---

<sup>145</sup> *Ibidem*, 67. or.



bidez, jokabide kontzientean eragina duten irrika eta bultzada ezkutuak azaleratu nahi ditu.

Ostera, analisi linguistikoa, semiotikoa eta antropologikoa darabiltzate estrukturalistek azpiko egitura inkontzienteak argitara ekarri eta ezagutzeko. Drama emozionala mehetu, eta eskema errepikariei, arau implizituei eta elementuen arteko harremanei erreparatzen diete gehiago.

Azkenik, desberdin ikusten dute psikoanalisiak eta estrukturalismoak inkontzientearen eginkizuna giza jokabidean: psikoanalisian, inkontzientea lotzen zaie bulkada dinamikoei, gatazkei eta zeraren, niaren eta superniaren arteko tentsioei eta bakealdiei. Inkontzientea ezagutzea funtsezkoa da sintoma neurotikoak eta nortasunaren garapena ulertzeko.

Aldiz, estrukturalistek egiturez eta araez osatua ikusten dute inkontzientea. Estrukturalisten inkontzienteak hizkuntza, pentsamendua eta jokabide sozialak taxutzen eta antolatzen ditu, eta ez du zerikusirik handirik barne gatazka psikologiko sakonekin.

## **FREUDEN INKONTZIENTEA ETA LACANENA**

Psikoanalista den aldetik, Lacanen inkontzienteak badu Freudenaren kutsua. Freuden oinarri teorikoa heredatu zuen. Haatik, estrukturalista ere bada Lacan —Saussure, Jakobson eta Lévi-Straussen ildokoa—, eta estrukturalismoaren argitan berrinterpretatu eta eraldatu zuen Freuden inkontzientea. Zerk bereizten ditu Freuden inkontzientea eta Lacanena?

Lehenengo eta behin, Freudek giza psikismoa hiru instantzian zatiturik ikusten zuen: zera, nia eta supernia. Eta zera da bulkada eta desira inkontzienteen gordailua. Nia, berriz, zati kontziente eta arrazionala. Eta superniak gizarteko arau moral barneratuak biltzen ditu.

Lacanez Hizkuntzalaritzaren terminologia baliaturik berrinterpretatu zuen Freuden eredu hori. "Instantzia" barik "erregistro" darabil, eta "zera", "nia" eta "supernia" beharrez "erreal", "imajinarioa" eta "sinbolikoa". Inkontzientea, Freudek ez bezala, erregistro sinbolikoan kokatzen du nagusiki, hizkuntzaren eta kulturaren eremuan. Zentzua eta identitatea eraikitzeke orduan ere zeregin erabakigarria dute Lacanenean hizkuntzak eta lege sinbolikoak.

Bigarrenik, Freudek hizkuntzari berebiziko garrantzia eman zion, baina ez ordea Hizkuntzalaritzari. Lacanez adinakorik ez, bederen. Freuden ustez, inkontzientea ikuskizunez eta sinboloz osatua dago. Urruti gelditu zen Lacanez bezala aldarrikatetik inkontzientearen funtsezko hizkuntzatasuna.

Zentzu horretan, Txillardegiren esanetan, «aurrerago doa Lacan»<sup>146</sup>: inkontzientearen teoriaren bihotzean kokatzen du hizkuntza. Inkontzientearen kontzepzio lacandarra zentratuago dago dimentsio linguistikoan eta lege sinbolikoan Freuden kontzepzioa baino. Lacanen inkontzientea hizkuntza gisa dago egituratua, eta prozesu psikikoak adierazleen jolasen eta jokoen eraginpean daude. Garbi nabarmendu du

---

<sup>146</sup> *Ibidem*, 99. or.

Lacanekek adierazleek eta e-  
struktura linguistikoeek inkontzientearen eraketan duten eginkizuna. Zehaztuko dugu aurrerago.

Azkenik, Freudek eta Lacanekek ez dute desira berdin ikusten. Freudek desira zeraren bulkadei eta behar biologikoei lotzen die. Tentsio gogorrek eta desira erreprimituak sortzen dituzte instantzia psikikoen arteko gatazkek, bereziki zeraren eta supeniaren artekoek. Berezkoa dute barruko irrika zapalduak matxinatzea, gizartetik datozkigun baina irentsiak eta geureganatuak dauzkagun arauen eta exigentzien aurka.

Lacanekek, o-  
stera, azpimarratzen du giza desira maiz baldintzatzen dutela hizkuntzak eta egitura sinbolikoe-  
k. Oinarrizko gabezia bati lotzen dio Lacanekek desira. Gure desira zapalduak, Txillardegiren hitzetan, «maitasun-eskaera nagusiaren inguruan mordo nahasia osatzen dute gizonaren barruan».<sup>147</sup> Gizakia etengabe ahaleginduko da oinarrizko falta hori asetzen, maitasun-eskaeraren erantzuna bilatzen. Hala ere, nahikunde inkontzientea inoiz ez da zeharo aseko. Egiturazko falta horrek eutsiko dio desirari martxan.

## ISPILUA ETA NI

Ispiluaren aroarena da Txillardegik nabarmentzen duen Lacanen beste kontzeptu garrantzitsu bat.<sup>148</sup> Arrazoi guztiarekin, bestalde, Lacanen teoria psikoanalitiko osoan baititu inplikazio sakonak. Ispiluaren fasea

---

<sup>147</sup> *Ibidem*, 96. or.

<sup>148</sup> *Ibidem*, 90-91. orr.

funtsezkoa da norbanakoaren garapen psikikoan, niaren eraketaren hasiera markatzen baitu, eta gorputzaren irudi idealizatuaren eta errealaren arteko dinamika konplexua abiarazten.

1949an erabili zuen Lacanek lehenbizikoz, "Ispiluaren estadioa Niaren funtzioaren formatzaile gisa" izeneko mintegian. Oihartzun egiten die Lacanen beste kontzeptu batzuei: identitatea, ideala, ilusioa, errealia eta sinbolikoa, etab.

Freudek ez zuen azaldu zelan sortzen den nia. Lacanek ispiluaren aroari lotzen dio. Gehienetan, sei hilabete eta hemezortzi hilabete bitartean gertatzen da.

Haurra beste edozein animalia-kume baino gordinago eta zaurgarriago jaiotzen da. Bere baldarkeriak helduen irria eta errukia eragiten ditu. Lacanek umetxoa dandarrez dakusa etxeke korridoreetan: ezin zutitu, ezin nahi duena eskuratu. Jadanik titia kendu dioten arren, berbabakoa da oraindik, eta hara, norbait sumatu du gaur aurrez aurre. Sarritan igaro izan da ispiluaren aurretik, baina orain, lehen aldiz, bere isla bertan ikusi eta bera dela ohartu da. Ispiluko irudiari begiratzen dio, ostera bere gorputzari. Irri egiten du. Bozkarioz onartzen du normalean bere irudia, bere burua. Kezkatzekoa litzateke serio eta larri hartuko balu.

Haurra ez da bere irudia ezagutzera mugatzen; gainera, irudi horrekin identifikatzen da. Bere irudi osoa, bildua, bakarra dakusa ispiluan. Kanpoan ikusten du, proiektzio batean bezala, eta horrek bere ordu arteko gorputz-esperientzia zatikatua gainditzen lagunduko dio. Orain arte anabasa izan baita umea, organo-multzo iheskor kontrolagaitza,

askotariko jario estrainioa, atal kontagaitzen zirimola, batasun barik, ziurtasun barik, irudi barik. Aitzitik, hemendik aurrera norbait dateke, badu makulua, badoa gizarterantz, komunikaziorantz: gerora izango dena oraintxe ari da igartzen. Ispilurik gabe, Lacanen esanetan, ez dago hizkuntzarik, autismoaren urrutia baino ez. Gerora ere, beste norbaitekin identifikatzeak bere kabuz egin ez ditzakeenak egitea ahalbidetuko dio.

Nortasun bat izango du aurrerantzean. Irudimenezkoa, noski; Lacanek dioenez, identitate oro baitagokio irudimenari. Identitatea ortopedia da beti, baina aldi berean beharrezkoa, zuzen samar ibili ahal izateko. Giza identitatea sortzen da kanpoan ikusiriko irudi batek umearen organismo kaotikoa harrapatu, bereganatu eta biltzen duenean. Ez dago identitate faltsurik, ez baitago benetakorik. Nortasun oro baita protesi, emendio. Arbitrariotasunean oinarrituriko ortopedia, bestalde, testuinguru honetan oroitu beharra baitago lehenbiziko atalean aipatu arbitrariotasunaren eta identitatearen arteko lotura estrukturalista.

Edozelan ere, identifikazio une horrek niaren eraketaren hasiera markatzen du. Nia, Lacanentzat, ez da entitate egonkor eta koherentea, baizik eta prozesu dinamikoa, etengabe aldatzen ari dena, eta aho biko ezpata: identitateak, euforiarekin batera, arazoak erakarriko ditu. Ispilua lagungarria da norberaren sentimendua eraikitzeke orduan, baina tentsio psikikoak ere sortzen ditu, irudi idealizatuaren eta gorputz errearen arteko arrakalarengatik. Lacanek azpimarratzen du ilusio bat dela ispiluaren irudian hautemandako batasuna, gorputzaren errealitatea zatikatua eta osatugabea baita. Horrek tentsioa sortzen du irudimenezko

idealaren eta bizitza errealaren artean, ni idealaren eta benetan naizen anabasaren artean.

Eta hemen, Txillardegik ederto ikusi duenez, Freud apur bat ahaztu eta Budarengana egingo du Lacanek: identitatea eta nia, esan bezala, irudimenezkoak dira beti, alegiazko protesiak:

«Budismoaren tesirik ezagunenak berrituz, Lacan-ek nahasketa horretan ikusi uste du alienazio guztien gakoa: gizonak ez daki «ni» hori ez dela «adierazle» bat baizik; eta «adierazia»ri ezartzen zaizkion batasuna eta gotortasuna, alegiazkoak direla. «Ez jakite» hau, alienazio hau, orain dela 2.500 urte salatu zuen Budha-k. Freud-engandik, Lacan Budha-gana doa; eta badaki: «Il n'est que de recourir aux données traditionnelles que les bouddhistes nous fourniront... pour reconnaître dans cette forme de transfert l'erreur propre de l'existence» (*Ecrits*, I, 192)».<sup>149</sup>

AEBetako psikoanalisi humanistak nia sendotzea duen bitartean helburu, Lacanen artatze psikoanalitikoak nia disolbatzea ekarriko du. Descartesen ustez, niak sortzen dituen ilusioak desegin behar dira. Budaren, Lévi-Straussen eta Lacanen iritziz, berriz, nia bera da desegin beharreko ilusioa.

Hobeki uler dezakegu orain Lacanen triada: giza subjektuan irudimenezkoa, sinbolikoa eta errealak ditugu aldi berean. Irudimenezkoa ispiluaren aroari dagokio. Sinbolikoa hizkuntzari eta logikari dago lotua. Eta errealak, azkenik, irudimenezkoa pitzatu eta sinbolizazioari ihes egiten diona litzateke.

---

<sup>149</sup> *Ibidem*, 93. or.

## METAFORA ETA METONIMIA

Txillardegik alderatzen ditu, batetik, ametsen sustrai inkontzientea eta giza esperientzia. Eta ez bata ez bestea ez dira ikaragarri oparoak edo zabalak.

Eta, bestetik, ametsetako ageriko irudiak, ezin ugariagoak, eta giza hizkuntza piloa.<sup>150</sup> Originala bezain esanguratsua da Txillardegiren konparazio hori. Hain zuzen, estrukturalismoaren lanik garrantzitsuenetakoa izango da ugaritasun itxuraz kaotikoen azpiko ordena egituratu ulergarria atzematea.

Urria da ametsen oinarri inkontzientearen edukia: Txillardegik, Freuden eskutik, aipatzen ditu gorputza, biluztasuna, gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak, jaiotza eta heriotza.<sup>151</sup> Hainbat adierazlek sinboliza dezakete eduki inkontziente berbera. Zakila, esaterako, giltza, farola, aterki edo kuiatxo gisa ager daiteke ametsen; alua, berriz, hautsontzi, kobazulo, ahur edo muskuilu itxurapean; aita bilaka liteke lehoi, errege, dorre... Eta alderantziz: amets-irudi bakar bat hainbat sustrai inkontzienteren adierazpen izaten da. Ontzia, adibidez, haurtzaroko sehaska, edota alua.<sup>152</sup>

Freudek dio inkontzienteak kondentsazioa eta desplazamendua erabiltzen dituela, autokontrolaren zentsura engainatu eta kontzientzian

---

<sup>150</sup> *Ibidem*, 95. or.

<sup>151</sup> *Ibidem*

<sup>152</sup> Txillardegik “emakumetasuna” idazten du “alua” beharrean; kontuan hartu behar da frankismoaren zentsurak, azken urteetako izan arren, Juan Benet eleberrigileari “beso” —muxu— debekatu eta “ósculo” idatzarazi ziola, eta “sobaco” beharrean “axila”. Eta euskaraz ederto zekien zentsore bat baino gehiago genuen. “Larresoro” da, badaezpada ere, *Hizkuntza eta pentsakeraren* azalean ageri den autorearen izena, ez “Txillardegi” edota José Luis Álvarez.

agertu ahal izateko. Lacanek, Jakobson hizkuntzalari estrukturalistaren eraginez, metafora erabiliko du kondentsazioa beharrean, eta metonimia desplazamenduaren ordeiz.

Lacanen esanetan, metaforaren eta metonimiaren bitartez artikulatzen denean hartzen du zentzua adierazleen kateak. Txillardegik: «[...] inkontzientea metaforaren eta metonimiaren jopu da; ez Logikarena».<sup>153</sup>

Figura erretorikoa den aldetik, metaforan hitz bat erabiltzen da beste baten antzeko esanahiarekin, analogia tarteko. Joxean Artze: “Ama hil zait, lanak itota”. Txillardegik “zeru” beharrean “urdin” esatea aipatzen du. Justizia balantzaren bidez irudikatzea ere metafora da.

Metonimian ere hitz batek beste bat ordeizten du, albokotasuna eta hurbiltasuna lagun. Kausa erabil liteke ondorioaren ordeiz. Adibidez, obra beharrean, autorea: “Mari Luz Esteban irakurtzen ari naiz”; edota ekoizpenaren ordeiz, ekoizlea: “Heineken pare bat edan dut”. Erakundeak barik, erakunde horiek kokatuta dauden lekua aipatzea ere metonimia da: “Madrilek erreprimitzen gaitu”, “Bermeok irabazi du berriz ere arraunlarien liga”. Izen propioak dauzkagu aurreko adibide guztietan, baina ez da ezinbestekoa: “Odola eman zuen kausaren alde”. Metaforan bi terminoren arteko antzekotasun irudimenezkoa darabilgu; metonimian, oster, enpirikoa izaten da bi terminoen arteko erlazioa.

Hizketan, eta bizitzan, noduluak agertu ohi dira, opakak eta ulergaitzak. Freudek “inkontzientearen eraketak” izendatu zituen. 1957–1958ko

---

<sup>153</sup> *Ibidem*



seminarioa eskaini zien Lacanek. Horietako batzuek hutsuneak islatzen dituzte: lapsusak, huts eginiko ekintzak, izenen ahazteak eta nahasteak. Bestalde, txisteak, mintzamolde enigmatikoak, ametsak eta sintomak ere inkontzientearen eraketak dira. Nodulu horiek ulertzea eta askatzea da psikoanaliaren lana, inkontzientearen testua berreraikitzeke.

Inkontzienteak, hortaz, Lacanen esanetan, metafora eta metonimia darabiltza benetako desira edo erreprimituriko hitza aldi berean adierazteko eta mozorrotzeko. Mozorroa zor baitu beti zapaldua kontzientziara transferitzeak. Horregatik behar dira deszifratu ageriko adierazpenak zein transferentzia bera.

Ametsetan, desira erreprimitu gordeak hainbat irudi eta pasadizo erabil ditzake agerian azaltzeko. Txillardegiren ohar garrantzitsua:

«Lacan aurrerago doa. Eta, psikosien *sintometan* ere “adierazle” hutsak ikusten ditu. Eritasun psikologiko baten sintomak —dio— ez dira *berez* ezer; baina nahikunde inkontzienteen adierazle dira. “Sintoma hitza da”, dio Lacanek». <sup>154</sup>

Horrela, beste ñabardura bat erantsiko dio Txillardegiren Lacanek sintomari: kontzientzia argitik zokoratua izan den ezinezko desiraren maskara eta mezua ere bada. Adierazle den sintoma bereizi egin da zegokion adierazitik, eta «eritasun bihurtu da: eri denak ez du bere sintoma *ulertzen*. Hizkuntza arrotz batez iristen zaion hitza da». <sup>155</sup>

---

<sup>154</sup> *Ibidem*, 96. or.

<sup>155</sup> *Ibidem*, 97. or.

Baliabide psikoanalitikoak erabilirik bilakatu daiteke ulergarri hizkuntza arrotz hori. Sintoma, horrela, metafora zein metonimia gisa agertzen ahal da: adierazle bat agertzen da diskurtso edo bizitza kontzientean, jatorrizko adierazle inkontzientea ordeztzen duena. Nabarmen da gehiago Lacanenean adierazlea adierazia baino. Freudek adierazi edo esanahi gisa ikusten zuena ere estruktura bateko adierazle zaio Lacani.

Adierazleak dira agerikoak zein ezkutukoak. Eta bien arteko harremanaren ezustekoak pizten du adierazia eta zentzua. Eztarriko mina edo marranta izan liteke zakila zurrupatzeko desira erreprimituaren adierazpena. Agertu den adierazlea marranta da; eta jatorrizko adierazlea, horrela, agerikoaren esanahi edo zentzu bilakatzen da, atzekoz aurrera. Adierazle inkontzienteen adibideak, Lacanen obran: Aitaren Izena, "a" objektu txikia, Beste Handia, Ispilua...

Lacanentzat, adierazle baten ordeztze beste adierazle berri bat jartzean, irrika zapalduaren ordeztze marranta, kasurako, eta bigarrena lehenbizikoaren adierazlea izatera igarotzen denean, orduan sortzen da adierazia, esanahia, zentzua, intuizio gisako batek harrapatua. Lehenbiziko eta bigarren adierazleen arteko antzekotasun metaforikoak edo hurbiltasun metonimikoak pizten du zentzu hori. Ohiko begirada eta ulermen kontzientearentzat, zentzugabekeriak dira inkontzienteak darabiltzan metafora eta metonimia, adierazleak ez duelako ohiko esanahia, ez duelako zerikusirik zuzenik adierazitakoarekin.

Freuden amets batean, liburu bat idazteko asmoak adierazten zuen larrua jo nahi inkontzientea. Era berean, Freuden paziente batengan, irin

errearen kirats jasangaitz errepikakorrak —sintomak—, min ematen zion familia-haustura adierazten zuen, ezkutatzeaz batera. Poetikoa da desira zapalduaren eta adierazpen esplizituaren arteko harremana. Adierazleen arteko konexio metaforikoek eta metonimikoek ikusarazten diote psikoanalistari desira edo ikuskizun traumatiko zapalduaren eta sintomaren arteko erlazioaren zentzua.

Champollion bezala gaude hieroglifikoaren aurrean, adierazle enigmatiko batzuen esanahia deszifratu nahian. Edonola ere, ulermen kontzienteari harrapaezina zaio inkontzientearen hizkera osoa. Metaforaren eta metonimiaren ulertze egokia gorabehera, inkontzientea ezin da kontzientera erabat itzuli, kontzientea ezin da inkontzienteaz zeharo jabetu.

## **JOAN MARI TORREALDAIREN SOTANA FLOTATZAILEA**

Zailak dira Txillardegiren *Hizkuntza eta pentsakera* liburuko zenbait pasarte. Ulertzeko ahalegina merezi du, hala ere, eta nola gainera. Lagungarri: Txillardegiren dohain pedagogikoak ez dira makalak, eta eskertzen da. Adibidez, Lacanen izkribuetan “adierazleak” eta “adieraziak” duten harremana nekez ulertzen da lehenbiziko kolpean, baina Txillardegiri esker badugu mamiari antzematea.

Estrukturalistek diote adierazlea ez dela ibilgailu neutroa, baizik eta hizkuntza-sare bateko elementu egituratzaile bezain egituratua dela. Adierazia edo esanahia zeharo lotuta dago adierazleak egitura baten

barruan antolatzeke moduarekin, eta kanpoko munduko objektuekiko erreferentziatik independentea izan daiteke egitura hori. Erreferentzia enpirikotik aparte osatzen dute zeinua adierazleak eta adieraziak. “Itsaso” adierazlea ez zaio itsasoari lotzen, “itsaso” esanahiari baino.

Bestalde, zeinua, esan bezala, arbitrarioa da, ez dago inolako lotura naturalik edo beharrezkorik adierazlearen eta adieraziaren artean. Ideia bat irudikatzeko, arbitrarioki aukeratzen da soinu-segida jakin bat eta ez beste bat. Ez naturak, baizik eta konbentzioak erabakiko du hizkuntzak modu arbitrarioan lotutakoa ezartzea eta zabaltzea.

Claude Lévi-Straussek asmatu zuen “adierazle flotatzaile” esamoldea, Jakobsonen “zero fonema” kontzeptuan inspiraturik. Eta Lacanek psikoanalisisira inportatu zuen, erakusteko adierazleak ez duela berezko esanahi intrintsekorik, adierazle jakin baten esanahia ez dela finkoa eta absolutua nabarmentzeko. Esanahi hori fluidoa eta aldagarria baita: denboraren joanak aldatu dezake, edota desoreka edo berritasun bat agertzea adierazle horrek estrukturaren barruan zituen konexioetan.

Hori guztia adibide zehatz batekin azaltzeko, Joan Mari Torrealdaik frantziskotar sotanari buruz kontatu zion pasadizoa baliatuko du Txillardegik.

Frantziskotarren janzkera ez omen da Erdi Aroko janzkera arrunta baizik, pobreen soinekoa. Txirotasuna adierazteko hautatu zuen Asisko Frantziskok.

Erdi Aroa igaro, ordea, Errenazimentua ere bai, eta ahaztu egin zen pixkanaka frantziskotar sotanari lotutako zentzu hura. «Eta janzkera, “adierazle” soil bihurturik, bere gisara abiatu da. Soka eten da; eta frantziskotarren janzkera “sintoma” bihurtu da, “adierazle” huts». <sup>156</sup>

Alta, gizakiak esplikazioak behar ditu, arrazoiak. Lasaigarriak zaizkio, disparate hutsa izaten diren arren sarritan. Halatan, Torrealdaik Txillardegiri jakinarazi zionez, azalpen teologiko ezin estrabaganteagoak asmatu dira aspaldion frantziskotar janzkeraren inguruan, egun dakiguna Erdi Arora proiektaturik eta guztia nahasirik. Asisko Frantziskoren abituaren zentzua galdu «eta *alienatu* egin da». <sup>157</sup> Zein bere aldetik dabilta soineko marroia eta txirotasuna.

Sotana atxiki dugu, hori bai; alegia, adierazleari eutsi diogu. Dena den, honezkero ez garenez adieraziarekin zuen benetako loturaz ohartzen, asmazio teologiko horiek alienazioa adierazten dute, alienazio kulturala. Eta, Txillardegik erantsiko duenez, sotana flotatzaileen antzera dabilta eritasun psikologikoaren sintomak ere, dagozkion gizaki alienatuarekin lotura galdu eta beren kabuzko flotazio zailean bizitzaren magman.

## **BESTEIA GUGAN MINTZO**

Lacane, psikoanalista den neurrian, ez dezagun ahaztu, paziente zehatzen oinaze mentala apaltzea edo sendatzea du helburu.

---

<sup>156</sup> *Ibidem*, 99. or.

<sup>157</sup> *Ibidem*

Psikoanalisiak, bai Freudek eta bai Lacanek, inkontzientearen jopu ikusten du gizakia. Kanpotik datorkion zerbait balitz bezala inposatuko litzaioke. Gure baitan dagoen “Bestea” deritzo Lacanek inkontzienteari, eta batzuetan gutaz nagusitu «[...] eta atzera eta aurrera eraman gaitzake sufrikario izugarritan, borreroak ‘kanpotik’ lotu eta inarrosiko gintuzkeen bezala».<sup>158</sup> Kasu patologikoetan nabarmena da gizakiaren gakoa inkontzientea dela. Dena den, inkontzientearen giltzarri-izaerari dagokionez, ez dago alde esanguratsurik patologiaren eta normaltasunaren artean. Sustraiak guztiok mugitzen gaituzte inkontzienteko desira zapalduak.<sup>159</sup>

Osasuntsuek, orain arte bederen, bizitzan jasan dituzten oinazeak eramatea lortu dute, desira desorekatzaileen helburua oharkabean aldatuta askotan. Horrela, ez diete gizartean ibiltzea eragozteko moduko arazo larririk sortu. Diglosiak haurtzaroan eraginiko barne gatazka, esaterako, ez zaie eritasun bilakatu. Ihesbide eraginkorra aurkitu diote desiren eta errealitatearen arteko tentsioari.

Osasuntsu zein eri, edozelan ere, inkontzientea dugu guztiok bizitza psikikoan eragile nagusi; gudan sustraitua dagoen Bestea, Lacanen berbetan. Giza esperientzia nagusiak oharmenetik at gertatzen dira. Psikoanalisten ustez, bestalde, desira da gizakiaren giltzarria, eta ez arrazoi logikoa; zehazki, desira da inkontzientearen dei nagusia. Eta ez dira “geureak” gure desirarik sakonenak omen direnak, Bestearenak

---

<sup>158</sup> *Ibidem*, 86. or.

<sup>159</sup> *Ibidem*, 86-87 orr.

baizik. Zentzu horretan ulertzea inkontzientea da Lacanentzat gizakia ulertzea.<sup>160</sup>

Eta, Lacanek dioenez, hizkuntza sinbolikoa da inkontzientean mintzo dena; alegia, Bestearen jardunaren funtsa. Ordena sinbolikoa da gizakiak hizkuntzaren bidez komunitatean biltzen dituen, nolabait. Txillardegik erabiltzen ez dituen beste testu batzuetan, berriz, Lacanek dio Aitaren izena onartzeak ahalbidetzen duela hizkuntzan eta gizartean sartzea. Freudek "supernia" zeritzonarekin dago, beraz, lotuta.

Superniaren, Bestearen eta Aitaren izenaren muina eta hizkuntza aldatzen eta mundu sinboliko berri bat eraikitzen ahalegindu zelako da nabarmena Txillardegiren alde heroikoa. Aitaren izena eta Bestea benetan ukitzera eta aldatzera ausartzeak edozein establishmenten mehatxuak eta zigorrak dakarzkizu, edozelakoak.

## **INKONTZIENTEA HIZKUNTZA GISA DAGOELAKO EGITURATUA SENDA GAITZAKE SOLASAK**

Bereziki harrigarria zaio Txillardegiri historiko zenbaiten idazkera automatikoa:

«Hauetako batzuek, besoa anesthesiapean dutelarik, aski dute beso soraio horren eskuan norbaitek lapitza jartzea eta hitz bakar bat idaztaraztea, hortik aurrera historikoak berak, bere buruz, eta beste edozertaz hitzegiteari etengabe eutsi arren, esku soraio horren bidez orrialde osoak

---

<sup>160</sup> *Ibidem*, 87. or.

idatz ditzan. Gero orrialde horiek histerikoari irakurtzen baldin bazaizkio, honek ez daki ezertxo ere orrialdeetan idatzitakoaz». <sup>161</sup>

Freudentzat, hipnosipeko histeriko horrek bezala jokaten dugu normalean beste guztiok ere. Inkontzientea da egiten ditugun gauza askoren gakoa. Ez ditugu benetako eragileak ezagutzen, inkontzientean dautzalako. Nitasun kontzientea baino geruza sakonagoetan dago gure jabe ezezaguna. Ikuskizun eta desira traumatikoak biltzen ditu sarritan. Lan psikoanalitikoari esker, ikuskizun eta desira zapaldu horiek kontzientera ekar ei ditzakegu, eta ezagutu.

Txillardegik Freuden alde eta marxista baikor batzuen aurka egingo du: giza alienazioa ez da soilik soziala; areago da psikologikoa. Berezkoa zaio alienazioa gizakiari. Freudek ez digu errotik desalienaturiko gizaki totalaren etorrera aginduko. Alienazioak egiten gaitu gizaki, eta gizakiak gizaki izateari utziko dion arte iraungo du.

Ikus dezagun: sistema eta estruktura gisa sortzen ditu gizakiak ordena sinbolikoak. Beste edozein ordenak bezala, ordena sinboliko horiek ere lege hertsia dituzte. Gainera, gizaki konkretuagandik at erabakitzen dira. Eta hizkuntza sinbolikoan beste inon baino hertsiagoak izaten dira.

Gizakia, beraz, animalia sinbolikoa den heinean, ez dago hizkuntzatik libre. Ordena sinbolikoaren lege zorrotzen jopu duzu. Jaio aurretik dago katea sinbolikoan harrapatuta; eta hil ondoren ere, berdin. Gizaki osoa

---

<sup>161</sup> *Ibidem*, 88-89 orr.



dago harrapatuta, baina modu berezi batean: peoia xakean bezala. Sisteman baitago harrapatua, egitura sinbolikoan, hizkuntzan.

Bestalde, psikoanalisiak hizkuntza solasean tentuz, eta, aldi berean, libre erabilirik artatzen ditu eritasun psikologikoak, pilula barik. Nondik nora?

Terapeutikan, pazienteak ahal bezain libre mintzo da, autozentsurarik gabe. Ametsak, ahanzturak eta lapsusak behin eta berriro kontatuz, pazienteak mintzora dakartza zapalduz zeuzkan ikuskizun traumatikoak. Eta ulertzera heltzen da, sarritan supituki, bai bere desira erreprimetua, bai inkontzienteak hura adierazteko darabilen hizkuntza sinbolikoa. Argi ikusten ditu azkenean inkontzientearen bide bihurriak, ulertu du hizkuntza arrotz haren mezua, bere egin du Bestea. Halaxe osatzen da eria: oharkabeaz ohartu eta inkontzientea kontzientziara ekarrita. Eta inkontzientea hizkuntza gisa dagoelako egituratua egin dezake hori.

## **TXILLARDEGIREN AMETSEN HIZKUNTZA**

Hitz-jokoekin funtzionatzen du inkontzienteak sarritan, txiste ugari egiten du hizkuntzarekin. Zer hizkuntzatan egiten zuen Txillardegik amets?

Horixe galdetu nion behin batean, 80ko hamarraldiaren erdialdean, EUTGtik Zorroagara gindoazela. Pentsatu nahi dut erantzunaz ondo oroitzen naizela, baina ziur aski Txillardegiren biografiek eta autobiografiek moldatu eta osatuko zuten. Hara:

Txikitan, nerabezaroan eta gaztaroan, gaztelaniaz. Halaxe jarraitu zuen Bilbon ere: euskalduntze bidean gero eta sendoago zebilen arren, Euskal Herriaren historiari buruzko Campión, Sagarminaga, Anacleto Ortueta eta gainerakoen gaztelaniazko liburutzarrak irensten baitzituen. Bitxiki, Ferrolen egin zituen lehenbiziko ametsak euskaraz, hogeita bost urte inguru zituela, *Leturiaren egunkari ezkutua* idatzi bitartean.

Aurrerantzean, inguruaren, irakurketen eta idatzaldien arabera. Aisa lerratzen zitzaion inkontzientea hizkuntza batetik bestera. Bruselan eta Waterloon frantsesez egitera heldu zen. Kaliforniako egonaldian, berriz, ingelesez inoiz ez, agian etengabe idazten zuelako euskaraz eta Andolin Eguzkitzarekin zebilelako. Hendaian eta Donostian, ia beti euskaraz; baina erdaldun inbaditzaileek —alderdi abertzaleetako zuzendaritzek, besteak beste— gaztelanian amiltzen zituzten noizean behin Txillardegiren amesgaiztoak.

# **BIGARREN ATALA: EUSKARA**

## GALERA ESTRUKTURALAK

Inkontzienteraino iristen den inbasio horren aurka jo zuen beti Txillardegik. Euskararen senari eustearen alde ageri da eskuarki, fonologian, gramatikan, syntaxian zein lexikoan.

Gorago ikusi dugunez, hizkuntzaren estrukturetan terminoa ez da ezer berez: betetzen duen tokiak ematen dio izatea, gainerako terminoekin duen harremanak. /p/ fonema beste leherkariekin duen harremanak definitzen duen bezala, kolore urdina grisaren eta berdearen artean dagoena litzateke, eta arreba genuke ez dena ez ahizpa, ez anaia eta ez neba. Estrukturako termino bat aldatu edo desagertuz gero, sistema osoa berregituratzen da, oreka berri baten bila.

Adibidez, semantikari gagozkiola, “urdin” kolorearen esparrua askoz ere zabalagoa zen euskara zaharrean egun baino; indoeuroparrek grisa eta berdea sartu zizkigutenean, flakatu behar izan zuen urdinak, kolore berriei tokia egiteko. Sistema osoa berrestrukturatu zen. Era berean, “anaia” “neba”ren esparruaz jabetu zelarik. Txillardegi:

«Euskara zaharrak badu horrelakorik asko; gaur askoz ere gutxiago, gure hizkuntza «bitxikeria» horietarik «garbitu» bait dugu, «razionalago» eginez (alegia: erdal estrukturen eta logikaren arabera...).<sup>162</sup>

Morfologian ere, gauza bera gertatzen da. Eta hemen Txillardegik erabakigarritzat duen Whorfen ideia bat kontuan hartzea komeni zaigu:

«"Gauzen" munduari dagokionez —dio Whorfek— etxe, zakur, zubi, hosto, eta abar, hizkuntza guztietan funts berbera, edo oso antzekoa, aisa aurki

---

<sup>162</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 53. or.

daiteke. Baina bilakaera, aldakuntza, EBOLUZIOA eta etengabetasuna diren fenomenoetan (alegia: DENBORAN BARRENA gertatzen diren fenomenoen azterketan; eta berboaren mailan, beraz, oso bereziki) taxuketa egin behar dute hizkuntzek, horietan benetan hemendik edo handik ebaki-beharra dago, elementuak ez bait dira inola ageri. Whorfen ustez, beraz, DENBORAREN AZTERKETA da hizkuntzen funtsaren argitzaile nagusia».<sup>163</sup>

Azter ditzagun, beraz, euskal aditzetan denborari dagokionez gertatu diren aldaketa batzuk.

Frantsesek eta espainolek ez dute “etorriko litzateke” eta “etorriko zen” bereizten (“vendría”, “viendrait”), eta gure artean ere “etorriko zen” nabarmen ari zaio aurea hartzen “etorriko litzateke”ri.<sup>164</sup>

Hainbat kasutan erdal estrukturak zeharo barneratu zaizkigu dagoeneko, eta euskararen berezkoa aienatu. Adibidez, Txillardegik, *Euskal gramatika* liburukoteko orrialderik ederrenetan, Resurrección María de Azkuerekin eta René Lafonekin bat datorrela erakusten digu: aspektua zen giltzarria euskal aditz zaharrean; hau da, ekintza bukatua eta burutua denetz, denboraren egiazkoa ala alegiazkoa, eta ez ekintza iraganekoa, oraingoa ala gerokoa ote den.<sup>165</sup> Ordea, auzoko erdaren eraginez, euskal hizketan zein gramatiketan iragana/oraina/geroa, atzo/gaur/bihar estruktura bilakatu da aditzaren denbora-molde nagusi<sup>166</sup>. Aspektuak ez du lehen zeukan garrantzia gaur. Are, Lafonen esanetan, desagertua da hainbat paradigmatan burutuaren eta burutugabearen arteko oposizioa.

---

<sup>163</sup> *Ibidem*, 62-63. orr.

<sup>164</sup> *Ibidem*, 25. or.

<sup>165</sup> *Euskal gramatika*, Ediciones Vascas, Donostia, 1978, 23. atala: “Aspektua eta denbora”, 212-231 orr.

<sup>166</sup> *Ibidem*, 228. or.; ilkus orobat TXILLARDEGI, *Lingua navarrorum*, Orain, Hernani, 1996, 35-36 orr.

Espainolek eta frantsesek beren azter-moldeak kutsatu dizkigute, eta galdu egin ditugu geure aspektu zahar gehienak. Azter ditzagun Txillardegiren eskutik zenbait kasu zehatz.

## **JAIKI BANADI, JAIKITZEN BANAIZ; JASO BANEZA, JASOKO BANU**

Garai bateko euskaldunak garbi bereizten zituen “jaiki banadi” eta “jaikitzen banaiz”, “jaso badezat” eta “jasotzen badut”, “jaiki banendi” eta “jaikiko banintz”, “jaso baneza” eta “jasoko banu”. Euskalki guztietan, gainera. Haatik, banadi, badezat, banendi, baneza sailak galtzen ari dira, eta “jaikitzen banaiz” eta “jasotzen badut” paradigmatik ari dira galtzaileen eremuaz jabetzen. “Banadi” eta “banendi” gorritz azpimarratzen ditu *Xuxenek*.

Txillardegik Mikoleta zaharraren esaldi hau dakar: “Kontuz! Jaiki banadi ikusiko duzu!”. Gaur horrela esango genuke: “Kontuz! Jaikitzen banaiz, ikusiko duzu!»

Desberdinak dira, alabaina. Mikoletaren subjektu etzana jaiki egin daiteke; eta egin dezakeena, noizbait gerta litekeena, mehatxu gisa aipatzen du: “jaiki egin naiteke ni; beraz, kontuz: jaiki banadi berandu izango da, eta jipoi galanta hartuko duzue”. Baldintza subjektiboen mailan gaude, gertaera enpirikoetatik at.

Bestelakoa da “jaikitzen banaiz”. Txillardegiren adibidea: «[...] beti berandu jaikitzen banaiz, ohartu egingo dira azkenik lantegian». Baldintza objektiboa dugu, gertaera enpirikoen munduan gaude.

"Jaiki banadi" puntualagoa da, behin gerta daitekeen zerbaiti buruz egokiagoa; "jaikitzen banaiz", berriz, zabalagoa da, eta behin baino gehiagotan gertatzen direnei buruz erabiltzeko modukoa.<sup>167</sup>

Tamalez, "banadi" eta "baleza" ahalera ederrak gure aditz-paradigmari ematen zioten ñabardura aberasgarria ia erabat galdu da.

"Etorriko zen" eta "etorriko litzateke" rekin gertatzen ari dena dugu hemen ere: "jaikitzen banaiz" eta "jaiki banadi", biak berdin esaten direla espainolez eta frantsesez: "si me levanto", "si je me lève".

Gauza bera gertatzen da "ahal banu" eta "ahal baneza" formekin ere: berdin esaten direnez frantsesez eta espainolez —"si pudiera", "si je pouvais"—, "ahal baneza" desagertzen ari da.

Horiek ere desberdinak dira euskaraz, aurreko bikotekideen antzeko arrazoiengatik: lehena objektiboa litzateke, kanpotik datorkidan egoera; eta bigarrena subjektiboa, geure esku legoke.<sup>168</sup>

Galera ilustratzeko, "jasoko banu" eta "jaso baneza" bikotea ere erabiltzen du Txillardegik. Bai "jasoko banu" eta bai "jaso baneza", biak berdin esaten dira espainolez eta frantsesez: "si levantase", "si je levais".

Baina desberdinak dira bi adizkera horiek ere: "jaso baneza" subjektiboa da, «ustezko kutsua du, potentziala baita. Alegia, egin daitekeen, edo gertatzea benetan nahi genukeen edo bildur ginatekeen zerbait azaltzeko erabiltzen da, "jaiki banadi" saila bezala».<sup>169</sup>

---

<sup>167</sup> TXILLARDEGI, *Oinarri bila*, Egilea editore, Donostia, 1977, 130-131 orr.

<sup>168</sup> *Oinarri bila*, 138. or.

<sup>169</sup> *Ibidem*, 135. or.

“Jasoko banu” forma, berriz, objektiboa da, «gure eskuetan ez dagoen zerbait azaltzeko, edo gertatzea berdin zaiguna. Alegia, baldintzaren obratzea ala ez obratzea ez dago gure ahalmenean. Kanpotik edo gaineratik datorkigu baldintza: “hilko ez bagina”, “haur inoiz izan ez bagina”, “mundua bihar amaituko balitz”, “Jaungoikorik ez balitz”, eta abar».<sup>170</sup>

Txillardegiri: «Ageri den bezala, erdaraz bi aditz-aldi hauek ez dute diferentziarik; eta horretatik heldu da euskaraz gero eta nahasiago egotea, bigarrena lehenengoari nagusituz».<sup>171</sup>

Azkuez eta Lafonez gain, Sapiirrek eta Whorfek ere lagundu zioten Txillardegiri ohartzen ezen,

«[...] euskara zaharrak, beste zenbait hizkuntza urrunek bezala, denbora alegiazkoa (mitikoa) eta egiazkoa (kondairakoa) berezten zituela. [...] Gure ondoko erdarek ez dute berezketa hori egiten, ordea. Hortaz: euskaldunok ere ez! Horra hor, garbi, egestura aldaketa bati dagokion pentsakera-aldaketa».<sup>172</sup>

Zer egin?

Txillardegiren ustez, batetik, ondo zehaztu gaurko euskara batuan euskal aditzaren aspektutik «[...] atxiki daitekeen eta atxiki behar litzatekeen parte».<sup>173</sup>

---

<sup>170</sup> *Ibidem*

<sup>171</sup> *Ibidem*, 134. or.

<sup>172</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 57. or.

<sup>173</sup> *Euskal gramatika*, 230-231 orr.



Dena den, «[...] lehen-lehenengo puntua erdara ahaztutzea da. Areago: sasi-logikatzat itsatsi zaizkigun erdal estrokturetatik geure burua zeharo erauztea. Ez bait da batere erraza!».<sup>174</sup>

## SOZIOLINGUISTIKA

Atzez ikusi dugu beti euskara, lurraldetasunari dagokionez ere, ezagutzen dugun historian. Eta ez kausa naturalengatik, baizik eta debekuz, mehatxuz eta zigorrez. 1349ko ordenantza batek zehazten du Huescako azokan euskaraz eginez gero zer isun ordaindu behar zenuen. Luzaro iraun zuen debekuak.<sup>175</sup>

Barne-muinetaraino sartzen zaigun indoeuroparren inbasioaren aurkako borrokak hainbat bide hartu zituen dena den Txillardegirenean, garaian garaiko eskakizunen arabera.

90eko hamarkadaren hasieran, Txillardegik ikusten zuen aspalditik ase zezakeela kuriosoak euskararen ezaugarriei buruzko jakin-mina: ergatiboa eta aditz trinkoa, euskalkiak, ahaideak topatzeko zailtasunak edo ezina... Ganoraz aztertzen ziren euskararen fonologia, gramatika eta sintaxia, historia eta etimologiak, diakronia eta sinkronia. Baziren ahaleginean zebiltzan euskalariak, bederen.

---

<sup>174</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 63. or.

<sup>175</sup> *Euskal Herria helburu*, 56. or.

Aldiz, bazterrean utzirik zekusan erabileraren auzia; edo ez merezi bezain sakonki ikertua, behintzat. Horixe idatzi zuen *Isilik* aldizkariaren 14. alean, “Soziolinguistika zertarako?” testuan. Alta, Fito Rodriguezen esanetan,

«Txillardegiren hautua, gaztetik euskara ikastera ekin zionetik, hizkuntza biziaren aldekoa izan zen "filologiakeria" guztien gainetik. Horrek eraman zuen bere ardura soziolinguistikara. Hizkuntzalari engaiatua izan zen bera, ez "akademikoa". Eta ikerketak eginez frogatu zuen: [...] euskararen batasuna (idatzia nahiz ahozkoa), soziolinguistika matematikoa, gramatika, fonetika, fonologia, prosodia, azentua eta abar aztertuz, euskara biziberritzea izan zuen helburu beste edozein gauza baino gehiago».<sup>176</sup>

## MUNDUKO HIZKUNTZA-GATAZKAK AZTERTU

Txillardegiren ustez, funtsezko jakintza da Soziolinguistika Euskal Herriaren etorkizunari begira. Biziki zaigu interesgarria aztertzea nola gainditu dituzten arazo diglosikoak hizkuntza arriskuan izan duten herriek, nola batu dituzten dialektoak, nola sortu duten zaurituriko —are hiliko— hizkuntza berpizteko legedia. Eslovenia iruditzen zitzaion Euskal Herriaren eredu egokiena, lurraldearen tamainagatik eta biztanle-kopuruagatik ez ezik, baita esloveniarrek beren hizkuntzari eusteko erakusten duten duintasun ausartagatik ere. Hizkuntza-gatazkak dituzten beste hainbat herrialderen kasuak ere aztertu zituen, gurean

---

<sup>176</sup> “Axularren galdegiteak eta Materraren ihardespak... (edo Mitxelenaren eta Txillardegiren arteko harremanak)”, in *Egan*, Donostia, 2015, 190-191. orr.

aplikatzeko irakaspenen bila: Flandria, Islandia, Txekia eta Eslovakia, Eslovenia, Kurdistan, Armenia, Quebec, Estonia, Letonia eta Lituania, Georgia, Britainia, Okzitania, Korsika, Galizia, Katalunia eta Andorra, Finlandia, Britainia, Gales, Kurdistan, nola igaro diren Tunisia eta Aljeria frantses izatetik arabiar izatera, amazigen arazoak Aljerian, etab.

Txillardegiren iritziz, ezker abertzalearen kanpoko harremanetan, neurritz gain puztuta zeuden Hego Ameriketako herriekikoak, eta munduko gainerako eskualdeak bazterturik. Txillardegiren susmoa zen ezker abertzaleko marxista ortodoxoek nazioarteko iraultza baino maiteagoak zituztela solasaldi luzeak espainolez goxo-goxo, Hego Amerikak gure herriari eredu egokirik eskaini ahal ez izan arren, ez hizkuntz-politikan eta ez borroka sozialetan.

Dena den, hizkuntza hiltzen uztea edo hizkuntza honezkero hila berpiztea: katearen bi mutur horietan gaelikoa eta hebreera kokatzen ditu Txillardegik.

## **GAELIKOA**

Txillardegik biziki miresten zituen Bertrand Russellen tankerako igarleak, 1920rako aurreikusi baitzuen Sobiet Batasunaren bilakaera. Gutxitan, baina antíguarra bera ere ausartu zen igarletzan. Hizkuntza txikituak, iraungo badu, Estatu behar duela zioen. 70eko hamarraldian

salbuespentzat jotzen zuen Irlandaren eta gaelikoaren kasua: ia erabat itzali zen Irlandak estatu propioa lortu ondoren.

Euskaldunok kanpoko presioari leporatzen ohi diogu euskararen etengabeko gainbehera. Zama hori gaintik kentzean, berez berpiztuko ei da euskara,

«[...] zapaltzen zuen harri mokorra kenduta, landarea zuzendu eta zutitu egiten den bezalaxe. Irlandan, ordea, horrelakorik ez da gertatu. Londrestik zetorren presio ingelesari, Dublandik datorren presio ingelesa nagusitu zaio: 'kanpo'tik zetorren diglosiari, 'bertakoen' diglosia erantsi zaio».<sup>177</sup>

Gure buruzagi abertzaleen jokabide linguistikoa kontuan hartuz gero, ez omen da makala arriskua, guri ere antzeko zerbait jazo dakigun; hizkuntzak erakundeak behar ditu, noski, baina baita herri-mugimendua ere. Eta Irlanda independenteak bazituen erakundeak, baina herri-borondatearen faltak hizkuntza hil zuen. Horrela azaldu du Txillardegik hizkuntza iraunarazteko ardua erakunde hutsetara delegatzeak dakarren arriskua:

«Egia da, gaeliko hizkuntza oso gaizki zegoen 1921ean Eirek independentzia lortu zuenean. Eskala sozialean oso behean aurkitzen ziren txiroek bakarrik hitz egiten zuten, eta eskualde oso mugatuetan, kostaldean bakarrik. Horiek ere elebidunak ziren eta ez zen geratzen kasik elebakarrik. Giro urbanoan ez zegoen gaelikoaren arrastorik ere. Dena den, badago gaelikoaren heriotza-prozesuan aipatzea merezi duen gertakari bat: Douglas Hyde Hezkuntza ministro izendatzea.

---

<sup>177</sup> TXILLARDEGI, *Euskal Herriatik erdal herrietara*, Egilea editore, Donostia, 1978, 387. or

Douglas Hyde Liga Gaelikoaren lehendakari izana zen, Irlandako kulturaren alde lan asko egindako gizona eta hura hezkuntza-ministro aukeratzean, jendea desmobilizatu egin zen, pentsatu zuen ez zegoela zertan borrokan segitu beharrik. Jendeak bere borroka delegatu egin zuen eta desmobilizazio horrek sekulako eragin negatiboa izan zuen ondoren. Hitz batez, garbi dago hizkuntza batek unibertsitatea, prentsa, telebista, hau da, erakundeak behar dituela sostengu gisa, eta herri mobilizazioa ere behar duela».<sup>178</sup>

Herri-mobilizazioa ez ezik, ezinbestekoa dute hizkuntza gutxituek Estatuaren ere, hilko ez badira. Uste baino arrazoi handiagoa zuen Txillardegiren iragarpenak; alegia, Irlandaren salbuespen-izaera desegiten ari da.

Berpizten ari baita aspaldion gaelikoa. Ez bakarrik Estatuari esker, baina Estatuari esker ere bai. Martxoaren 4an, Dublin hiriburuan, lehenbizikoz, gaelikoz joan zen udal-batzar osoa. Ingelesa baizik ez da erabili, udala 1841ean sortu zenez geroztik.<sup>179</sup>

Atxikimendu sentimental itzela zien Txillardegik Irlandari eta gaelikoari. Egundoko errieta egin zien behin batean Sinn Feinekoei, ingeles hutsez egin baitzuten hasi eta buka bilera bat.

---

<sup>178</sup> *Hitza hitz*, 67-68 orr.

<sup>179</sup> *Berría*, 2024ko martxoaren 5a.

## HEBREERA

Israelek hilotz zetzan hebreera berpiztea lortu zuen, eta indartsu eta sasoiko dabil orain. Etoraginez osatu zen Israel. Bigarren mundu-gerraren ostean hara jo zuten juduek yiddisha zerabilten, sefardia, arabiera, errusiera, ingelesa, turkiera, frantsesa... hebreerarik ez. Pizkundea baino lehen, liturgiarako baino ez zen erabiltzen, sinagogetan.

Eztabaidak izan zituzten juduek, merezi ote zuen hebreerari eustea. Txillardegik adierazi zuenez, 1860az geroztik, batez ere Errusian eta intelektualen artean, hebreera mintzabide gisa erabiltzen hasi ziren, Bibliatik bildutako esaldi laburrak baliaturik.

XIX. mendearen amaierarako, juduak Palestinara joaten hasi zirenean, garbi sentitzen zuten hebreeraz mintzatu beharko zutela. Hasieran gaizki moldatzen ziren. Ez zeukaten hebreera baturik, arkaikoa bezain urria zuten hiztegia. Ez zekiten “pospolo” nola esan.

Hala ere, proiektuari eutsi zioten: gogor lan egin zuten eta hizkuntza suspertzen hasi zen. 1888an sortu zen hebreerazko lehenbiziko eskola.

1901ean, Basileako Biltzar Nagusian, juduen ordezkariak ofizialki hartu zuten nazio-hizkuntza berpizteko erabakia. Amets hutsa zen askoren ustez, baina abertzaleek, Txillardegik kontatzen duenez, hauxe erantzun zuten: «Hizkuntza gabe gure herria abstrakzio bat da, eta ebakia dago gure nazio-tradizio mota guzietatik. Hizkuntza gabe gure herria ez da herri bat, eta ez da inoiz izango».<sup>180</sup> Adorez ahalegindu ziren hurrengo

---

<sup>180</sup> *Euskal Herriatik erdal herrietara*, 487. or.

urteetan hebreera batu, osatu, trebatu eta mintzabide eraginkor bihurtzen.

1948an sortu zen Israelgo estatua. Ordurako, aski aurreratua zeukaten hebreera batua. Txillardegik azpimarratzen du erakundeak laguntzen hasi baino lehen zegoela abian hizkuntzaren pizkundera.

Aurrena, beraz, hebreera bizkortu zuten; soilik ondoren ekin zioten borroka politikoari. Txillardegi: «Hizkuntza–pizkundera ez zuen politika–askatasunak ekarri; alderantziz baizik».<sup>181</sup> Beti eta nonahi nabarmentzen du Txillardegik hurrenkera hori, baita bere baitan ere: euskaltzaletu egin zen aurrena, eta abertzaletu eta politizatu ostean.

Jakina, sortu zen une beretik jarri zituen Israelek estatuaren baliabide guztiak etorkinek hizkuntza ikas zezaten, eta seriooki hartu zuen hebreera bilakaraztea hizkuntza ofizial ez ezik, baita mintzabide bizi eta eraginkor ere, noranahiko. Etorkinak oro jartzen zituen urte eta erdiz estatuak hebreera ikasten, dena ordainduta.

Gaelikoaren eta hebreeraren muturren artean gu non gauden galdetzen zuen Txillardegik gaelikoa hilotz zetzalarik, joan den mendeko azkeneko hamarraldietan, sumagaitza zenean oraingo berpizkundera, eta zer egin dezakegun euskararen egoera gaelikoarenetik urrutiratzeko eta hebreerarenera hurbilarazteko. Horixe argitzea dute bultzatzaile nagusi soziolinguistikari buruzko Txillardegiren izkribuek. Egiari zor, gainerako izkribuek ere bai. Baita borroka politikoak ere.

---

<sup>181</sup> *Ibidem*, 487. or.

# SOZIOLINGUISTIKA MATEMATIKOA

Ingeniaritza ikasi zuen Txillardegik Hizkuntzalaritza baino lehen; beti erakarri zuen matematikak, eta sakona izan zen arlo horretan jaso zuen formazioa. Ingeniari-lanetan ibili zenean, maiz egin behar izaten zituen kalkulu matematikoak. Bestalde, erbestealdiaren hasieran, Matematika irakasle ibili zen Hazparneko Saint Joseph ikastetxean. Jean-Louis Davantek kontatu duenez, aisa lortzen zuen Txillardegi irakasleak biziki zaila dirudiena: ikasleek Matematika maitatzea. Bazuen transmititzeko dohain hori.

Soziolinguistika matematikoaren inguruan Txillardegik idatzitako liburuak ekuazio, taula eta hizkuntza matematikoz josiak daude. Gezurra dirudi, pertsona berak idatzi izana *Putzu* eta *Soziolinguistika matematikoa*. Neure adimena ez denez, tamalez, Txillardegirena bezain poliedrikoa, hemen kalkuluak eta logaritmoak ahaztu, eta mugatuko naiz adieraztera zein asmo zuen Txillardegik Soziolinguistika matematikoa sortu zuenean, eta, behin azterketak eginik, zein ondorio atera zuen gizarte diglosikoetan hizkuntza gutxituaren hiztunek egin dezaketenen inguruan.

1973an argitaratu zuen Txillardegik "Matematika eta erderomanoak" izeneko artikulua. *Euskal Herritik erdal herrietara* liburuan jasoko zuen bost urteren buruan. Horixe da antiguarraren Soziolinguistika matematikoaren lehenbiziko agerpena.

Orain dela berrogeita hamar urte, beraz, Soziolinguistikaz jardun zuen lehenbiziko testuan, matematika baliaturik aztertu zuen hizkuntza



minorizatuaren erabileraren edo erabilezinaren auzia gizarte diglosikoan. Alegia, Soziolinguistika hasieratik agertu zen Txillardegirenean Soziolinguistika matematiko gisa.<sup>182</sup>

Hauxe da Txillardegik asmatutako Soziologia matematikoak konponbidean jartzen lagundu nahiko lukeen arazoa:

«Euskaraz dakigun guztiok, erdaraz ere badakigu; alderantziz, ordea, ez da gauza bera gertatzen: erdaraz dakiten askok (lautik hiruk) ez dakite euskaraz».<sup>183</sup>

Katalunian, Flandrian edo Txekian ez bezala, Euskal Herrian,

«Fameli-bilkuretan, lagunen artean, edonolako batzarretan eta jaietan, “elkar hobeki ulertu beharrez”, “por razones de operatividad”, “pour être efficaces”, eta abar, erdaraz hitz egiten dugu. Zenbat aldiz, ordea?»<sup>184</sup>

Txillardegik dio kalkulu hori ez dela zaila. Dena den, esan bezala, Txillardegik berak gauzatu zuen lehenbiziko aldiz, 1973an. Kalkulu horixe da Soziologia matematikoaren muina. Hona hemen kalkulu horren premisak, Txillardegiren hitzetan:

---

<sup>182</sup> Gerora, hainbat artikulu eta liburutan jorratu du Soziolinguistika matematikoa, eta euskarari aplikatu. Hona hemen azpimarragarrienak, Txillardegiren beraren ustez:

- *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa*, UEU, Iruñea, 1984
- “Euskararen erabilpenaren azterketaz”, in *Jakin*, 36, 1985, 69-78 orr.
- “Connaissance et utilisation des langues en milieu partiellement bilingue”, *Cahiers CIRB*, Quebec, 1987
- “Euskararen erabilpena oinarrizko ondorio batzuk”, in *Bat: Soziolinguistika aldizkaria* 3/4, 1991, 53-92 orr.
- “Pour une analyse mathématique des situations bilingues”, *Mélanges en honneur de Per Denez*, 1999, Rennes, 47-56 orr.
- *Hacia una Socio-Lingüística matemática*, Euskal Soziologia Institutua, Donostia, 2002
- *Soziolinguistika matematikoa*, Xabier Isasirekin batera, UEU, Bilbo, 2004

<sup>183</sup> *Euskal Herritik erdal herrietara*, 239. or.

<sup>184</sup> *Ibidem*

«Eman dezagun LAU lagunen talde bat: A, B, C eta D. Zenbat multzo gerta daiteke hor, hitz egiterakoan?

BI lagunek osaturik, SEI hizketa–multzo gerta daitezke; eta hauek dira: AB, AC, AD, BC, BD eta CD.

HIRU lagunek osaturik, LAU talde: ABC, ABD, ACD, BCD.

Eta LAU lagunek osaturik, talde bakar BAT, jakina: denek elkarrekin osatzen dutena: ABCD.

Hizketari buruz, hortaz, HAMAIKA hizketa–multzo gerta daitezke.

Eman dezagun orain A erdalduna dela; eta B, C eta D, berriz, euskaldunak.

“Operatividad”, “efficacit e” eta “errespetu” famatu horiek direla bide, A dagoen multzoetan erdaraz egingo da. Erauzirik geldituko da euskara multzo hauetatik: AB, AC, AD, ABC, ABD, ACD eta ABCD.

Zazpi multzotan, beraz, euskara kitto!

Eman dezagun orain A eta B erdaldunak direla; eta C eta D, berriz, euskaldunak. Multzo GUZTIETAN baztertuko da euskara mintzabide gisa, bakar BATETAN ezik: AB.

Kasu honetan, beraz, talde horren % 9–tan baizik! Erdiak erdaldun izanda».<sup>185</sup>

## EUSKAL HERRIAN ERE, EUSKALDUNA PARIA

Are latzagoak dira Txillardegik jarraian jakinarazten dizkigun datuok:

«Hamar lagunen talde batetan, erdaldun **batek** elkarriketen **erdia** erdalduntzen du; baina **bost** euskaldunek, % **2,9** baizik ez dute hitz eragiten. “Euskeromano” omen gara... baina zifra horiek aski dira ERDAL ARRAZAKERIAZ hitz egin ahal izateko. Pariak baino gutxiago gara

---

<sup>185</sup> *Ibidem*, 239-240. orr.

euskaldunok geure herrian; eta erdaldunak Hegoafrikako zuriak baino aisa nagusiago. Batzuk hala ere “euskal inperialismoaren” bildur!

Herriko lagun-taldeak eskuarki tamaina horietakoak izaten direnez gero, zifra BILDURGARRI horiek har daitezke oinarritzat; eta gure herrietan gertatzen denaren iruditza.

Hitz gutxitan esateko, herri batetan jendetzaren ERDIA erdalduna baldin bada (gaur leku askotan duguna), herri horretan erdaraz egiten da % 91-97 kasutan! Herri horretara datorren kanpotarrak, beraz, ez du ia inoiz euskaraz inor entzuten; eta bertan galdutzat ematen du hizkuntza.

Horixe da, ordea, gaur Zuberoan eta Lapurdi osoetan gertatzen dena; eta Sánchez Carriónnek bere liburu ezin-mingarriagoan adierazi digunez, Nafarroako euskaldun barrutirik gehienetan gertatzen dena: oraindik ere batzuek (askok beharbada) euskaraz jakinik ere, euskara EZ DA ERABILTZEN, eta hildakotzat jo daiteke.

Inpresio hau, bestalde, ez da inolaz ere ustekeria faltsu bat; egia latzaren irudi xuxena baizik. Ene koadroek hozki erakusten dutenez, euskaldunak oraindik ere ERDIA diren herrietan, erdara entzuten da % 91-97-tan... GUTXIENEZ!

Askotan euskaldunek berek, eskuarki erdaraz egitera beharturik, ez baitute azkenean beren artean ere euskaraz egiten. Zifra izugarri horiek, beraz, egia baino... larrosago dira!!»<sup>186</sup>

## **ERDALDUN ELEBAKARRAREN ERAGIN GALGARRIA**

Horrela jarraitzen du Txillardegik “Matematika eta erderomanoak” erabakigarrian:

---

<sup>186</sup> *Ibidem*, 241-242. orr.

«Beste gauza bat agertzen da zifra horietan: erdaldun bakar batek duen eragin galgarria. Sei lagun talde batean, esate baterako, aski da lagun BAKAR BATEK euskaraz ez jakitea, talde horretan, besterik gabe, % 53,4 multzotan erdaraz egin beharra gerta dadin.

Zifra bildurgarri hauek euskaltzaleek ondo kontuan hartzea nahi nuke; eta euskaltzale omen diren erdaldunei ene irakurleek azaltzea. Zifra lazgarri hauetaz zeharo denok jabetu artean, euskararen arazoak ez du soluziorik izango. Zifrak lagun, euskaraz ikasten ez duten 'euskaltzaleak' (???) euskal giroaren MINBIZIA dira, eta “erderomano” huts.

Noiz helduko ote dira Euskal Herrira, alajainkoa, zifra horiek kontutan hartu, eta provo gisa GOGOR jokatzeko gertu egongo diren gazte suharrak? Noiz??

Zeren izurrite horri nagusitzeko bide bat baizik ez baitago: 1/ ardi-larruz jantzitako URDEEN aurka, ikastolei nola edo hala eustea; 2/ errazkeriak baztertuz, euskara lantzea eta ikastea, beti ere euskaraz lasai hitzegiteko gauza izan arte; 3/ katalanek, flamenkoek eta txekoek egin duten bezala, euskaldunok ere, zer gerta ere, gure hizkuntza ez dakitenen aurrean, ausarki EUSKARA HUTSEZ hastea; 4/ euskaraz ikasteko urratsak EMATEN-ez dituzten ERDEROMANO eta sasi-euskaltzaleak zapuztu, mespretxatu eta zakurraren ip.ra botatzea.

Bestela, jaunak, gureak egin du. Eta utz ditzagun ametsak, eta... xeru-xeru, guretzako gertu dagoen... PUTZURA!»<sup>187</sup>

Beraz, ez intuizioak bakarrik, matematikak ere erakusten digu euskaltzale militanteak elebakar bilakatu ezean, euskararenak egin duela.

---

<sup>187</sup> *Ibidem*, 242-243. orr.

## ELEBAKAR BILAKATU

*Elebidun gizarteen azterketa matematikoa* liburuaren amaieran, Txillardegik adierazten du daramagun martxa honekin euskarak ez duela burua altxatuko.

Zertxobait lortuko badugu, beharrezkoa da, alde batetik, elebidunen kopurua handitzea, eskolaren, telebistaren eta abarren bitartez.

Bestetik, ezinbestekoa da aurreko paragrafoan aipatu hirugarren puntuari adozekitea eta muturrera eramatea:

«Euskaldun elebakarrak (egiazkoak edo ‘faktikoak’) sortzea; eta, tentsioak sortuz, eta abar, dinamika azkarrago bat sortzea.

Bestela, gezurra da Euskal Herria normalizatuko dela esatea; liburuxka honetan barrena argi agertu den bezala.

Jokabide hauen kontra dagoenak, hitz batez, euskararen heriotza bilatzen du; bai konturatzen baldin bada, eta bai konturatzen ez bada ere.

Problema latza? Noski!

Euskal Herriaren arazoa ez baita txantxetako jokia».<sup>188</sup>

Txillardegik berak euskaldun elebakar “faktiko” horietako bat izateko aukera existentziala egin zuen. Euskaraz erantzuten zuen telebistako kazetariak gaztelaniaz galdetzen ziotenean. Zorroagako Filosofia fakultateko jantokian, amore emateke eusten zion euskara hutsari bazkari osoan, solaskidea erdaldun elebakarra zenean ere, eta mahaian Txillardegi eta erdalduna baizik egon ez arren.

---

<sup>188</sup> TXILLARDEGI, *Elebidun gizarteen azterketa matematikoa*, UEU, Iruñea, 1984, 113. or.

Horretan, Jon Etxaide idazlea izan zuen eredu. Frankismo betean ere, Etxaidek ez zuen hitz bakar bat ere egiten erdaraz. Euskaraz ikasten zebilen Txillardegi gazte zalantzatia nekez ausartu zen idazle heldu miretsiari mintzatzera, eta, ondikoz, hitzak gaztelaniaz atera. Orduan, Etxaidek bizkarra eman eta alde egin zion. Jokabide eredugarria Txillardegiren ustez, bihotzez eskertuko ziona.<sup>189</sup>

## **MUTUTASUN INPOSATUAREN TENTSIOK GABE, JAI**

“Erderomanoak eta matematika” idatzi eta hil arte, berdintsua izaten jarraitu zuen Txillardegiren diagnostikoak, egun ere euskalari ugari partekatua. 1985ean *Jakin* aldizkarian argitaratu zuen “Euskararen erabileraren azterketaz” artikuluan, tentsio linguistikoa azkartzeko prest legokeen militantzian ikusten zuen irtenbide bakarra.

Gurea bezalako gizarte diglosikoetan, Soziolinguistika matematikoak frogatu duenez, neurritz eta zentzunez gain gertatzen dira elkarrizketa posibleak hizkuntza menderatzailean. Hala ere, tentsioa eta kontzientzia pizte aldera, mendeko hiztunek badute, Txillardegiren esanetan, beste iskilu bat: mututasuna ezartzea:

«Euskaldun elebidunok euskaldun huts jokatuko?»

Aspaldixko honetan konturatu gara euskaltzaleok, guk euskaldun huts gisa jokatzen ez badugu, hizkuntz arazoa bukatua dela Euskal Herrian, eta ordezkapen isila bertan dugula.

---

<sup>189</sup> *Hitza hitz*, 40. or. eta *Euskal Herria helburu*, 177. or.

Azterketa matematikoak gauza bera erakusten du: euskaldunok elebakar gisa jokatzen hasiko ez gareino, erdaldun hutsek ez dute inolako tentsiorik sentitzen; eta zinez uste dute hizkuntz arazoa guk asmatu dugun “rollo” hutsa dela.

Baina, batzuk euskara baizik erabiliko ez dutenean, benetako mintzatu- ezina sortuko da erdaldunekin; eta honi dagokion tentsioa. Orduan agertuko da hizkuntz arazoa; baina ez lehenago.

Dagoen egoeraren faltsua ager dadin, beraz, guztiz beharrezkoa da euskaldun huts jokatuko duen talde zabal bat sortzea («Euskal Herrian Euskaraz» ezagunaren antzekoa, eman dezagun; baina kalean ari, eta ez ezkutuan eta ghettoan).

«Baina honek prezio politiko bat izango du; erdaldunek eta erdaltzaleek, beren hizkuntza erabili ezinean lehenengo aldiz gertaturik, sekulakoak botako bait dituzte arrazisten eta euskaromanoen kontra... Are Euzkadiren izenean ere, noski; eta, zer esanik ez, iraultza sozialistarenean. Hau dakigularik ere, aurrera jotzeko indarrik ba al dago gure artean?

Hauxe da nik airean utziko dudan galdera».<sup>190</sup>

## **EZAGUTZA, ERABILERA ETA LEIALTASUNA**

Txillardegi soziolinguistikaz aritu zen garaian, ez zegoen datu soziologiko enpirikorik, ez zen neurtzen hizkuntza menderatzailean edo gutxituan egiten ote ziren elkarrizketa zehatzak. Halatan, Soziolinguistika matematikoa asmatu behar izan zuen.

---

<sup>190</sup> “Euskararen erabilpenaren azterketaz”, in *JAKIN*, 1985, 78. or.

Gaur egun, berriz, baditugu datu soziolinguistiko enpiriko horiek. Iñaki Lurrebasok bere doktore-tesian erabili ditu, berriki. Oihartzun zabala izaten ari da.<sup>191</sup>

Txillardegiren Soziologia matematikoa, nolabait esateko, deduktiboa da: lege matematikoez erakusten dute zein diren euskara erabiltzeko aukerak gurea bezalako gizarte batean.

Lurrebasok, oster, neurketa enpirikoak egiten ditu, modu induktiboan doa behetik gora, behaketa zehatzetatik abiatuz ondorio orokorrak ateratzeko.

Ikerketaren norabidea gorabehera, antzeko ondorioetara iritsi dira: bai Txillardegik eta bai Lurrebasok ukatu egin dute gurean boladaka nagusitzen den ikuspuntu bat. Hauxe dio: euskararen ezagutza eta euskara erabiltzeko gaitasuna nabarmen handiagoa da erabilera erreala baino. Zergatik? Euskaldunak bere hizkuntzarekiko duen leialtasun, atxikimendu eta motibazio faltagatik. Txillardegi bat zetorren ikuspuntu horrekin 1985ean:

«Gauza pozgarri bat, hitz batez, eta herri askotan batera: *ezagueraren mailan* zola gainditu dugu. Baina ezagutzea eta erabiltzea biga dira; eta eguneroko ogia da euskaldun jendeen jokabidea: euskaraz ahal dutenean ere, erdaraz barra-barra, are ikastoletan eta D ereduko ikasguetan ere. Zer gertatuko da hurrengo belaunaldian, zifra hutsen arabera? Erantzun egin dezakegu».<sup>192</sup>

---

<sup>191</sup> IURREBASO, Iñaki: *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa, EHU, 2022*

<sup>192</sup> "Euskararen erabilpenaren arazoaz", in *Jakin*, 1985, 75. or.



Soziolinguistika matematikoan sakondu ahala, dena den, atzera egin eta kontrako ondorioaren berri eman zuen Txillardegik: egoera soziolinguistikoari dagokionez, ezagutzari eta gaitasunari buruzko datu objektiboak —ezin ukatu—, alarma gorria pizteko modukoak dira; aldi berean, hala ere, euskaldunek leialtasun izugarria erakusten diote beren hizkuntzari, meritu handikoa, inolaz ere, datu gordinak aintzat hartuz gero.

Esan bezala, Iñaki Iurrebaso bat dator Txillardegiren ondorio horiekin. Iurrebasoren datuen arabera, Euskal Herrian, gaur egun, hizkuntzen ezagutza kontuan hartuta, elkarrizketen % 82,1 erdaraz da ezinbestez, elebakarrek beren hizkuntza inposatzen dutelako. Iurrebasok kalkulatu du euskaraz nahitaez % 0,8 direla elkarrizketak, ia ez zaigu—eta euskaldun elebakarrik gelditzen.

Hortaz, elkarrizketarako zein hizkuntza aukeratu, % 17 baino ez dago solaskideen esku. Euskararen erabilera % 17,8koa litzateke, gehienez ere.

Datu enpirikoek diotenez, gaur egungo erabilera % 14,9koa da, eta horrek esan nahiko luke askoz ere hurbilago dagoela gehieneko erabilera posibletik gutxieneko erabilera posibletik baino.

Esate baterako, elebidunen artean badira hizkuntza biak maila bertsuan darabiltzatenak; beste batzuegan, berriz, hizkuntzetako bat da nagusi. Azken hauen artean, maizago darabilte euskara erdal elebidunek, erdara euskal elebidunek baino. Eta elebidun orekatuek maizago darabilte euskara erdara baino.

Kontuan hartuta, gainera, elebidun gehienei errazagoa eta erosoagoa zaiela erdarara jotzea, erdaraz hobeto moldatzen direlako —erosotasunari amore eman ez gero, % 8'2 baino ez lirateke euskarazko solasaldiak—, garbi dago euskaldunaren hizkuntz-leialtasuna harrigarria dela, eta, Txillardegirentzat zein Iurrebasorentzat, txalotzeko modukoa.<sup>193</sup> Gorde tiraderan beraz zilizioa.

## **BIZI (BENETAN BIZI) ALA GEUK AKABATU**

Txillardegik ez ditu, Heideggerek bezala, hizkuntzak hierarkizatzen. Heideggeren ustez, grekoa eta alemana ziren filosofatzeko egokiak, baita euskara ere; ingelesa, latina edota latinetik eratorritako gaztelaniak edo frantsesak, berriz, ez dute filosofatzeko gaitasunik.

Txillardegiren iritziz, aitzitik, edozein hizkuntzak balio du giza harremanetarako, eta eman dezake dagoenaren berri, gizakion ahalmenaren muga estuen baitan, noski. Baina ez dago, berez, egituraz, goi-mailako eta behe-mailako hizkuntzarik. Gaur egun, hizkuntza jakin batzuk erabiltzen badira zientzian eta unibertsitateetan, arrazoi historikoek eta kontingentziek azaltzen dute hori: gerrak irabazi izanak, Estatu indartsuen tresnak era efikazean erabili izanak hizkuntza horiek ezartzeko eta zabaltzeko...

---

<sup>193</sup> IURREBASO, Iñaki: *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*, EHU, 2022, 633-638. orr.

Txillardegi galzorian dauden hizkuntzak indartzearen aldekoa zen, mundu modernoan praktikoak izateko berritzearen, osatzearen eta sustatzearen aldekoa. Ordea, zenbait herrik abandonatu egin du bere hizkuntza, bizitzeko orduan lagungarri baino gehiago oztopo zaiolako, traba. Eta ez soilik estaturik gabeko hizkuntzak. Gorago aipatua da Txillardegik beti izan zuela oso presente gaelikoaren kasua: Irlandak independentzia eta estatu propioa lortu ondoren azkartu zen, hain oker, gaelikoaren gainbehera.

Milaka eta milaka hizkuntza jaio eta hil dira Historian eta Historiaurrean. Hilzorian ikusten zuen Txillardegik euskara. Abertzalea zenez, haatik, euskara maite zuenez, euskara gaurkotzeko, zorrozteko, indartzeko eta gizartean ezartzeko lanari eman zitzaion buru-belarri. Ez baldin badugu euskara hiltzen ikusi nahi, lanari ekin behar diogu, sarritan erosotasuna sakrifikatu behar badugu ere.

Halatan, Txillardegik, euskara bere kabuz primeran ikasteaz gain, gure hizkuntzaren alde eman zuen bizia: hasiera eman zion euskal nobelagintza modernoari, erabakigarria izan zen euskara batua sortzeko orduan, Soziolinguistika zabaldu zuen gure artean, *Euskal Herrian Euskarazen* sortzaile izan zen eta euskararen aldeko zerbitzuak erabaki zuen erakunde politikoetan egin zuen lana.

Edozelan ere, garbi idatzi zuenez, ez bagara gai euskara mintzabide praktiko eta jakintzagai garrantzitsuenen adierazpide bilakatzeko, euskarak ez baldin badu euskaldunon gizatasuna mamitzeko balio,

orduan hobe dugu lehenbailehen hiltzea, gure eskuekin hiltzea, itxurakerian ibili barik.

Eta, euskarari dagokionez, itxurakerian ikusi zituen Txillardegik jeltzaleak, ETA, baita ezker abertzaleko alderdi politikoak ere; eta itxurakeria hori kriminala zitzaion, lehenbailehen eta premia larriz hartu behar direlako bertatik bertara hiltzen ari zaigun euskararen aldeko neurriak, eta zorrozki ezarri, euskara salbatuko bada. Besteak beste, ezinbestekoa zaigu euskal estatua. Hara Txillardegiren esaldirik ospetsuena: «Estatu batekin, euskara, agian ez da salbatuko; baina estaturik gabe, ziur ezetz».<sup>194</sup>

## EUSKAL ESTATURANTZ

1966an argitaratu zuen Txillardegik “Hizkuntza eta erresuma” artikulua, *Branka* aldizkarian. Horrela laburbildu zuen 2004an:

«Erresuma propiorik gabe, tesi «apolitikoek» esaten zuten eta dutenaren aurka, nekez berma daitekeela gaur egun nazio-hizkuntzaren etorkizuna, eta tresna erresumatarren beharra aldarrikatu zuen. Eta, beraz, instituzio publikoez nagusitzeko borroka **politikorik** egin gabe euskarak jai daukala».<sup>195</sup>

Artikuluari Txillardegik aitor du ulergarria zaiola autonomistak eta progre espainolak euskarari kontra egitea; ez, ordea, euskaltzaleak eta

---

<sup>194</sup> *Berría*, 2011-01-11. *Euskal Herrian Euskaraz* taldeak deituta, manifestazioa egin zen Donostian 2011ko urtarrilaren 11n. Ekitaldi horretan omenaldia egin zioten Txillardegiri. Manifestazio horren kariatara, *Berriak* Txillardegi elkarrizketatu zuen. Elkarrizketa horretan bota zuen esaldi famatua.

<sup>195</sup> *Euskararen aldeko borrokan*, 8. or.

abertzaleak. Horietako gehiegik espainolen eta frantsesen sedukzioan jartzen dute euskararen salbazioaren giltzarria; zehazki, ospearen eta literaturaren bidezko erakarpenean. Euskal eskola batzuekin ere egin ei geniezaioke aurre apika erdarari.

Halakoek diotenez, Sabino Arana izan da euskaldunik kaltegarriena, abertzaletasunari bide politikoa zabaltzeagatik, abertzaletasunak ez bestek nahasi baitu gure herria, eta hiltzeko zorian jarri. Zoritxarra baizik ez dakarkio politikak Euskal Herriari. Kosta lain kosta utzi behar da euskara politikatik aparte.<sup>196</sup>

Txillardegiren ustez, aitzitik, euskarak pairatzen duen egoeran, ezinbestekoa zaigu politika, eta euskal estatua lortzera bideratu beharko genuke.

Hizkuntzak galtzeko arrazoiak aztertzen ditu donostiarrak. Ez du hodei olerkarien artean ibili nahi, hankak lurrean baizik. Meillet adituarena dakar: lurralde jakin batean ongi ezarririko hizkuntzak bizirik iraungo du.<sup>197</sup> Alta, ez du hizkuntzaren barne egiturak erabakitzen hizkuntza jakin bat lurralde jakin batean ezaguna eta erabilia izatea, baizik eta estatuaren mintzabide izateak. Oskoera eta umbriera ez ziren latina baino primitiboagoak edo zailagoak. Hala ere, oskoera eta umbriera hil egin ziren, eta latina hedatu. Arrazoa: Erromako estatuak latina hartu zuen hizkuntza ofizialtzat. Erromatar inperioaren batasunean finkatu zen

---

<sup>196</sup> *Ibidem*, 104. or.

<sup>197</sup> *Ibidem*

latinaren batasuna. Eta inperioa desegiteak erabaki zuen azken batean latinaren heriotza.<sup>198</sup>

Marxistek diotenez, estatua ez da klase baten tresna baizik, eta hizkuntzen patua klaseenari datzekio. Txillardegik aitor du klaseek garrantzi handia dutela hizkuntzaren zorian; eta estatua klase nagusiaren tresna izaten da. Dena den, giltzarria estatua da. Klaseak ez dira estatutik kanpo bizi. Klase jakin baten nagusitasuna estatuan mamitzen da. Estatua beti izan da talde baten zerbitzari: bai antzinateko estatu-moldea, bai burgesa; eta komunista ere bai.<sup>199</sup>

Meillet aipatzen du Txillardegik berriz ere: «agintarien klasearen hizkuntza nagusitzen da beti». Galiako aiton-emeek galiera arbuiatu zutelako gailendu zen Galian ere latina. Boteretsuen hizkuntza nagusitu da beti Frantzian eta edonon. Euskal Herrian, elite ekonomikoak izan ziren lehenbizikoak euskara abandonatzeko eta erdara besarkatzeko eta inposatzeko orduan.<sup>200</sup>

Berriki arte mintzatu da nederlandera Holandan ez ezik Belgikan zein Frantzian ere, Lillen, Dunkerquen eta Calaisen. Zabalak dira, haatik, dagoeneko galdu dituen eskualdeak. Frantziako estatuaren jazarpena ikusten du Txillardegik heriotza horren atzean. Estatu atzerritar horrek galarazi die jatorrizko hizkuntza.<sup>201</sup>

---

<sup>198</sup> *Ibidem*

<sup>199</sup> *Ibidem*, 106. or.

<sup>200</sup> *Ibidem*, 104-105. orr.

<sup>201</sup> *Ibidem*, 105. or.

Zenbait adituk ez estatua baizik eta ospea dute galeraren gakotzat. Bretoiak edo nederlanderak ez omen dute osperik, frantsesak izugarria. Txillardegiren iritziz, berriz, Frantziako estatuak kendu zion ospea bretoiari Nantesen eta Saint-Malon, edota nederlanderari Lillen; eta Holandako estatuak eman dio ospea nederlanderari Amsterdamen. Estatu-hizkuntza bilakatzen ez diren hizkuntzak galtzen dira, eta estatu-hizkuntza bilakatzen direnak salbatzen. Horri dagokionez, ia ez dago salbuespenik.<sup>202</sup>

Beren buruaren jabe diren herriek hizkuntza bizirik dute; ostera, estatu arrotzen menpean bizi direnek galdua dute, edo galtzear, edo nabarmenki itzaltzen hasia, eta estatu-hizkuntza arrotza baliatzera izan dira bortxatuak. Azken mendeetan desagertu diren hizkuntzen artean, bakar bat ere ez zen estatu-hizkuntza.<sup>203</sup>

Txillardegirentzat, hizkuntza, funtsean, «gizarteko harremanetan erabiltzen dugun mintzabidea» da, gizarteko lanabesa. Harremanetarako mintzabide baldin bada, balio du; eta mintzabide ez bada, ez du balio. Mintzabidetasun hori da hizkuntzaren izankizun nagusia. Hizkuntza batek bere helburua betetzen ez badu, harremanetarako balio ez badu, harremanak debeku baldin bazaizkio, bere buruari uko egiten dio, ez du zentzurik; eta jendeak ahaztu egiten du, ospea eta literatura gorabehera.<sup>204</sup>

---

<sup>202</sup> *Ibidem*

<sup>203</sup> *Ibidem*, 106. or.

<sup>204</sup> *Ibidem*, 114. or.

Herri xeheak dioelarik familian ikasitako mintzairak ez diola jendartean balio, eta balio ez diolako, ahaztu egin nahi duela, herri xehe hori, Txillardegiren iritziz, zuzen dabil. Beste hizkuntza bat hartzeko beharra eta eskubidea du, jatorrizkoa ez baitzaio mintzabide egoki, ez dio bizitzen laguntzeko balio. Jokoz kanpo gelditu da herri xehearen jatorrizko hizkuntza, bizitzatik at. Ez dago gizaki konketuaren zerbitzura. Eta, Txillardegik dioenez, gizakiaren zerbitzuko behar du hizkuntzak. Eta ez baldin bada, baztertu eta suntsitu egiten da.<sup>205</sup>

## **IZAN ALA EZ IZAN**

*Branka* aldizkariko “Hizkuntza eta erresuma” berean, gizarteko harremanetan mintzabide den eta ez den aldetik ere aztertuko du Txillardegik hizkuntzaren eta estatuaren arteko harremana.

Geografiaz gain, estatuak sortzen eta ebakitzen ditu giza harremanak, lotzen eta bereizten du jendea.<sup>206</sup> Irun da Gipuzkoako herririk erdaldunena; euskararen erabilera Hendaian % 0,43koa zen 2011n. Alderatu Hendaiaiko tren-geltokiko kioskoan eta Irungoan salgai dauden aldizkarien hizkuntzak.

Estatuak ahalegindu dira iparraldeko eta hegoaldeko euskaldunen arteko harremanak eteten, galiziarren eta portugaldarren artekoak bezalaxe, edota flandestarren eta holandarren zein alsaziarren eta alemanen artekoak. Armadek ezarririko mugek bereizi dituzte elkarrengandik

---

<sup>205</sup> *Ibidem*

<sup>206</sup> *Ibidem*, 114. or.



herrikideak. Zentzu horretan, eta beste askotan, giza harremanak politikaren eta estatuaren mendeko dira:

«Horregatik hizkuntza ere, sustraietik beretik, erresumari datxekon instituzioa da. Erresumaren sortzeari, hiltzeari eta zatikatzeari, hizkuntzaren sortzea, hiltzea eta zatikatzea darraizkio».<sup>207</sup>

Estatuaren hizkuntza ofiziala erabiltzen eta erabilarazten da politikan, gobernuan, legegintzan, burokrazian. Administrazioan ere mintzarazten da: polizia, posta, epaitegiak.<sup>208</sup> Euskal Herriko udal batzuk euskaraz jarduten saiatu bezain laster heldu zaigu epaile eta sindikatu batzuen jazarpena.

Ekonomiari dagokionez, gailen ibiltzen da estatu-hizkuntza enpresan, industrian, merkataritzan, portuetan, garraioetan, bankuetan, jatetxeetan. Berriki, EAEko lehendakaria enpresaburu batzuen aurrean espainolez mintzatu da. Arazorik ez. Baina euskaraz hasi orduko eten diote eztatari-garbitze, eztultxo eta eztultzar espainolekin.

Armadan eta elizan ere, errukirik gabe baliatzen ditu estatuak hizkuntza ofizialaren aldeko iskiluak.<sup>209</sup> Armada: Bermeoko psikiatrikoan interno dagoen euskaldun elebakar izanaren kasua. Soldaduska egitera Guadalajarara bidali zuten eta hango mandoek eragin zizkioten arazo psikolinguistikoengatik dago barruan betiko. Elizari dagokionez, Hondarribiko lekaime klaratarraren kasua dugu. Guraso baserritarrek ia ez zekiten gaztelaniaz. 19 urte zituela moja sartu, eta gogor ezarri zioten

---

<sup>207</sup> *Ibidem*, 115. or.

<sup>208</sup> *Ibidem*

<sup>209</sup> *Ibidem*

deseuskalduntzeko protokolo eraginkor bat. Non eta Arizkungo komentuan. Botoa nori eman ere hierarkiak erabakitzen zion, eta, harritzekoa, inoiz ez zen izaten estatuaren hizkuntza-politika pittin bat kordokatzen zuen alderdiren baten aldekoa, kristau petoa izan arren.

Hedabideen inguruko politika ere nabarmen izaten da estatu-hizkuntzaren aldekoa.<sup>210</sup> Hizkuntza ofizialean mintzo diren idazleen, intelektualen eta liburuen propaganda egiten dutenak dira dirulaguntzarik oparoenak jasotzen dituzten hedabideak; mendeko hizkuntza erabiliz gero, nagusitasun horri oztopo seriozik jarriko ez diotenak izango dira sarituak. Arrisku txiki bat sumatu orduko, *Euskaldunon Egunkaria* itxiko dizute. Txillardegik Marxen ideia famatua egokitu, eta dio nagusitutako hizkuntza ez dela nagusien hizkuntza baizik.<sup>211</sup>

Halako egoera diglosikoetan, bizitza aurrera ateratzeko erabili behar den hizkuntza estatukoa da. Bizi-beharrez, egiazko mintzabidea estatuak bultzaturikoa da. Harreman horietatik guztietatik kanpo dagoen hizkuntza ezin izan daiteke mintzabide eta lanabes, ezin du bere funtsezko eginkizuna bete. Orduan, zertarako iraunarazten ahalegindu? Txillardegi: «Zer egin dezake herri batek egoera horretan, bere naziotasunaz ahalik eta lasterren lotsatu eta higuindu baizik?» De Manen metafora honen bitartez adieraziko du bere etsipena: hizkuntza arrotzean

---

<sup>210</sup> *Ibidem*, 116. or.

<sup>211</sup> *Ibidem*

gobernatua den herria da etsai armatuaren kontra bere burua babesteko esku garbiez gain deus ez duen pertsonaren antzekoa.<sup>212</sup>

Hizkuntza bat ez da eguneroko mintzabide bilakatzen errukia piztuz, are gutxiago estatu arrotzaren morrontzan, baizik eta nagusitasuna lortuz politikan, administrazioan, ekonomian, hezkuntzan, osasungintzan eta giza harremanak gauzatzen diren toki orotan. Oilo–azala jartzen dute Txillardegiren konparazio hauek:

«Arras nagusitzen ez bada, alperrik da negar egitea: hizkuntza hori galdu egingo da. Are gehiago: beharrik galdu! Ebakitzeko balio ez duen labanak, edo itsasoa gurutzatzeko balio ez duen ontziak, ez batak ez besteak dute beren eginkizuna betetzen; eta, noski, gupidarik gabe zokoratu egiten dira, eta ahantzi. Gauza bera gertatu ohi zaio mintzabide ez den hizkuntzari».<sup>213</sup>

Euskal estatua laster lortzen ez badugu, gure herriarenak egin du. Berandu baino lehen suntsituko digute Euskal Herria. Gure eguneroko bizitzan euskara nagusitu dadin, bide bakarra dakusa Txillardegik: euskara bilakaraztea estatuko hizkuntza bakar; eta legea euskararen alde jartzea. «Nagusitu diran hizkuntza guziek hori egin dute. Eta hau egin ez dutenak, galdu egin dira». Horixe irakatsi dio Txillardegiri kondairaren azterketak.<sup>214</sup>

Ez baita aski euskal estatua. Gainera, euskal hizkuntzaren eta kulturaren zerbitzuko jarri behar da. Bestela, geuk hilko beharko genuke euskara, eta Espainian eta Frantzian urtu.<sup>215</sup>

---

<sup>212</sup> *Ibidem*, 116-117 orr.

<sup>213</sup> *Ibidem*, 117. or.

<sup>214</sup> *Ibidem*

<sup>215</sup> *Ibidem*

Euskaldunen herria jabetu behar da estatuaz, eta Frantziaren eta Espainiaren mendekotasunetik askatu. Hala ere, euskal estatu librean erdara nagusituz gero, askatasuna egongo da, bai, baina arrotzentzat. Eta, Txillardegik dioenez, kanpotarren eskubideak errespetagarriak dira, ez dago dudarik. Baina bertakoenak ere bai!

Euskal estatu librearen euskararen zerbitzura: horra Txillardegiren giltzarria.<sup>216</sup>

---

<sup>216</sup> *Ibidem*, 118. or.

# HIRUGARREN ATALA: BIOGRAFIA

## EUSKARAREN ALDEKO OBUSA

Jose Luis Alvarez Enparantza, ezizenez *Txillardegi*, 1929an jaio zen, Donostian.

Gurasoek, euskaraz jakin arren, ez zioten irakatsi.

Birraitona Madrildik Tolosara etorri zen. Aitona Bidaniako Bittorirekin ezkondu zen. Baina Bittori gazterik hil ondoren, aitonak Antiguara hartu zuen, Tolosako euskal munduarekikoak oro etenik. Izan ere, Antiguako Casa Victorian (amona Bittoriren omenez hala izendatua), Gaztelako birramona baitzen bihotza. Berehala egin zuen han euskararenak. Eta huraxe izaki Txillardegiren etxea.

Etorkin familia batean hazia, eskarmentu gogorra izan du euskara amatatzeko saioen laguntzaile inkontzienteekin zein kontzienteekin. Bere bizitza eta bere ahalegina, hein handi batean, bidegabeki itzaliriko Bittoriren euskal mundua sustatzeari eman dizkio.

Behin batean, txikitan, aitak Igeldoko Muitza baserrira eraman zuen, eta sekulako zirrara eragin eta egundo ahaztuko ez zuen pasadizoa kontatu zion hantxe. Muitzatik itsasorantz bada labar labain more-beltz bat, harkaitzezko txirrista. Baserrian bazuten asto bat; zahartu eta itsutu egin zen. Ez zekiten nola akabatu. Azkenik, begiak zapi batez estali eta labar hartatik behera amildu zuten.

Nerabezaroan hasi zen Txillardegi euskara bere kabuz ikasten. 1949an Bilbora joan zen Ingeniaritza ikastera. Hirian euskararik ez, eta Otxarkoagara jotzen zuen ahal zuen aldiro baserritarrei euskaraz entzutera. Bilbon ekin zion euskara ardatz izango zuen militantzia politikoari. 1950ean atxilotu eta espetxeratu zuten lehenbizikoz. 1953an, ikaskide batzuekin batera, Ekin taldea sortu zuen, gerora ETA izango zenaren ernamuina.

1956an, Galiziako Ferrolen soldaduska egiten ari zela, *Leturiaren egunkari ezkutua* idatzi zuen, lehen euskal nobela modernotzat jo izan den Txillardegiren aurreneko eleberria. Beste sei idatzi zituen gerora. Soldaduska amaitu eta Donostiara itzuli zen. Bertan, motor-fabrika batean hasi zen lanean berehala, eta bete-betean jarraitu zuen euskararen aldeko militantziarekin. 1957an euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak, eta urte biren buruan, berriz, “Euskaltzaindiaren Laguntzaileak” taldeko idazkari. Ordurako, hasia zen Gipuzkoako Diputazioan Euskal Literaturako eskolak ematen. 1959an ETA erakundearen sorreran parte hartu zuen —berea da ETA izena—; 1960an sartu zuten bigarren eta azken aldiz kartzelan, oraingoan ETAKoa izateagatik.

1961ean, 32 urte zituela, poliziaren paperetan behin eta berriz ageri zenez, Iparraldera egin zuen ihes. Baina Frantziak ere Iparraldean bizitza debekatu zion eta Parisen jarri zen. Orduan hasi zen hamasei urtez luzatuko zitzaion erbestealdia.

1962an, kanporatze-aginduari muzin egin, Hazparnera itzuli eta Matematika irakasle aritu zen. Handik urtebetera Euskal Idazkaritza Elkarteak sortu zuen beste euskaltzale batzuekin batera Baionan, eta euskararen alorreko arduradun jarri zuten Txillardegik. Elkartearen asmoetako bat euskara batua bultzatzea zen.

1963an, dimisioa aurkeztu zuen Euskaltzaindian, *Enbata* kazetan gutun bat argitaratuta. Euskara batua sustatzea exijitzen zion Euskaltzaindiari, eskoletan euskara bultzatzea, ortografia batzea, apaizei elizan euskaraz egiteko eskatzea, premiazko batzar berezi bat deitzea... Erakundea geldirik eta bertan goxo zegoela uste zuen. Batzarra laster egingo zela erantzun zioten, ez ziotela dimisioa onartuko. Badaezpada ere, Txillardegik 1964an Euskal Idazkaritza Elkarteak euskara batua izango zenaren oinarriak adostera eramanean zuten, 1968an Arantzazun Euskaltzaindiak ia bere horretan ofizial bilakaraziko zituenak.

Erbestealdiaren lehenbiziko urteetan, batez ere Parisen eta Ipar Euskal Herrian ibili baldin bazen ere, 1965etik aurrera —Frantziatik kanporatua izan ostean—, Brusela eta Waterloo izan zituen bizileku, harik eta 1969an konfinamendua hautsi eta Iparraldera itzuliko zen arte. Waterloon idatzi zuen *Elsa Scheelen*, emakume bat protagonista duen lehen euskal eleberria. “Eskolako beti-lehenak” gorroto zituen Txillardegik hainbat arlotan izan genuen lehenbizikoa: aipaturikoez gain, lehen euskal saiakera modernoa argitaratu zuen, *Huntaz eta hartaz*, eta, agian deigarriago, lehenbizikoa izan zen psikoanalisi euskaraz zabaltzen, zehazki Lacanen irakaspena. Inkontzientea hizkuntza gisa dagoela

egituratua zioen Lacanek, eta hori ere aprobetxatu zuen Txillardegik euskararen alde. Zer pentsatua franko eman die zenbait lacandarri pertsona bera izateak ETaren sortzailea eta Lacanen lehen euskal jendarteratzailea.

Atzerrian zebilenean ere, Txillardegik 60ko hamarraldian ETAn jarraitu zuen. Baina 1967an, uste zuenez euskarari buruzko ETaren zuzendaritza berriaren jarrera marxista-leninista ortodoxoak hizkuntza eta, horrenbestez, herria galbidera eramango zituela, dimisioa eman zuen berak sortutako erakundean. Orduko zuzendaritzaren ildo nagusiarekin kritikoa zen *Branka* aldizkaria argitaratzen hasi zen Txillardegi Bruselatik, baina ETaren zuzendaritza berriak, *Branka* militanteen artean zabalduko zuela agindu arren, itsasora bota zituen ale guztiak. ETAn zein ETatik kanpo, euskalgintzan zein kulturgintzan aritu zen Txillardegi beti buru-belarri, bizialdi osoan.

Harrigarria da zenbat idatzi zuen. Ingeniari eta irakasle ibili zen lanean; ezin, beraz, egunez bere idazkiei denborarik eskaini. Orduan?

Alaba Maddik kontatua: etxean goiz afaltzen zuten, “eta afalondoren aita bere bulegoan sartzen zen irakurtzeko, ikertzeko edo idazteko, normalean zortzietatik gauerdira arte”.

Bestalde, “idazterakoan, lehen bertsioa eskuz egiten zuen beti, eta gero jotzen zuen ordenagailura.” Eskuz idazteko, “nahiz eta bazituen boligrafo dotoreak, aitak beti nahiago izaten zuen boligrafo ‘kutre’ samarrak erabili, bisitatzen zituen herrietako *souvenirs* dendetan erositakoak



(bertako irudiekin, eta abar) edo plastikozkoak, ezohiko itxura zutenak, marrazki koloretsuak eta...”.

Belgikako konfinamendua hautsi, eta lehenbiziko urtean irakasle laguntzaile hasi zen Bordeleko Unibertsitatean. Unibertsitateari loturik ibiliko zen beti aurrerantzean, 1999an erretiroa hartu arte.

Hendaian bizi zela, Linguistikako lizentziatura lortu zuen Parisko Sorbonako Unibertsitatean, eta, behin Hegoaldera itzulirik, 1976an, Euskal Fonologia irakasten hasi zen Deustuko Unibertsitatean.

Euskal Herrian Euskaraz elkaratearen sortzaileetako bat izan zen, 1979an: Euskal Herria erabat euskalduntzea du helburu, baita Euskal Herrian euskaraz bizi ahal izatea ere, eta euskaldunen aurkako erasoak salatu eta euskaldunen eskubide linguistikoak babestea.

1981–1982 ikasturtean, unibertsitateko lanak urtebeterako uztea erabaki zuen, AEBetan Fonetika eta Fonologia ikasteko. AEBetako ikasturtea bukatu zuenean, Soziolinguistika irakasteari ekin zion Euskal Herriko Unibertsitatean, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Aldi berean, euskal azentuari buruzko doktore tesia bukatu zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan.

1989an, *Bat* izeneko soziolinguistika aldizkaria sortzen lagundu zuen, eta hamahiru urtez izan zen aldizkariko zuzendaria. 1999an, EHUK katedradun emeritu izendatu zuen. Urte berean, UEUK ohorezko kide izendatu zuen, eta beste hainbeste egin zuen EIZIEk 2002an. Hainbat

omenaldi jaso zituen ondorengo urteetan; esaterako, Durangoko Azokak “Argizaiola” saria eman zion 2004an.

Irakasle-lanekin batera, militantzia politikoan ere jarraitu zuen Txillardegik. Hegoaldera itzuli bezain laster, ESB alderdia sortu zuen. Handik pixka batera, alta, bertatik egotzi zuten; besteak beste, alderdiaren euskalduntzea eta diglosiaren aurkako neurriak exijitzeagatik. 1986an eta 1989an, Herri Batasunaren zerrendan zihoala, Espainiako Senaturako aukeratu zuten; aldi berean, HBko Mahai Nazionaleko kide izan zen.

1999an, Lizarra-Garazik ahalbidetutako su-etena hautsi zuen ETAk. Etsirik, Txillardegik HB utzi eta Aralar alderdiaren sorreran hartu zuen parte. 2007an erabaki zuen Aralar uztea, abertzalea ez den Ezker Batuarekiko lankidetzarekin desadostasunagatik, eta 2008an betiko ezker abertzalera itzuli eta Espainiako Gorteetarako EAE-ANVren hautagai izan zen.

2012an hil zen, 82 urte zituela, hidrozefaliak jota. Igeldoko Muitzatic itsasora doazen labar labainetan sakabanatu zituzten senideek Txillardegiren errautsak.

# ERANSKINA: TXILLARDEGIREN ETA EREÑOREN ARTEKO POLEMIKA

Ertz ugari dauzka Txillardegiren eta marxisten arteko eztabaidak, eta hemen hizkuntzari dagozkionetara mugatzen saiatuko naiz. Zer leporatzen zioten elkarri Txillardegik eta marxistek?

Polemika hura hitzezkoa izan zen batik bat: laburbilduz, *españolazo* sozial-inperialistak eta komunista sotanadunak, CIAren agente burgesen aurka, orduko mintzamolde fina erabiltzeko. Idatziz, Txillardegik *Branka* aldizkariko lehenbiziko alean 1966an argitaratu zuen “Hizkuntza eta pentsakera” artikuluari, Manuel Ereñok hurrengo urtean erantzun zion *Arragoa* aldizkari komunistan, “El solipsismo lingüístico en el ensayo «Hizkuntza eta Pentsakera» de Txillardegi” lan sendoarekin.<sup>217</sup> 1972an *Hizkuntza eta pentsakera* liburua atera zuen Txillardegik, 1970erako amaitua zuen arren. Hor ez du Ereño aipatzen, baina haren kritikako zenbait punturi erantzuten dio. Marxisten eta estrukturalisten artean Parisen zebilen ika-mikaren isla da Txillardegiren eta Ereñoren artekoa.

“Txillardegi” eta “Larresoro” bezala, ezizena zen “Manuel Ereño” ere. Francisco Zalakain Illarramendi errenteriar komunista ezkutatzen zen atzean. *Euskadiko Alderdi Komunistako* buruzagitza ibili zen eta *Alkartu* eta *Euskadi Obrera* bezalako aldizkarietan idatzi zuen. Leninen *Estatua*

---

<sup>217</sup> *Saioak* aldizkarian jaso, Baiona, 1979, 279-309. orr. *Jakinek* sarean jarri du.

*eta iraultza* euskaratu zuen. 1964an *Arragoa* aldizkaria fundatu zuen, eta han atera zuen Txillardegiren *solipsismo* linguistikoaren kritika.

Hizkuntzek herrien izaera eta psikologia jasotzen eta biltzen dituzte: bat datoz Txillardegi eta Ereño. Ordea, Txillardegik esaten du euskara galduz gero, Euskal Herriarenak egingo lukeela. Ereñoren ustez, alderantziz planteatu behar da arazoa: euskal izpiritu eta borondate nazionala galduz gero, ez baldin bada herritik sortzen euskara pizteko gogo eta ekimen sakona, orduan izango dugu hizkuntza galtzeko arriskua.

Aspalditik ezagutu ditugu gurean marxista-leninista euskaltzaleak. Halakoa zen ETaren sortzaileetako bat ere, Eneko Irigarai. ETaren V asanblada baino lehen, erakunde *bizefalo* bat sortzea proposatu zuen Txillardegik, alde bat marxista-leninista eta bestea, berea, sozialista autogestionarioa. Ez zioten onartu eta dimisioa eman zuen.<sup>218</sup>

Esanguratsua da gaztelaniaz hazi eta hezitako Txillardegik euskaraz idaztea artikulua, eta Manuel Ereño euskaldun zaharrak, berriz, gaztelaniaz. Dena den, zeharo sinesgarria egiten da Ereño komunistak euskarari eta herriari erakusten dien maitasuna. Euskaraz ere idazten du, ondo ezagutzen du bertsolaritza, goitik behera ditu irakurriak eta entzunak Xenpelar, Otaño, Basarri eta Mattin. Ez doakio “sozial-inperialista” etiketa; Txillardegiri ere ez Ereñok darabilen “erreakzionario”. Zoritxarrez, erdi lo bizi garen euskaldunak esnatzeko beharrezkoa izaten da hizkera deigarri hori. Ez da ñabarduraren gailurra

---

<sup>218</sup> *Hitza hitz*, 109. or.

izaten, baina tratatu zentzuduna baino pizgarriagoa bai, behintzat. Alde txarra: maizegi sakrifikatzen duela egia zehatza.

## **BENETAKO DESADOSTASUNAK**

Itxurak gorabehera, Txillardegi eta Ereño bat datoz hainbat puntu garrantzitsutan. Baina desadostasunekin hasiko gara.

1. Txillardegik “zakuzale” deitzen die hizkuntzaren kontzepzio atomista ez estrukturalista dutenei, hizkuntza zaku batean sartzeko moduko hitz-bilduma gisa ikusten dutenei. Hala balitz, ez litzateke garrantzitsua hizkuntza bat edo beste bat erabiltzea.<sup>219</sup> Baina, Txillardegiren ustez, hizkuntza ez da hitzez beteriko zakua, baizik eta oposizioak eta transformazioak bizi dituen estruktura mordoa, eta hizkuntza batetik beste batera igarotzea ez da axaleko kontua. Hezurdura baita hizkuntza, ez soinekoa.<sup>220</sup>

Ereñok bumeranarena jokatu eta Txillardegiri egotziko dio beste edonor baino zakuzaleagoa izatea, zaku berean sartzeagatik Whorf eta Mounin, Benveniste eta Hjemslev, Marcel Cohen eta Sapir. Manipulatu egiten omen ditu Txillardegik hizkuntzalari horien esanak, hizkuntzak mundu-ikuskerak dakarrela dioen teoria indartzeko. Eta marxistentzat gaitzesgarria da teoria hori.<sup>221</sup>

---

<sup>219</sup> *Euskararen aldeko borrokan*, 68-69. orr.

<sup>220</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 126. or.

<sup>221</sup> “El solipsismo lingüístico”, 307. or.

2. Zuzen dabil Ereño, dioelarik Lévi–Strauss eta Txillardegik lakoenean, hizkuntzalaritzak mendean hartzen dituela historia, ekonomia politikoa, antropologia, etnografia, psikologia, etab. Estructura linguistikoak ekonomia politikoa ere estaliko luke. Hizkuntzalaritzak goitik behera ordeztu litzake gizarteko azpiegitura materialaren determinazioak. Haatik, azpiegitura material horrek dauka marxistentzat zeregin determinantea.<sup>222</sup>

Ñabardura bat: Ereñoren hitzetatik ondoriozta liteke Txillardegiren hizkuntzalaritzak ez duela zerikusirik materiarekin. Baina giza burmuinaren fisiologian sustraituriko gramatika kognitibo gisako bat litzateke Txillardegik “estrukturamena” deritzona. Lévi–Straussentzat zein Txillardegirentzat, garuneko zelula materialen martxak eraginiko gramatika kognitibo hori legoke mundu sinbolikoen eta kulturalen oinarrian. Egia da bestelakoa dela marxisten materia: gizarte eta garai zehatz bateko harreman ekonomikoek eta baldintza material eta teknologikoek osatzen dute marxistentzat oinarritzko esturktura, azpiegitura.<sup>223</sup>

3. Ereñoren kritikaren arabera, hizkuntzen arteko diferentziak baizik ez ditu azpimarratzen Txillardegik. Marxisten ustez, oster, unibertsal ugari dago hizkuntzen artean errealitatea taxutzeko orduan ere.<sup>224</sup>

4. Txillardegik uste zuen Euskal Herriak zapalketa bikoitza pairatzen duela: nazionala eta soziala. Maok Txinan egin bezala, nazioa askatu

---

<sup>222</sup> *Ibidem*, 306-307. orr.

<sup>223</sup> *Dictionnaire Lévi-Strauss*, 642. or.

<sup>224</sup> “El solipsismo lingüístico”, 299. or.

beharra dago aurrena, fronte nazionala osatuz euskaldun guztion artean. Ondoren egingo dugu iraultza sozialista. Baina ezer baino lehen, mundu-ikuskerara berdintsua ematen digun euskararen erabiltzaileok behar dugu elkartu.<sup>225</sup>

Ereñoren iritziz, aldiz, kapitalista zeken euskaldunak eta langile kontzienteak, nahiz eta hizkuntza bera erabili, zeharo desberdina dute mundu-ikuskerara. Ez baita gauza bera soldata ordaintzea eta soldata jasotzea. Zuretzat izango ez den gainbalioa sortzeko lan egitea, edo gainbalio hori sakelaratzeko, alde horrek bai dakarrela mundu-ikuskerara desberdina. Hurbilago du langile euskaldunak Granadakoakoa, Esteban Orbegozoren tankerako burges euskalduna baino.

5. Kanten eta Lévi-Straussen logika analitikoarekin bat egiten zuen Txillardegik; eta Ereñok, berriz, Hegelen eta Marxen logika dialektikoarekin. Ordea, Txillardegik ikusten zuen dialektikaren fase negatiboa Stalinen, Maoren eta Pol Poten milioika hilketak zuritzeko erabiltzen zela, ezinbestekoa omen baita antitesia sintesi loriatsura heltzeko. Oinazearen bidez dator zerua. Odola eta heriotza exijitzen ditu dialektikak, erabat positiborainoko bidean. Txillardegik ez du horrela ikusten historiaren martxa. Etengabeko aurrerapen dialektikoa baino gehiago, aniztasuna eta jauziak ikusten ditu.<sup>226</sup>

Bestalde, gurean nagusi den Historiak hizkuntzak bezalaxe funtzionatzen du: guk taxutzen ditugu gertaerak, batzuk nabarmenduz, beste batzuk

---

<sup>225</sup> *Hitza hitz*, 99. or.

<sup>226</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 74. eta 131. orr.

baztertuz. Historian aurkitzen omen ditugun legeak, dialektikoak eta beste edozein, geuk jarri ditugu aldez aurretik, gertaerak aukeratzeko eta antolatzeke orduan.<sup>227</sup>

## **DESADOSTASUN ARTIFIZIALAK**

Bai Txillardegik eta bai Ereñok gartsuki adierazi zituzten beren arteko desadostasunak. Dena den, oinarrizko ideia askotan ados egon arren, batzuetan, polemikaren fabore, artifiziarki behar dira desadostasunak sortu, arerioaren esanak apur bat bihurritu behar badira ere, eztabaidaren ikuskizuna itzaliko ez bada. Horrelaxe ibili ziren Txillardegi eta Ereño ere.

## **EREÑOREN ALDETIK**

1. Marxisten ustez, herriaren ispilua da hizkuntza. Aldiz, Ereñok dioenez, alderantziz gertatzen da Txillardegirentzat; alegia, hizkuntzaren ispilua dela herria, hizkuntzak beste barik sortzen baitu mundu-ikuskerara, automatikoki. Gizarteari eta historiari ezikusia egitea gaitzesten du Ereñok, hizkuntzatasun hutsean kontzentratzea.<sup>228</sup>

Hori ez da inondik inora Txillardegiren kasua, ez gogoetan ez ekintzetan. Sekula ez zuen idatzi hizkuntzak mundu-ikuskerara automatikoki sortzen duela, eta bistakoa zitzaion hizkuntza gizartean bizi den izaki historikoa dela. Beti piztu zion jakin-mina euskararen historiak, eta euskara

---

<sup>227</sup> *Ibidem*, 75. or.

<sup>228</sup> "El solipsismo lingüístico", 307. or.



gizartera eramateko lagundu zuen —modu erabakigarrian— euskara batua sortzen.

2. Etengabe leporatzen dio Ereñok Txillardegiri hizkuntzek ez dutela logikarik esatea<sup>229</sup>, baina Txillardegik dioena da hizkuntza guztiek ez dutela Logika bera, baizik eta bakoitzak berea; hain zuzen, Ereñok eta marxistek uste dutena. Horri loturik errepikatzen du Ereñok Txillardegik zeharo ukatzen duela itzulpenaren aukera, baina Txillardegik “Hizkuntza eta pentsakera” artikuluan «[...] ez dago hitzez hitz itzultzerik» idatzi zuen. Ez da gauza bera.

3. Ereñorentzat, aurkakoak dira dialektika eta estrukturalismoa. Dogmatismo antidialektikotzat dauka estrukturalismoa<sup>230</sup>, sinkronia estatikoa baitarabil hizkuntzaren fenomenoak ulertzeko, diakroniaren eta dinamika historikoaren ordez.

Ereñoren esanetan, marxismoak ez die estrukturei ezikusia egiten, baina ez dira gauza bera estrukturak eta estrukturalismoa. Materialismo dialektikoaren arabera, estrukturak ezin dira finkoak eta geldiak izan, beti berberak, aldaketarik gabe; aitzitik, estrukturek ere aldaketak daukate, bilakaerak. Estrukturetako aldaketak geldiak edo bizkorak ote diren, kasurik kasu aztertu beharko, baina inoiz ez dago oreka estruktural eternorik.<sup>231</sup> Edozelan ere, Txillardegik egundo ez zituen baztertu ez diakronia ez historia, eta inoiz ez zuen eternaltasun linguistiko hori aldarrikatu.

---

<sup>229</sup> *Ibidem*, 292. or.

<sup>230</sup> *Ibidem*, 304. or.

<sup>231</sup> *Ibidem*, 305. or.

## TXILLARDEGIREN ALDETIK

1. Txillardegik komunisteri leporatzen die nazio-arazoa ukatzea eta hizkuntzaren garrantzia gutxiatea: ez ei da gainegitura baizik. *Brankan* dioenez, Euskal Herrian ezkerrez nagusitzen ari diren sasi-ezkertiarren ustetan, «[...] herririk ez dago, klaseak daude soilik. Hizkuntzen gorabeherak kapitalistek asmatutako sasi-problema dira».<sup>232</sup>

Haserretu egin zuten Ereño komunista euskaltzalea Txillardegiren hitz horiek. Ereñoren esanetan, Txillardegiren asmakeria da komunistentzat ez dagoela herririk. Alderdi komunistek beti hartu ei dituzte oso kontuan nazio-arazoak. Langileriaren eta herriaren alderdia da Alderdi Komunista, alderdirik nazionalena. Langileen klasea da nazioaren bizkarrezurra, eta nabarmena da hori Euskal Herrian. Alderdi Komunistak sortu zenez geroztik egin du Euskadiren eskubide nazionalen alde. Eta eskubide horien artean dago euskararen eta euskal kultura nazional osoaren defentsa eta garapena. Engelsen hitzetan, gizateriaren ondasun kulturala osatzen dute hizkuntzek.<sup>233</sup>

Ereñoren iritziz, kontraste itzela egiten du Marxen eta Engelsen argitasun zientifikoak Txillardegiren *solipsismo* irrazional ilunarekin, ezin erreakzionarioagoa.<sup>234</sup>

---

<sup>232</sup> *Euskararen aldeko borrokan*, 69. or.

<sup>233</sup> "El solipsismo lingüístico", 284. or.

<sup>234</sup> *Ibidem*

2. Hizkuntzen eboluzionismoa aldeztea ere egozten die Txillardegik komunistei: hizkuntza berez aurreratuagoak leudeke, egituraz hobeak, eta beste batzuk kaxkarragoak, logika-lerro bakar batean segida bereko kate-begiak balira bezala.<sup>235</sup> Ordea, hitzez hitz dio Ereñok estruktura linguistikoetatik kanpoko kausek egokitzen dutela hizkuntza bizi den gizartera, produktu filogenetikoa baita hizkuntza, giza eboluzioaren eta gizarte-praktikaren produktua. Estrukturak aztertuz eta alderatuz gero, ez dago goi-mailako eta behe-mailako hizkuntzarik.<sup>236</sup>

## HANPADURAREN ZIOAK

Egia bada ere polemikari esker artez irudikatu eta uler dezakegula zertan ziren Txillardegiren eta marxisten arteko adostasunak eta desadostasunak, egia da ere arreta ematen duela desadostasun bilakatu izanak hainbeste adostasun.

Kanpotik aztertuta, artifizialki hanpatua dirudi polemikak. Kontrako itxurak egin arren, puntu nagusietan bat datoz: gizartean bizi diren izaki historiko aldakorrak dira hizkuntzak, hizkuntzek beren logika propioa dute, errealitatea ebaki eta taxutu bere erara egiten du hizkuntza bakoitzak, lotuta daude hizkuntza eta pentsamendua, estrategia eraginkorrak adostu behar ditugu euskara salbatuko bada, etab.

Orduan, Txillardegiren eta marxisten arteko botere-borrokak zergatik hartu zuen adierazpidetzat horrelako eztabaida? Horri dagokionez ere,

---

<sup>235</sup> *Hizkuntza eta pentsakera*, 53-54. orr.

<sup>236</sup> "El solipsismo lingüístico", 300-301. orr.

Joxe Azurmendik eman du erantzunik zentzuzkoena. Galdera–sorta bat da erantzuna, hain zuzen, hizkuntzaren balio politikoaren ingurukoa: mundu–ikuskeraren berezia bada, hizkuntza bakoitzak, ez ote da kili–kolo geldituko nazioarteko langileriaren mundu–ikuskeraren, marxismo–leninismo zientifikoak aldarrikatua? Herriek ala klaseek mugiarazten ote dute, nagusiki, gizateria eta historia? Herriei ala klaseei eman behar ote zaie lehentasuna gizateria eta historia ulertzeko orduan? Azurmendi:

«Diferentzia erabakigarria bien artean doktrina linguistikoei ematen zaien edo ez zaien balio politikoan bilatu behar da apika. Eta, zuzen ikusten badut, Ereñoren artikuluan diferentzia hori hizkuntza eta mundu–ikuskeraren inguruan iruten da. Beharbada, hizkuntza bakoitza mundu–ikuskeraren bat dela onartzen bada, eta era horretan herri (nazio) bakoitza mundu–ikuskeraren bat originala legez definitzen eta mugatzen bada, marxista–leninista bat beldur da, nazioaren izaerari inportantzia larresten zaiola (gizadia nazio ezberdinen batura, emaitza, bihurtzen baita), eta batez ere proletargo internazionalaren mundu–ikuskeraren galtzen dela? Eta mundu–ikuskeraren guztiak hizkuntzak baldintzatzen eta, beraz, subjektiboak badira, non gelditzen da mundu–ikuskeraren marxista–leninista zientifiko objektiboa? Klaseek ala herriek ezaugarritzen dute gizadia, historia?»<sup>237</sup>

---

<sup>237</sup> Humboldt. *Hizkuntza eta pentsamendua*, 294. or.

## BIBLIOGRAFIA

Gaur egun, *Jakin* fundazioak digitalizaturik, [Txillardegiren obra osoa dugu eskura sarean](#), edozein adinetako erabiltzaileri gauzak erraztuko dizkion bilatzaile eraginkor batez hornitua. Hona hemen:

Txillardegiren obran barneratzeko, uste dut Miren Rubioren biografia dela sarrerarik egokiena. Ondoren, Joxean Agirreren *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean* eta Txillardegiren beraren *Euskal Herria helburu* irakurri beharko lirateke. Hirugarrenik, Koldo Izagirrek eta Juan Luis Zabalak *Susan* argitaraturiko Txillardegiren kroniken antologia, gozamen hutsa baita.

Txillardegiren Hizkuntzaren Filosofian zentratu nahi izanez gero, *Hizkuntza eta pentsakera* da libururik garrantzitsuena. Bestalde, Jakin, AEK eta EHU, lankidetzan, Txillardegiren testu hautatuen bildumak argitaratzen ari dira, gaika. “Dabilen pentsamendua” izena jarri diote ekimenari. Hirugarren aleak Hizkuntzaren Filosofiari loturiko Txillardegiren testurik esanguratsuenak jasotzen ditu. Alaitz Aizpuru adituak aukeratu ditu, eta Iñaki Zabaletaren hitzaurre mamitsua dakar.

Azkenik, hizkuntzari buruzko Txillardegiren ideiak testuinguru zabal batean kokatzen ditu Joxe Azurmendiren *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua* eredugarriak. Ezinbestekoa egiten dute darabiltzan iturrien ugaritasunak, hizkuntzaren filosofoen ideia nagusiak aurkezteko argitasunak eta Azurmendiren beraren arrazoen aberastasunak.

## BIOGRAFIA

- RUBIO, Miren: *Txillardegi. Batasunaren pentsalaria*, Dabilen pentsamendua, Jakin-AEK-EHU, 2019.

## ELKARRIZKETA LIBURUA

- AGIRRE, Joxean: *Hitza hitz. Txillardegirekin solasean*, Elkar, Donostia, 1996.

## KRONIKEN BILDUMA

- *Kronikak*, Susa, Zarautz, 2022.

## TXILLARDEGIREN LIBURUAK

### SAIAKERAK

- *Huntaz eta hartaz*, Goiztiri, Baiona, 1965.
- *Sustrai bila. Zenbait euskal korapilo*, Sendo-Irakur Saila, Donostia, 1970.
- *Hizkuntza eta pentsakera*, Etor, Bilbo, 1972.
- *Oinarri bila*, Egilea editore, Donostia, 1977.
- *Euskal gramatika*, Ediciones Vascas, Donostia, 1978.

- *Euskal fonologia*, Ediciones Vascas, Donostia, 1980.
- *Hizkuntzalaritza*, UZEI, Donostia, 1982.
- *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, Elkar, Donostia, 1984.
- *Euskal dialektologiaren hastapenak*, UEU, Iruñea, 1987.
- *Soziolinguistika matematikoa*, UEU, 1994, Xabier Iasirekin elkarlanean.
- *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, Tafalla, 1994.
- *Lingua Navarrorum*, Orain, 1996.
- *Euskararen aldeko borrokan*, Elkar, Donostia, 2004.
- *Horretaz*, Elkar, Donostia, 2007.

#### ARTIKULU-BILDUMAK

- *Euskal Herritik erdal herrietara*, Egilea editore, Donostia, 1978.
- *Gertakarien lekuko*, Haranburu, Donostia, 1985.

#### ELEBERRIAK

Diglosiak eraginiko arazo psikolinguistikoak dituzten protagonistak Exkixu, Putzu eta *Labartzari agureko* Antton Ihartzegarai dira.

- *Leturiaren egunkari ezkutua*, Lur, Donostia, 1957.
- *Peru Leartzako*, Itxaropena, Zarautz, 1960.
- *Elsa Scheelen*, Lur, Donostia, 1969.

- *Haizeaz bestaldetik*, Egilea editore, Donostia, 1979.
- *Exkixu*, Elkar, Donostia, 1888.
- *Putzu*, Elkar, Donostia, 1999.
- *Labartzari agur*, Elkar, Donostia, 2005.

## **TXILLARDEGIREN TESTU HAUTATUAK**

- *Euskara batua*, Dabilen pentsamendua 1, Jakin-AEK-EHU, 2019.
- *Nazio auzia*, Dabilen pentsamendua 2, Jakin-AEK-EHU, 2019.
- *Hizkuntzaren filosofia*, Dabilen pentsamendua 3, Jakin-AEK-EHU, 2019.
- *Euskalgintza*, Dabilen pentsamendua 4, Jakin-AEK-EHU, 2021.
- *Intelektuala eta gizartea*, Dabilen pentsamendua 5, Jakin-AEK-EHU, 2021.

## **TXILLARDEGIRI BURUZKO SAIAKERAK**

- ARRIETA, Joxe Agustin: *Berriro eta behin. Euskara dela eta (Txillardegiko gogoan)*, Txalaparta, Tafalla, 2013.
- RODRIGUEZ, Fito: *Txillardegiko*, Erein, Donostia, 2012.
- SARASOLA, Ibon: *Txillardegiko eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, Egilea editore, 1975.



- SUDUPE, Paco: *Txillardegiren borroka abertzalea*, Elkar, Donostia, 2016.
- ZAPIAIN, Markos: *Txillardegi eta ziminoa*, Susa, Zarautz, 2007.

## LIBURU LAGUNGARRIAK

- ASSOUN, Paul-Laurent, *Lacan*, PUF, Paris, 2023.
- AZURMENDI, Joxe: *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, Euskal Elkargoa, Baiona, 1971.
- AZURMENDI, Joxe: *Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua*, UEU, Bilbo, 2007.
- BOLÍVAR, Antonio: *El estructuralismo*, Cincel, Madril, 1985.
- CHOMSKY, Noam: *Mintzairari buruzko gogoetak*, Gaiak, Donostia, 1997 (euskaratzailea, Edorta Agirre).
- CLÉMENT, Catherine: *Vies et légendes de Jacques Lacan*, Grasset, Paris, 1981.
- CLÉMENT, Catherine: *Les révolutions de l'inconscient*, La Martinière, Paris, 2001.
- CLÉMENT, Catherine: *Claude Lévi-Strauss*, PUF, Paris, 2003.
- CONNES, Alain eta CHANGEUX, Jean-Pierre: *Matière à pensée*, Odile Jacob, Paris, 1989.
- EVERETT, Daniel: *How Language Began*, Profile Books, London, 2018.

- FERNANDEZ, Beatriz: *Euskara eta hizkuntzari buruz*, Erein, Donostia, 2017.
- FERNANDEZ, Beatriz: *Hizkuntza gogoan*, Erein, Donostia, 2021.
- IURREBASO, Iñaki: *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa*, Doktore tesia, EHU, 2023.
- JAKOBSON, Roman: *Essais de linguistique générale*, Minuit, Paris, 1963.
- JAKOBSON, Roman: *Six leçons sur le son et le sens*, Minuit, Paris, 1976.
- LACAN, Jacques: *Écrits*, Seuil, Paris, 1966.
- LÉVI-STRAUSS, Claude: *Le regard éloigné*, Plon, Paris, 1983.
- LÉVI-STRAUSS, Claude: *Arraza eta kondaira*, Haranburu, Donostia, 1985 (euskaratzailea, Jokin Apalategi).
- LÉVI-STRAUSS, Claude: *Antropologia estrukturala*, EHU, Bilbo, 1996 (euskaratzailea, Patxi Apalategi).
- LÉVI-STRAUSS, Claude: *Pentsaera basatia*, Gaiak, Donostia, 2005 (euskaratzailea, Isabel Cantero).
- LÉVI-STRAUSS, Claude: *Tropiko tristeak*, EHU, Bilbo, 2009 (euskaratzailea, Jon Alonso).
- LÉVI-STRAUSS, Claude: *Nous sommes tous des cannibales*, Seuil, Paris, 2013.
- LOYER, Emmanuelle: *Lévi-Strauss*, Flammarion, Paris, 2015.

- MARTINET, André: *Éléments de linguistique générale*, Armand Colin, Malakoff, 1960.
- MASSOTTA, Oscar: *Ensayos lacanianos*, Anagrama, Bartzelona, 1976.
- McWORTHER, John: *The Language Hoax: Why the World Looks the Same in Any Language*, Oxford University Press, Oxford, 2014.
- MITXELENA, Koldo: *Euskal idazlan guztiak VI, Hizkuntzalaritzaz I*, EEE, Donostia, 1990.
- MITXELENA, Koldo: *Zenbait hitzaldi*, EEE, Donostia, 2003.
- MONOD, Jean Claude (koordinatzaile): *Dictionnaire Lévi–Strauss*, Laffon, Paris, 2022.
- NIETZSCHE, Friedrich: *Jenseits von Gut und Böse*, Kröner Verlag, Stuttgart, 1991.
- PAZ, Octavio: *Claude Lévi–Strauss o el nuevo festín de Esopo*, Joaquín Mortiz, Mexiko Hiria, 1967.
- PINKER, Steven: *Hizkuntza–sena*, EHU, Bilbo, 2010 (euskaratzailea, Garikoitz Knörr).
- ROUDINESCO, Elisabeth: *Jacques Lacan*, Fayard, Paris, 1993.
- SAPIR, Edward: *Hizkuntza*, Gaiak, Donostia, 2006 (euskaratzailea, Alberto Gabikagogeaskoa).
- SAUSSURE, Ferdinand de: *Hizkuntzalaritza orokorreko ikastaroa*, EHU, Bilbo, 1998 (euskaratzailea, Isabel Arrigain).

– WHORF, Benjamin Lee: *Language, Thought and Reality*, Dead Authors Society, Cambridge, 2023.

– WISEMAN, Boris eta GROVES, Judy: *Lévi-Strauss. A Graphic Guide*, Icon Books, Londres, 1998.

# AURKIBIDEA

SARRERA .....	4
LEHENBIZIKO ATALA: HIZKUNTZATASUNA.....	7
ESTRUKTURALISMOA .....	8
FONOLOGIA .....	10
GIZA HIZKUNTZAREN BEREZITASUNA .....	12
ARBITRARIOTASUNA ETA ASKATASUNA .....	15
HIZKUNTZAK IA GUZTIA MARKATZEN ETA ZEHARKATZEN DU; ALDI BEREAN, GERTATZEN ZAIGUN IA GUZTIA ESANEZINA DA.....	20
GENEAK MINTZO .....	21
BENJAMIN LEE WHORF ETA ERLATIBISMO LINGUISTIKOA .....	27
ITSUTASUN URDINA.....	27
BILARREKO BOLEN LEGE MEKANIKOAK .....	29
HOPÍ .....	30
HOPITARREI BISITA .....	34
MATEMATIKAREN UNIBERTSALTASUNA, AUZITAN .....	35
OLERKI FOSILA .....	39
BALDINTZATZEN OTE DU HIZKUNTZAK PENTSAMENDUA? .....	41
IRMOTASUNETIK ZALANTZARA .....	46
CLAUDE LÉVI-STRAUSSEN PENTSAERA NATURALA.....	54

OINARRI EZKUTUA.....	56
GIZA ADIMENA.....	58
INTZESTUAREN DEBEKUA.....	61
FONEMA ETA INTZESTUA.....	63
TOTEMISMOA.....	64
MITOAK.....	67
EDIPO.....	71
MENDEBALDEZENTRISMOA.....	76
BESTELAKOA ULERTZEN AHALEGINDU.....	78
AMERIKAKO MITOAK ETA GIZON ZURIA.....	79
FRANTZIAKO HIZKUNTZA TXIKITUAK.....	80
HIRU BILAKAERA.....	81
LACAN: INKONTZIENTEA HIZKUNTZA GISA DAGO EGITURATUA.....	83
EUSKARAREN ALDEKO LACAN?.....	83
OINAZE PSIKOLINGUISTIKOA.....	84
HIRU INKONTZIENTE, GUTXIENEZ.....	86
FREUDEN INKONTZIENTEA ETA INKONTZIENTE ESTRUKTURALISTA....	87
FREUDEN INKONTZIENTEA ETA LACANENA.....	89
ISPILUA ETA NI.....	91
METAFORA ETA METONIMIA.....	95
JOAN MARI TORREALDAIREN SOTANA FLOTATZAILEA.....	99

BESTE A GUGAN MINTZO .....	101
INKONTZIENTEA HIZKUNTZA GISA DAGOELAKO EGITURATUA SENDATU GAITZAKE SOLASAK.....	103
TXILLARDEGIREN AMETSEN HIZKUNTZA .....	105
BIGARREN ATALA: EUSKARA .....	107
GALERA ESTRUKTURALAK .....	108
JAIKI BANADI, JAIKITZEN BANAIZ; JASO BANEZA, JASOKO BANU.....	110
SOZIOLINGUISTIKA .....	113
MUNDUKO HIZKUNTZA-GATAZKAK AZTERTU .....	114
GAELIKOA .....	115
HEBREERA .....	118
SOZIOLINGUISTIKA MATEMATIKOA .....	120
EUSKAL HERRIAN ERE, EUSKALDUNA PARIA .....	122
ERDALDUN ELEBAKARRAREN ERAGIN GALGARRIA.....	123
ELEBAKAR BILAKATU .....	125
MUTUTASUN INPOSATUAREN TENTSIOK GABE, JAI.....	126
EZAGUTZA, ERABILERA ETA LEIALTASUNA .....	127
BIZI (BENETAN BIZI) ALA GEUK AKABATU .....	130
EUSKAL ESTATURANTZ .....	132
IZAN ALA EZ IZAN .....	136
HIRUGARREN ATALA: BIOGRAFIA .....	141
EUSKARAREN ALDEKO OBUSA .....	141

ERANSKINA: TXILLARDEGIREN ETA EREÑOREN ARTEKO POLEMIKA .....	147
BENETAKO DESADOSTASUNAK.....	149
DESADOSTASUN ARTIFIZIALAK .....	152
EREÑOREN ALDETIK.....	152
TXILLARDEGIREN ALDETIK .....	154
HANPADURAREN ZIOAK.....	155
BIBLIOGRAFIA.....	157
TXILLARDEGIREN LIBURUAK .....	158
TXILLARDEGIREN TESTU HAUTATUAK .....	160
TXILLARDEGIRI BURUZKO SAIAKERAK.....	160
LIBURU LAGUNGARRIAK.....	161
AURKIBIDEA .....	165